PABLO SASTRE

Mariaren mendea

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1992 Pablo Sastre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1992ko iraila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

MARIAREN MENDEA

1936

Gu lehen aita eta bost seme-alaba bizi ginen Askin, meategi-lekuan, ama seigarren umearekin batean hil egin bait zen gaixoa, etxean aitak egiten zituen denak, berak sukaldeko lanak egiten zituen eta berak orrazten zigun, eta berak hiltzen zizkigun zorriak eta denak berak egiten zituen, eta astean behin andre bat joaten zen suko hautsarekin arropa garbitasunak egitera, ni zaharrena nintzen eta nire anaia hura, bixkitakoa, haren berririk ez dugula hogeitamargarren urtea! Jose Luis, bere lagun batek, Montevideon sei urte eta handik erran zion Urtean mila duro limpio! irabazten ari zela eta beste dozena erdi bat urte Amerikan eginda señore baten gisa itzuliko zela! eta Hi amerikano eginen haiz, erran zion osaba Demetriok, eta hala joan zen eta ez zen gehiago etorri, eta beste anaia meategian elbarritu zen, Askin, aurpegia franko zeratu eta pixkot ikusten zuen eta gero operatu zuten eta

batere ikusten ez zuela gelditu zen, eta gero benikitisarekin hil zen, benikitisak jo zuen eta aurki hil zen, denak hil ziren, bestea ere, ttikiena, Zipriano, hemezortzi urte zituela jo zuen harek, asko hil ziren gaitz harekin, ez dakit nik zer gaitz klase zen, arnas ezin hartua eta ezin hartua eta hiru-lau egunen buruko burutik nahastu eta akabo, eta ni zaharrena eta ttiki-ttikitatik aritu nintzen ikatzetan, aizkorarekin basoak bota eta aizkorarekin txikitu eta txondarrak egin eta gero mandoekin ikatza kamiora ateratzen zuen aitak eta ni hari lagundu eta gero hemeretzi urterekin esposatu nintzen Ladronbaitara, seme zaharrarekin, eta harekin hiru alaba izandu nituen baina, urte gutxiren barnean, karretero ibiltzen zen gizona eta, Frantzian zebilela, hanka erruedan sartu behar izan zuen eta moztu eta txikitu eta handik hil zen, eta baziren bost urte hona ezkondu nintzela, Pedrogana, haren gurasoekin bizitzen ginen, ama oso gaixorik zegoen, aita berriz hantxe, telkorra! beti muturrean! Eta uda hartan Anjel oraindik sabelean izanen nuen! eta Martin ume koxkorra zen artean eta belarritako minez! goizean Donostira eraman eta medikurik ikusi

gabe itzuli ginen etxera! Dena itxia zegoen! Herriko emakume batek, Maixabel izena, haren tabernara joan eta Zer pasatzen da? galdetu nion eta zera, bezperan bi lagun hil omen zituztela eta haiei entierroa egiteagatik dendak itxi zituztela, eta gero, haren lagun bat etorri zen tabernara eta erran zigun, Bati entierroa normal eta ongi egin ziotela, baina bestearenean eskopetak atera eta tiroak goiti tiratu zituztela, ez apaizik ez deus, zakurra bezala eraman zutela! eta Nola zitekeen, galde egiten zuen Maixabelek, berak nazionalistei eman ziela botoa, eta gaur hola eta hola eta zer ba! Eta beste lagun harek kontestatu, Nola nazionalistek artean gorriekin elkar hartu zutela, eta handik etorri zela gerra, ni isilik, segitu du harek, Estatutoa, demonioa! noski nazionalistek Jaungoikoaren legea aurrean paratu zutela baina kontra ari zirela, eta Maixabelek baietz, berak ez zekiela deus baina fraileak abisatu ziola, nazionalistei ez emateko botoa gehiago, gorriekin elkar hartu eta elizak erretzen ari zirelakoz.

Gero etxera buelta egiteko Inozentzioren autobusa hartu genuen eta gure Martin lo joan zen

biraje guztian, enteratu ere ez! Iruerrekako zubian beste aldeko haiek zerbait paratzen ari ziren, eta nik uste gu pasatu eta zubia lehertu behar zutela, bai! asmo horretan ari ote ziren, nago, jaitsi gara Bentan eta bat pistola handi batekin etorri zait, Aizan, ba al dago soldadurik Goizuetan? Ez, ez dut ikusi, goizean ez zela behinipehin, eta harek, Aizan, heldu direlarik telefonoz abisatu, errateagatik erran zidan, ez bait zidan telefono lumerorik eman, eta gainera linea moztuta zegoen! Jose Murritxak, oraindik bizi da, atzera autobusera igo eta honontza heldu ginela, ondoan paratu zitzaidan eta Horiek zer ziren, galdetu zidan, errepublikakoak? Errepublikakoak ote ziren haiek! eta Hala izanen ziren! erran nion nik, hala behar zuten, eta gero hasi zait Murritxa hori ezkurrak goiti, ezkurrak beheiti, orduan legea atera bait zuten hemen, mendiko zerriek mendiko ezkurrak ezin zituztela jan, eta Murritxak Sindolabarren zerriak izaki eta horrekin buruan: Aber zertarako debekatu zuten zerriek ezkurrak probestea! aber horretara zer kalte egiten zuten eta aber zeinek probestu behar zituen orain!

Gu herrira eta noski, denbora berean-edo Unsaloren kotxean abiatuak behar zuten hemendik Donostira Lukas Errazkin! sekretarioa zena, Txapitenean apopilo zegoena, urtebete egin zuen hemen! Tolosakoa behar zuen baina Pamplonan estudiatu eta Goizuetara etorri! eta harekin Segura, botikarioa, eta Larrea bi anaiak, Nikolas eta Juan Jose, bidean haiekin kruzatuko ginen, hala erran zidan Magdalenak,gu herrira ailegatu baino orduerdixka lehenago haiek atera zirela hemendik hara! eta berak erran ziela bideak ez zirela libre-libre izanen! eta Juan Josek erran zuela Joan beharra dago! eta nik guk justo-justo igaro genuela Iruerrekako zubi haiek bota baino lehen! Eta gu behinipehin herrira iritsi ginen eta, orduantxe ari ziren peoi batzuk hemendik, herriko plazatik Hernani aldera beheiti, horko kamioa zabaltzen ari ziren eta haraxe lanera, eta plazan inor ez zegoen! bero ikaragarria! eta Martin lo zegoen! ailegatu gara eta astindu batzuk eman dizkiot eta autobusetik atera eta Txapitenera sartu gara biok, errefresko bat hartu eta Magdalenarekin kontu batzuk erran eta azukre pakete bat erosi...

Tabernan, hara, ikusten ari naizela iruditzen zait! sartu eta ezkerrean baldin bazegoen mostradorea, hortxe kantoi batean Fermin zegoen, izerdi patsetan, baso lanean aritua eta ikaragarri berotuta! Fermin gure lehengusua zen, Gorostipalekoa, baina gero Gorgorira, emaztearen etxera bizitzera joan zena –haiek pobreak ziren, etxea errentan zuten, beti nagusiari ematen, artoa zela, patata zela, arkumeak zirela, oilaskoak-eta, sagarrak-eta. Hemen mahaiak baldin baziren, hiru mahai, lau mahai baldin baziren, haietako batean Paulo, Magdalenaren aita, gizon handi, musu-gorri bat, eta Eladio, pasteroa, ttikittiki bat, beti moxkor egoten zena. Eta Pedro Arroniz ere bazen han, sekretario zaharra, Lukas Errazkin baino lehen sekretarioa izan zena, eta gero ere haren lekua hartuko zuena, eta harekin on Agustin, apaiza, harek Sesmatik, ni oroitzen, teatro bat ekarri zuen, Las blancas mártires de Tai-Bien-Fu! nik ikusi nuen! propio emakumeentzat paratu bait zuten eta etxetik joan arazi ziguten! Ferminen semea ere, Luisito, orain bankuan lan egiten du ba, hori ere bazen eguerdi hartan Txapitenean, eta gure Martinekin urte bateko

aldea izanen du horrek, zaharrago, eta biak jolasten hasi ziren, Martin belarriko minarekin atzendu eta halere sukarrik ez zuen eta tu-tu-tu-tu-tu lokomotorarena eginaz eta bestea, Luisito, zirikatzen, arropetatik helduz... eta mostradorearen barnean Magdalena zen eta heldu naiz eta edateko zerbait eskatu diot eta segituan Ez zekinat Mariya zer gertatu behar den hemen, eta Zer ba, zer ba? eta Lukasek beldurra ematen zidan neska! harek bazekien zerbait! Oraintxe Unsaloren kotxean, Segura botikarioarekin eta horiekin Donostira joan dun eta mutila arront preokupatuta ikusi dinat! Eta noski, militarrak aurki etorriko zirela eta herrian bat baino gehiago izanen zela irrixkuan, Seberiano-eta, Perurena-eta, eta Lukas ere maixko abertzaleekin ikusten zela eta orain pagaraziko ziotela! eta bere gizona ere, Koxme, orduan mendian ikatzarekin ari zela baina lehen batzokian ibili izandu zela, eta lehengo urtean San Ignacio egunean biak herriko dantzariak ikusten Donostiako Atotxan izandu zirela...

On Agustin eta sekretario zahar hura harro ziren orduan! Militarrak altxatu ziren-eta, haiek

umore polita! Gu sartu eta, hementxe daukat, On Agustin Eladiori axeka egiten ari zitzaion, Eladio, xaharra, badakizu, beti xerbelduta eta ijito batzuek-edo Malabaitan oilo batzuk ohostu zituztela-eta, Eladio hantxe parean bide bazterrean lo gelditu zelakoz goardia zibilek harrapatu zuten eta mendira eramateko imusiñoa egin eta No, no, no, por el monte no, por la carretera, por la carretera! jotzeko beldur, eta on Agustinek Atzo ardo botila erosi zenuen! erran zion, eta Eladio erdi-esnatu zen eta Nik ez nuen erosi! eta Bai, erosi zenuen! Kasimirorekin nintzen eta Nikolasenean erosten ikusi zintudan! Eladio trebeska begira, apaiz hura ez zen kristau ona! defentsarik ez zuen xahar bati horrela atxikitzea! eta Paulok orduan Nik erosi nuen! erran zuen, bere boz lodi harekin, eta denak isilik! ez harekin atrebitzen –ez zen gixakoa on Agustin, on Venancio baino ikasiagoa omen zen baina, gizon kamutsa zen! jendearekin ongi etortzen ez zena, Arronizekin-eta bai, baina bestela jendearekin ez zuen balio harek! on Venancio bezalakorik ez da izandu hemen, Lagunak, lagun maiteak, etorri da maiatza, hilabete ederra! sasi guztiak loretan!

asto guztiak aharrantzan! bere pulpitotik, xelebrea, jatorra zen hura! on Agustin eta Arroniz eta horiek, orduan zen gobernuaren kontrakoak ziren, Ez zela bakerik, aspaldi bukatu zirela hemengo bakeak eta zerbait egin beharra zegoela, eta bazen hemen Seberiano, horren alaba gure Martinekin ezkonduta dago! eta horrek orduan nazionalisten buru egiten zuen hemen! botazioetan nazionalistek eramaten zituzten botorik gehienak! eta horrek kontra egiten zien horiei eta Soldaduak ez zirela politikarekin nahastu behar eta Arronizek-eta Eliz denak erreko dituzte eta orduan alferrik izanen dira kejak! eta Esku gogorra izan behar da, gainerantzean sarraskiak hasiko dira aurki!

Lukas Errazkin bestelakoa zen! Magdalenak, etxean izaki eta, ongi ezagutzen zuen eta hura ez zen beste zahar haien izarikoa! Arronizekin ez zen hura ongi moldatzen –Salaberria bazen hemen gizon bat, eta hura zela medio Txapitenean eztabaida handia izandu omen zuten haiek! Arroniz, alde batetik, eta Perurena, kontzejala, bestetik; Lukas ere ba omen tabernan baina ez omen zuen inkik ere erran! Fidel Goñi

bazen hemen propietario mayor contribuyente! erraten ziotena! eta hura ere kontzejala zen, eta monarkikoa edo ez dakit zer zen, eta harek behinipehin bere lagun Salaberriari alhondiga eta mataderoa eta baskularen lanak eskuratu zizkion, eta lehen alhondigako lana sisen arrendatarioak egiten zuen, eta baskularena berriz algoazilak, eta mataderorik ez zegoen, eta Salaberriaren lanpostu berri hura xuritzeagatik aiuntamentuak pisa-zerga eta haragi-zerga paratu behar izandu zituen, guretzako kalte! eta gero Diputazioak kentzeko erran behar izandu zuen eta kendu egin zuten ba, eta noski dekreto bat atera zen orduan, beren ideiengatik edo huelga egin zutelakoz despeditu ziren langileak berriz ametitu behar zirela! eta Arronizek orduan, Legea gaixki egina zitekeela, baina egina zegoela behinipehin eta errespetatzeko! eta Perurena kontra, Salaberriak cabeza de familia pobre y numerosa zela erraten omen zuen eta aber herriko aziendarik onenak zeinek zituen ba! Arrakorriko aziendarik onenak, haren emazteak zituen! Salaberriaren emazteak, lur-sailik onenak! diruz josiak! eta dekretu hura langileak defenditzeko

egina zegoela eta ez Salaberria bezalako gorotzak! Hola aritzen ziren! Fuerte! Perurena hura gero libre utzi zutelarik bere etxean itxi eta handik denbora batera Hernanira joan eta ez dakit orain bizi den edo ez den edo zer pasatu zaion!

Eta apaiza eta sekretario zaharra solasean eta festak eta tripafestak eta pozik eta Fermin mutur beltzarekin! zigarriloak erretzen eta Paulo hankak xabaldu eta lasai! hura ere sartua bait zen Arronizekin zezioan lehenago! Paulok denbora batean tolare handia zuen! sagardoa boteilatu eta Errenterian barrena Lezo, Donostia eta horietara saltzen zuten horiek! eta Paulo izandu zen Goizuetan langileei jornalak ematen aurrena! eta Aizkorbek eta Larreak eta horiek inkurrioa hartu zioten! ez komeni horiei gauzak hala egitea! Eta Arroniz etorri berria zen herrira sekretario, eta beste haien alde posizioa hartu zuen, eta Paulok orduan bertso batzuk paratu zizkion, paratu eta partitu eta hamar zentimon saltzen zituen eta bi errealetan eta bigarren aldikoak ere bai! eta Arronizek juiziora deitu eta berak paratu zituela! eta Paulok ukatu! eta baietz! eta ezetz! a ze armoniak ibili zituzten!

Txirritak erraten omen zuen, bertsoak paratzen, bera baino gehiago zela, Paulo; botzen ez, baina eskribitzeko, bai! eta Eladio, mahaiaz bestaldean, begiak ireki ezinik, eta Magdalenak neri kontuak erraten, nola Juan Jose Amaxemegin jotzeko Hernanin alkilatu zituen klarinetea eta rekintoa itzultzera joan zela, eta on Agustinek hitzerdika zerbait erran zuela, elizan beti dantzaren kontra aritzen zelakoz, eta nola Segura botikarioa muturra berotuta joan zen, eta barre egin zutela, harek Donostiatik beti aguardiente alemana ekartzen zuelakoz! gaisoentzako ere! eta Piramidona! on Venanciorentzako! Eta Lukas berriz, larruzko poltsarekin atera zela, gutxitan eramaten zuena, eta adio! erran ziolarik Magdalenak nabaritu zuela, alegia, edo iruditu zitzaiola, haren begietan axola! eta berak pentsatu zuela igual nobiarekin problemak izanen zituela, hala izaten bait zituen, bera haren paperetan ikusita zegoela! edo igual gerrak baxterrak nahastu zituelako egonen zela serio! eta biraje hartarako, ez zuela Nikolas izanen konpañiarik onena! berari erran bait zion, ez zela fidatzeko gizona! bere burua abertzale azaldu zuela baina uxaka ibili

zela eta ez zuela zintzo jokatu eta ez zuela deusetarako lagundu! eta albaiteruarekin eta herriko karlista ale bakanekin ikusi izan zuela! eta, okerrago, bazekiela Nikolasek, negozioa probestuz, emakume pobre batzuri ñarraskeria egin ziela! zorrak ezin pagatu eta zorrak kentzeagatik harek izorratu zituela! Eta Josefa, haren emaztea, familiak txirikatuta harekin ezkondu zena, ez zela ezkonduz gero etxetik atera! eta Josefa lehen berarekin, Magdalenarekin oso laguna izandu zela, eta horregatik zekiela Leitzako Zabaletarekin nahastuta ibili izandu zela! eta gero bera, Magdalena, hagitz harritu zela jakin zuelarik, matrimonio berriaren umea, subnormala zelakoan, on Venancioren bitartez umezurtzen etxera sartu zutela!

Eta nonbait Andresa, Eustakiorena, zela Nikolasek izorratu zituen andre haietako bat, Andresa gaixoa! burutik gaixki zena eta diru gehiagorik ez ziotela emanen, erran omen zioten! sumentzioa kenduko ziotela eta tonto-etxe batera sartuko zutela! oso pobreak ziren haiek eta etxea erdi erorian zeukaten! Andresaren ama zaharra, zoko-zalea, eta hiru ardi izu, eta katu

beltz mordoxka! bazterrak itsu! eta Eustakio segarekin, eta haien umeak zerriak bezalaxe! bi urte lehenago gripe txar batek haien seme zaharra, Rodolfo, eraman bait zuen, bederatzi urte! ahulak ziren haiek, eskolara joaten baziren herrira lau anai-arrebak, ttikiena ere balantxaka zihoala! etxean edaten! bere bost urterekin, aaaaai! entierroaren egunean Fermin bera ibili zen ilobarentzako limosna eske, eta gero kafeak eta kopak, edan-txamartuta denak, oso tristea izandu zen, eta seme hura galdu zutelakoz aiuntamentuari ehun eta hirurogei pezetako eskaera egin ziotelarik, aiuntamentuak xoxak ukatu zituela! noski mutikoa hamar egunez bakarrik izan bait zen ohean! erran omen zuen Nikolasek, veintenante zena, eta hartara Andresa, lehendik ere hala-hala zebilen eta, orduan hasi omen zen gehiago edaten eta moxkortzen eta katuekin hitz egiten omen zuen! eta gauean negar eta negar! eta gero zeharo txoratu omen zen eta etxeko trasteak txikitzen hasi omen zen eta Nafarroako eroen etxera eraman zuten, eta Fermin, zera, beharrik etxe hartatik atera zen! kamio lanean aritu zen, lehenbiziena herrian, eta gero

Oroz-Betelun eta Garaioan, hango lanak bukatu ziren arte, eta gero herrira bueltan zerran ikasi zuen, mendian, trabesak egiten, tabloiak egiten, han egin eta mandoekin jeisten zituzten herrira –behinipehin, hala ari ginen tabernako ixkinean Magdalena eta biak, eta beste haiek xutik eta besteak jarrita eta halako batean atea ireki da eta Inozentzio! txoferra, gu Donostiatik ekarri gintuena! eta plazan gelditu zena eta Dios! erran zuen, ez al dakizue? eta Zer izan da ba? eta Hor bidean, Ezkurbiko zentralean, tipo bat bota dute soldaduek! Ez erran! Luxio handik heldu zela eta berak ikusi zuela tiroteoa! eta erreketeak eta falangistak zirela eta herriko zibilak ere hara zihoazela! eta Ekarri zerbeza bat handia Magdalena!

Zerbeza edan du Inozentziok eta on Agustin atera da eta Arroniz periodikoa begiratzen hasi da eta nik ere begiratu dut leihotik kanpora eta han gizon batzuk ikusi ditut eta Horra azaldu direnerako, erran zuen Paulok, laster hemen ditugu! eta Inozentziok Sindolabarren barrena joanen ziren horra eta orain bueltan segituan hemen ditugu! eta Ferminek ere pagatu zuen berea eta Goazemak Luis! erran zion semeari

baina Paulok mutikoari karamelo bat eman eta Magdalenak Uztak hemen gurekin ez duk izanen-eta ateratzeko girorik! eta Bale eta Fermin atera da eta nik ere pentsamentua egina nuen ateratzeko baina Zer gerta ere hemen egongo naun pixka batean ba! eta Magdalenari baso bat ureskatu diot eta Inozentzio eta Paulo kamionez hizketan hasi ziren artean! Omnibusa kentzen bazioten, akabo! ari zen Inozentzio, berea balu bezala! eta gure Martin eta Luisito jolasten ari ziren, eta Paulo eta Eladio haiei begira, eta Arroniz periodikoa letzen, eta ni Magdalenari Abiatu beharko dinagu ba! eta Martini Goazemak etxera! errateko punttuan eta orduan Arronizen ondoan zutik zen Inozentziok kanpora begira eta erran zuen Tira, hemen dituk! eta denak korrika leihora! kamion bat heldu zen plazara, soldaduz beteta! zokomoko guztietan soldaduak! Txapitenetik plaza zeharka ikusten bait da, eta kalean orduantxe, labanak zorrozten ibiltzen zen gailego hura pasatu zen, eta harekin Kapero! aste batzuk lehenago etorri zen gixon xantar hura! Nikolasek mandatari hartu zuena! eta hura soldaduekin hizketan eta guretik Arroniz atera zen eta

Arronizen atzetik Inozentzio, omnibusa hantxe aparkatu zuen eta kenduko zioten beldurrez, eta gu umeekin eta Luisek hola heldu zidan eskutik fuerte! hainbeste eskopeta eta hainbeste gizon armatu! eta gero hurbildu ziren, Zu al zara omnibus horren txoferra? Inozentziori eta Bai eta aiuntamentu ondoan, lehen ikatz zakuak pilatzen ziren plaza kantoi hartan zeukan aparkatuta eta handik kenarazi zioten, eta ni goiti behatu nuen eta gogoratzen naiz! elizaren kanpandorrearen pareko mendian, hagitz goian, Anatxuriko belazean, Pepa eta bere osaba! herrian zer pasatzen ari zen somatu gabe belarrak biltzen! eta Xo, heldu ditun hona! erran zidan Magdalenak, eta leihotik apartatzea egin genuen eta barruan genituen reketeak, bi, mosketoiekin, eta beste bat eskutsik, pistola gerrian eta hura desafioan bezala aurrean jarri eta banan banan begiratu eta ahots lakarrarekin Hemen al da Lukas Errazkin? Magdalenak aitari begiratu eta Paulok Ez, ez da hemen, Hemen bizi da, ba! erran zuen militarrak eta Paulok txalantxa egin zuen eta Bai, hemen bizi da, Non da orain? Joan egin da, Nora! Donostiara, erran zuen Paulok, eta makila

estutzen eta Zer duzu zuk? militarrak Eladiori, taltalka ari bait zen gizona, Ez da deus, erran zuen hertsi-hertsian Eladiok, Non dago Errazkinen gela? eta Magdalenak Goian, goian du, Eraman hara! Magdalenaren atzetik sartu ziren militarrak, eta bat gelditu zen gurekin, nerbioso samar bat, eta Paulok hari Zer gaitz egin du! fuerte erran zion, Lukasengatik, eta gu ikaratuta eta soldaduak Silencio! erran zuen eta halaxe gelditu ginen, ixilik, eta orduan Fermin sartu zen eta Hemen al zarete! eta Luis beragana joan zen korrika eta besarkatu zuen eta soldadua haiei apuntaka, eta handik piska batera goian ziren haiek jeitsi ziren Magdalenarekin atzera eta soldaduak zakutto bat eskuan, eta besteak, pistola zuenak, begiak gorri-gorri, Hi zein haiz? Fermini, Fermin Huizi! Zer egiten duk hemen? Semearen bila etorri naiz, Paperak! paperak erakutsi dizkio Ferminek eta besteak etsai muturrarekin begiratu dio eta guri begiratu digu eta Goazen hemendik! erran die beste biei, hirurak atera dira eta Zer nahi zuten? galdetu diot Magdalenari eta harek Dena hartu diote, dena hartu diote, harrituta zegoen eta Ez al dinate beste deus galdetu?

eta Bai: zertara joan den Donostiara eta nik Norekin banekiela, baina norengana zihoan eta zertara, ez zuela deus erran! Ez al da behinipehin etorriko arratsean! eta aitak Etorri? bai hiri xer modux galdetzera etorriko dun! Gero Fermin joan da, Luisitorekin, eta Eladio ere bai, eta ni sukaldera sartu naiz Magdalenarekin eta Martinek Ama zein ziren horiek? eta Soldaduak ziren eta Zergatik zuten eskopeta? eta Eskopeta? ba, tiro egiteko, eta Gaixtoak al dira horiek? eta Bai, eta orain, ixilik egon! eta Magdalena urdurituta zegoen, noski xerbait susmatuta zegoela baina orain ezin zuela sinistu! Lukas, mutil laño hura, umeen laguna –Seberianoren laguna, ba! baina nola pentsatu behar zen, aiuntamentuan eta halako posizioan, irriskatu eginen zela hala? hagitz penatuta zegoen, tripako minak izaten zituela Lukasek! eta pastila xabalak eraman zituela baina jarabea basanotxean ikusi zuela berak! eta Lehengoan, kontatu zidan, iñulabarrean etxera ailegatu eta bi musu eman zizkiola eta Zer dugu ba? galdetu ziola eta Lukasek: Anttonik erran dit... Alegia, Magdalena haurdun bait zegoen! eta mutil sentsiblea zela, koadernotxo bat

zuela eta bere gogoramenduak han eskribitzen zituela, berak, gela txukuntzen eta, ikusi izan zuela! eta Gelditzeko bazkaltzen! eta guk Ez, ez, bagoazen goiti, besteak ere zai izanen dizkinagu-eta! hala abiatu ginen behintzat, soldaduak herrian barreiatu ziren, baina kontentu ziren eta inork ez zigun deusik erran guri.

Gero jakin genuen herrian gizon bat bakarra hil zutela haiek, Hernanirako kamioan peoi aritzen zen Urnietako bat; eta Seberiano Aizkorbe atxilotu zutela baina kapitan karlista baten laguntzaz segituan libre utzi zutela, eta itzuli zelarik bere anaiaren garajean militarrek utzi zuten antomobil bateko irratia entzuten zuela gauez! urrutiko irratiak, debekatutakoak! eta Perurena kontzejala ere preso atxiki zutela eta Urbasara eraman zutela berria ekarri omen zuen Kapero xantar horrek, baina gero jakin zen ez zutela afusilatu; eta Hernaniko kanposantuko horman Goizuetan meza eman izandu zuen apaiz gorri bat hil zutela egun haietako batean; eta Juan Jose Larrea ere preso atxiki zutela egun pare batez, gero noski frontera bidali zutela eta begi bat gutxiagorekin ekarri zutela, eta hemen lokal ttiki

bat hartu zuen eta barberia-zapateria paratu zuen –orain erixka izan behar du horrek, alkohola-ta, gibela...

1951

Ni besteen etxeetan behien umatokiak garbitzen aritzen nintzen, barruko titarea oker izaki eta nik xuxendu eta erdi-erdian paratzen nien, trapu ttiki batekin dena sekatu, eta ur epelarekin garbitu eta berriz ere sekatu, eta gero Ez emateko hari! ez izateko presarik, gero behiak berak eskatuko zuela eta gustoarekin ernatuko zela, eta bestela sarna berritzen ahal zitzaiola, hainbeste aldiz eskua behien umatokian sartuta! orduan, neri, behi umatu berria kendu nahi zidaten eta goizean, baserri batean, Labeburun, Genovevari erran nion, herrira joanen nintzela arratsean eta Nikolasi garbi mintzatuko niola! ez nengoela hartarako dispuesto! berdin denei kontra egin behar banien ere! Espila zatar hura, kastellano hura, ikaragarri traidorea! harek ere estaduaren izenean bildu eta berak saldu eta berak hartzen

zuen dirua! baina gerra pasatu egin zen! eta hasieran ardiak eta babarrunak eramaten zizkidaten, zer ba! paperekin etorri eta zenbat babarrun, eta zenbatsu patata egin ote genuen, eta zenbat ardi saldu genituen, eta gero aiuntamentuari hainbesteko bat, hamar kilo babarrun, berrogei kilo arto, zerria hiltzen bagenuen goardia zibilei ere urdai puska bat! eman behar genien, eta guk ere familia mantendu behar genuela nolabait! eta mantak eta maindireak, denbora batean! eta gero aziendekin segitu zuten, Kapero bidaltzen zuen Nikolasek eta Halako egunean etorriko dira estadukoak eta txekor hori eramanen dugu, oso listo ziren haiek baina nerekin bukatu zen hura, zera, estaduaren izenean hartu eta mataderira eraman eta dirua berentzat jaso egiten zuten, ardiekin egiten zutena, udazkenero-udazkenero etortzen ziren baserriz baserri, batetik bost, bestetik hamar, bestetik hamabost, eta balio bazuten hamalau duro estaduak zortzi pagatuko zuen, eta haiek ere arabera horretan, nahi zuten prezioan, hutsean, eta inork ez zuen protestarik egiten, Frantsesari saltzeko bestela! hari igual hamabi duro eskatu eta hamaikan ero-

siko zuen berrogeitamar kiloko txikiroa, baina hura kontrabandoan ibiltzen zena zen eta ez zen beti etortzen, orduan Leitzara ezin saldu banuen Nikolasi saldu behar nion, zortzitik zortzira Nikolasen fondan bazkaria egiten zuten! banketea, eta alkatea eta sekretarioa beti izaten ziren han! gero ze konfidantza izan behar nuen haiekin! edozein paper aterako zuten eta Mira! baina guri erakutsi edo txekorrari erakutsi igual-igual zen, nahi zutena egiten, gero berriz tokatzen zitzaigu-na baino olio gutxiago ematen ziguten! lau botiletatik hiru eman eta bestea saldu egiten zuten! eta ez zen deus erraterik, haiek bait zekiten, halajainkia! paper kontu guztia.

Artean Martin eta Frantziskak etxetik kanpo egiten zuten lana, Frantziska etxe batean, Martin Antonio Aizkorberen dendan, jakiak eta burniak, oihalak, tabakoak, ardoa! Nikolasek ere bazuen bere negozioa, tabernarekin, arkumeak eta txekorrak ere berak manejatzen zituen, baina Antonio Aizkorberen negozioa handiagoa zen! biak ustelak! Martinek tailan behar ez zen koska egiten ikusi zuen Aizkorbe! Pillotegikoei, gu bezalako jendea, ez letzen ez eskribitzen zekitenak! lau

hitzekin engainatzen erraxak, eta guk, eguneko lanak-eta, gaueko lanak-eta, ahal zen guttienarekin pasatzen ginen. Pedro bizkorxeago izan balitz baina, halakoxe gizona tokatu zitzaidan, nik fuerteago uste nuen, Laxaro joan baino lehenago, San Martingo erromerian, begiz joa nuen! Laxaro marroagoa zen baina, harek ez zuen suerterik izandu, nik hamazazpi urte nituela ezkondu ginen eta Askin aritu zen gizona, meategietan, han aritu ziren denak gazterik hil ziren, hautsak hartuta! Laxaro martiloarekin aritzen zen, sei ordu, zazpi ordu, po-po-po, martiloak hautsa harrotzen zuen eta gorputza ikaragarri nekatzen, han egiten bait zuten lo sarritan! nagusiek ez ikusteagatik, lan tristea zen hura eta Laxarok utzi eta karretero hasi zen eta gero karreta batek kolpatu eta zangoa moztu eta alde! eta nik hiru alaba nituen eta ehun eta berrogei ardi, behi batzuk, zerri mordoska bat, eta nere gizona zenaren lehengusua, Jaxinek, erran zidan orduan, hartara alfer-alferrik nenbilela, aziendari ezin kasurik egin baina baserria uzteak pena ematen eta, pena ematen eta, berriz ezkontzea pentsatu nuen: hasi pentsatzen, eta pentsatzen,

eta pentsatzen, eta beti horretara ailegatzen nintzen, beti pentsamendua aziendekin-eta segitzeko berriz ezkondu behar nuela, orduan etorri nintzen Dilekura, Pedro ezagutu nuen eta haren aita oraindik bizi zen, eta harekin erretolika! harek beste seme bati saldu nahi ziolakoz etxea, eta hirugarren semeak Ezetz, ez zutela salduko baina aitona asistitu behar nuela! aitona moxkorra, diru guztiak tabernan xehatzen zituen aitona asistitu, A hori nahi al duzue? ba orduan, saldu egin behar baduzue, saldu: saldu eta neri proponitu, Zuk erosiko al duzu?, Hori ez da hitz egin behar dena, zuek behintzat neri proponitu, gero hala saltzeko atera zela neri proponitu zidatenean eta hemengo berria bait nekien eta Pedro konforme zegoela eta Hernaniko berririk ez nekien eta han neuzkan diruak handik atera eta hemen sartu nituen, paper guztiak Demetrio Urbialde, Hernanikoak egin zizkidan, eta Baietz eta Konforme, gero seinalea presentatzera joan nintzen eta hamabi mila pezeta, denera zortzi mila duro, hogei mila pezeta etxea eta beste hogei mila aziendak eta bordak, eta dirurik ez nuen, atera egin behar nonbaitetik eta zeini kendu ez,

orduan joan nintzen Leitzako Zabaletagana, goizeko ordubietan atera nintzen etxetik, bakar-bakarrik, linterna bat eta makila batekin, tapatapatapatapa bizkor bizkor seietako meza Leitzan aditu nuen! jai eguna zen eta Zabaleta jai egunetan meza horretara joaten omen zen eta hara! gero mezatik atera eta tratanteak juntatzen ziren eta Zabaletak neri Baina zer zabiltza hemen? eta hartu ninduen eta Zatoz hona, sukaldera sartu ninduen, negua hotza eta bidean izerditu eta gero elizan fresko samarra eta hoztu! hala kafesne bat preparatu zidan eta Zugana etorri naiz eta Zer dugu? eta Hola eta hola: etxea behar dut eta nolabait zurekin trato eginen ote genuen, aziendarekin edo zerbaitekin nolabait ere moldatuko baginake, zuk diru pixka bat jarriko bazenidake, eta Bai! lasai egon! erran zidan, gosaria hartu eta bueltarako kotxea jarri nahi izandu zidan, eta nik Ezetz, oinez etorriko nintzela, Dirua ez zidala segituan emanen, lapurrak suelto bait zebiltzan artean eta dirua nuela somatuz gero, zera, baina bidaliko zidala, bueltan berriz, hotza eta elurra hasi zuen eta hankako behatz ttikian handidura bezalakoa atera zi-

tzaidan, grano bat gaxtoa, etxera ailegatu eta arratsaldean ez nintzen ibiltzeko gauza –eta gero handik egun batzutara Hernanira, oinez, inor ikusten nuenean mantso eta inor ikusten ez nuenean lasterka, gelditu ginen baino ordubete lehenago eskritoriora iritsi eta han gizonaren anaiak erran zidan ba, tributa nahi zuela, aitonak etxea hartu zuenean hartu zituen aziendak, konpleto behar nituela utzi, baina nik tributan ez nuen ametitu, Ezetz eta ezetz, gero berriz egin nuen ardi zaharrak bildu, ardi zahar asko genuen etxean eta denak etxera ekarri nituen eta belarra emanez gizendu nituen: merke hartu nituen eta gero goiti igo ziren, urte batetik bestera subida handia egin zuen, eta hala salbatu ginen, defenditu behinipehin, behi bat edo beste saldu behar izan genituen, artean Martin jaio zen, eta Anjel ere bai, aitona hil zitzaigun, bide bazterrean burua putzu batean sartu eta izoztu egin zitzaigun, eta urte haietan egin genituen zorrak pagatzeagatik raka! saldu genituen behiak eta txekorrak eta, nekez hazitako txekorrak, esne piska bat eta gaztaren gazurarekin ikaragarrizko zekorrak hazi genituen eta orduantxe aretxe jaio

berria geneukan momentuan Nikolasek behia kendu nahi zigun! baina ez zidan kenduko! zirt edo zart, inori deus erran gabe herrira jeitsi eta eginen nituen egitekoak neuk.

Arratsaldean noski, olioa eta ura bati-bati-bati egin kaxuela batean, zerrikumea zikiratu behar nuen! bakarrik nintzen etxean! nere gizona zena Juanximonean zen, Petra eta Xexilirekin zoi-lanak egiten, Anjel basoan eta Martin herrian, Bakarrik egin behar al dun? erran zidan Genovevak, Eginda neon lehenago ere! ezker hankatik heldu zerrikumeari, esku batekin haren gibeleko hankak, haren garrasiak! pottoina hartu eta sartu poliki-poliki labana, ebaki eta prist! atera kanpora, zulo ttiki samarra, hankazpia xuritu, hura berexi eta moztu, balankanari heldu eta ur-olioa bota xulo horretara kutxararekin, pixak atera eta garbitu, zauria sendatu eta lasto gainean utzi, berezi, gero herrira! je! iñorantea baldin banintzen ere, neri ez zidaten ziria horren errax sartuko, banekien oso ongi gizon haiek amarrukeria ari zidatela egiten, eta Nikolasi gauzak garbi erranen nizkion, ez bait nintzen haiek uste bezain imixila, eskola falta nuela! oraindik

hanka sartzeko naiz eskolara baina, dotrina puska bat besterik ez dut! Askin bazen andre bat kartilatik erakutsi zidana, a-ta i-ta u-ta, eta gero paperan eta periodikoan eta erakusten zidan pis-kaka-piskaka eta paper haietatik lumeroak eza-gutu nituen, letzen saiatu izandu nintzen, baina gero letra gehienak atzendu! nere seme-alabak bai! urte batzuk egin zituzten behinipehin esko-lan, Martin Antonio Aizkorberen dendan eta zorra handi samarra egin genuen harekin eta mutilak, normalean, zorra kitatzearen alde, ba-sorako hartzen zituen Aizkorbek baina, neri erran zidan, Martin dendarako gustora hartuko lukeela, mutil serioa, baserri lanetarako lebrexta samarra, Anjel baino beti ere makalxeago izandu da, etxean ere, lanik gogortsuenak behintzat, Anjelek egiten zituen, hari lana eta nekea beti gehixeago gustatzen, Anjel Nikolas Larrearen-tzat ere lan egina zen! Nikolas eta Josefak etxe berria egin zutelarik, bi etxe zaharrak bota eta berria altxatu zutelarik, beste mutil batekin aritu zen, hargina, eguneko hogei pezeta, igeltseroak egin zuen harekin negozio polita! zazpi pezeta t’erdi metroko, mila eta seirehun eta hirurogei

metro egin zituen, bi mila eta bostehun duro atera zituen! Orduan Nikolasek bazeukan fonda, janak ematen zituzten, goian bazituzten oheak, negozio samurra, aziendekin ere, Zabaletarekin, horren kamionarekin eramaten zituen txekorrak eta bera motoan joaten zen, eta handik Iruñera trenez, San Ferminetarako hamar bat edo eramaten zituzten urtero, geure txekorrak! geuri kendutakoak! haiek saldu eta beste batzuk erosi, behi ederrak, eta Hernanira ardiak eta arkumeak eraman eta bueltan txekorrak ekarri, karnizeria paratu zuten, sosa, beti sosari begira, eta baserritarra estutzen, eta estutzen, eta gainetik makildu! eta gainetik isilik egon hadi! Uuuuu! nik ez nien inbiriarik haiei! Etxe triste hartan, Josefa zorro-zorro! ze mixterioa! sukaldeko zokoan, bi seme luzekara haiekin: Antoniko, aita bezalako dirugosea, eta gazteena, bestea, botikario estudiatzera Madrilera joan zena, eta Josefa, emakume polita izandu zena arront zimelduta! lastima ematen zuen!

Hara, ez didazu sinistuko, ni Nikolas hori, nere gela gainean ikusita nago! ni ohean nintzen eta bera hantxe kieto-kieto egondu zen, hura be-

heiti begira eta ni goiti begira! hala egondu ginen! eta gero ja-ja-ja! barre gaixtoa egin zidan harek eta ezdeustatu zen eta goizean Pedrok galdegin zidan Zer ibili haiz? eta nik antzeman, dena sorginkeria zela! Nikolasekin bai! eta Kapero, sapoa! Lorenza, neska xapala, hamazpi urte, bordan ardi saldo batekin, eta Kapero Nikolasekin aritzen zen eta Lorenza Señorabaitan bizitzen zen, malda piko-pikoan, terreno bateko azkeneko muturrean, eguzki begian, bordalde zabalarekin, Kapero ezagutu eta galdu egin zen! gizon gaixtoa! Lorenza jotzen omen zuen Puta! puta! erraten omen zion, eta buruan kolpeak makilarekin, gizon irakina, eta neska kikildu, ttutturruka baxterrean, ez bait zuen nora joanik! ez zuen beste seniderik, ez zuen beste inor, ez ume bat ere, hiru aborto! izandu omen zituen, txoribarba eta mihura hartzen omen zuen eta gaizki! hiltzeko zorian! baina ez zioten medikuari deitu, Kapero abisu ematera joana zela eta zera! tabernan egondu zen arratsalde guztian! odol gaixtokoa! eta Nikolasi jendea estutzeko komeni! hura halako izatea, egun batean Lorenza herrira joan omen zen eta Larrearenean gauza batzuk erosi

omen zituen eta, egun hartan Pikornen zerria hil omen zuten eta Larrearen etxetik zaku bat gatz eskatu omen zuten kontserban paratzeko urdaiak, gero berriz dendan konturatu omen ziren azukrea falta zela eta han izandu bait zen lehenago, Lorenzaren sospetxa egin omen zuten eta goardiei detenitzeko erran, mixerableak ziren! gizona han lanean zuen eta bere sospetxa egin omen zuten eta bera detenitu omen zuten! koartelera eraman omen zuten eta ezezta-baiezta, ezezta-baiezta, Campos izeneko goardia ttiki bat bazen eta hura zinbi-zanba jotzen hasi zitzaion, lurrera eta xaflak eta ostikoak! eta hala ari zirela abisua etorri omen zitzaien, Pikornera eramandako gatz hura zabaltzen hasi zirela eta Ui, fina da! probatu eta azukrea! orduan abisua! baina ordurako palizak hartuta, gero Nikolas joan omen zen koartelera eta Zer duzu Lorenza? eta Deus ez, baina... nola jo zuten, eta Zeinek? eta Harek, eta orduan Nikolasek, sarjentoaren laguna izaki-eta, zer egin zuen eta jo zion goardia ttiki hura, Campos hura, bidali arazi omen zuen herritik! bai, joan egin zen hura! eta handik astebetera bere zaldi zurian joan omen zitzaion Lo-

renzari etxera eta zera! izorratu! baina Kapero harekin bakerik ez zuen! eta koartelean hartu zituen kolpe haietatik ere min xorrr bat gelditu omen zitzaion sabelean, makurska ikusten zen, ardiekin aurrera! gazte gainera, hogeitamabost urte baldin bazituen! eta Kapero Nikolasek etxerik etxe bidaltzen zuen eta gure Martini ze sustoa eman zion! oraindik eskolara joaten zen mutila eta arratsaldean aita eta biak Talaiako mendian haritz batzuk-edo garbitzen aritu omen ziren eta gero hura bakarrik etxerako bueltan, iñularrean, han nonbait ixkutatuta omen zegoen eta Ixtanteko erreka parean azaldu omen zitzaion, bere jazkera beltz harekin, burlari! biderdian paratu omen zitzaion eta Ei, mutiko! zisporrot, haren kiratsa, nik abisatu nien nere semealabei Ez hurbiltzeko hari! zeukan kiratsa zeukala eta gizon hura ez zela gizona eta ez hurbiltzeko hari, Xutitu haiz, a! erran omen zion, Martin egun batzuk lehenago gaisorik ohean egondu zen eta Bai, eta Ez haiz salbatuko hurrengoan! hala erran omen zion, udazken hartan ikaragarrizko uholdeak izan ziren herrian, errekak zubiak eraman zituen eta, ur zikina edateagatik-

edo, Goizuetan sukarrak izandu zituen askok, Retolazak txertoak ekarri zituen baina berandu! eta herrian bi ume hil ziren! eta haietako bat, bost urteko bat, Albitzekoa zen, Bordaluzekoa, eta gure Martinek, nik erreparatu, hagitz sofritu zuela! eta ohean egondu zen eta Kapero zinkilimarro harek Ez haiz salbatuko hurrengoan! erran omen zion, mutilak handik ziztu bizian aldegin omen zuen! eta bestea barreka gibelean, arront apuratuta heldu zen etxera mutila, ez zen parte onekoa gizon hura, astebete lehenago Nikolasek kendu nahi zidan behi haren eske bera etorri zelarik etxera! bazekien ez genuela han ikusi ere egin nahi eta halere heldu zen eta ni urketan eta, etxetik metro batzutara gelditu zen hura, begiz begi ginen, A beste maldiziorik ez duk ekarriko nere etxera hik! pentsatu nuen, eta harek Zure alaba ikusi dut herrian! erran ez zidan ba, Pollita dago! zimarroia, lizuna, ez nuen besterik behar! harri kaskar bat hartu nuen lurretik eta bota egin nion! Demonio! Goiti beheiti korrika hasi zen, nik bidea ikusten nuen eta beste harrikada bat erantsi nion, Judas! etorri berriro! eta beste harri bat botzeko astirik izan

nuen, Neskalekuko errebueltan bistatik galdu baino lehenago.

Herrira joan nintzen, bada, eta arratsean heldu nintzen, Martinek oraindik Aizkorberen dendan izan behar zuen eta nik Nikolasen tabernara zuzenean, plazaren atzean zegoen, etxe berri, txuri-txuri-txuria, tabernaren kanpoan gizaseme batzuk eta barnean Nikolas, beste bi gizonekin solasean: haiek ere noski, behia edo txekorra entregatu behar, pentsatu nuen nik, haiek ere mina, eta beste dozena erdi bat lagun jarrita ziren, horien artean Espila, sekretarioa, eta Seberiano, Antonio Aizkorberen anaia, Nikolasengana joan nintzen eta Zer dugu Maria? zuri-zuri harek, Zer dugun? haserre nintzen eta Nik bihar ez dudala behirik ekarri behar! Ez al duzu ekarriko? eta Ez, zuek ez duzue behi horren beharrik deusetarako ere! eta Nahi baduzu behia, Loidin- eta badituzu behi-pila ederrak, batere nezesidaderik gabe, guri kentzen aritu gabe, behia umatu berria guri kentzeko balorea! Estadoari emateko ordena Pamplondik heldu da eta, hasi zen hura, Behia emateko ordena ez da Pamplondik etorri! kontestatu nion eta beste bi gizon haiek harritu-

ta zeuden! eta Ederki dakizu zuk, orden hori hemen bertan egina dela! neri beterinarioak garbi asko erran zidan, gauza horiek ez zirela beste inon egiten, eta Orden hori zuek egina da! eta beste biak ixil-ixilik eta Hauek beldurrak zeudek, pentsatu nuen, baina bazekitek egiak ari naizela erraten, Guri merke erosi gero nahi duzuen prezioan saltzeko kanpora! orain, ederra dago gure behia! orain, gizena dago, haragi ederrarekin...! eta Maria gaizki ari zara eta ixilik egon zaite, Ni gaizki? zeinek egiten ditu gaiztakeriak hemen, hori jakin behar da, zeinek egiten dituen! han siletan jarrita zirenak kusoak bezala begiratzen ziguten eta Nikolasek Ez da hitz egiteko tenorea, Ez dela? nik, eta Eginen al zenukete bihar Pamplondik gizon bat ekarri estadoaren izenean? eta denak begira eta Bai! amore eman zuen, eta Ezin du, ezin du, nik beste bi haiei, bat, Juan Lorenzo, Gorgorikoa, eta bestea, Labeburukoa, Genovevaren gizona, hura txepel samarra zen, eta Juan Lorenzok erran zidan Maria, lasai zaite, eta nik Erran behar ditudanak orain erran behar ditut, eta zuek erran behar badituzue, erran! eta Nere behia ahantzi! eta sekretarioa,

alkate kastellanoaren txakurrak gibeletik erran zidan Karabineroak joanen zaizkizu bila! eta nik Datozela, datozela, ni eramanen naute baina neronek ere bakar bati tripak aterako dizkiot! halaxe erran nion, muturra pasmatuta gelditu ziren, gero behintzat alde egin nuen etxera goiti eta biharamunean ez nuen behirik eraman eta demonioa! ez zen inor etorri eske!

Handik egun gutxitara izandu zen Malaterrekosoroko sarraskia. Pedro, nere gizona zena eta Anjel, semea, hil baino ordu batzuk lehenago izandu ziren gizon haiekin, Anjel orduan, baso lanean aritzen zen, izan zen kointxidentzia, hemen auzoko mutil bat, izena Frantzisko, harek soldaduska bukatu eta Errenteriko basoan beste lau mutilekin hasi zen lanean, eta Frantzisko horrek gure Anjeli Hik gurekin etorri behar duk mendira, guk mantenua emanen diagu eta hamabi pezeta egunero, hala hasi ziren, goizeko bostetarako jeiki eta ogi puska bat jan-eta goiti! gero gauean Frantzisko eta biak etxera etortzen ziren eta besteek mendian egiten zuten lo, txabolan, eta hauek goizean motoarekin joaten ziren eta besteen gosaritako esne marmita eramaten zuten

egunero, Anjel arrantxero! zopa berotu eltze batean, baba beste batean, bezperan egositako baba, patata piska batekin, baba eta zopa eta zopa eta baba, harekin egiten zuten gosaria, harekin gero bazkaria, eta afaria ere bai, bakarrik meriendatzeko hartzen zuten sardina, hirutik bat: sei lagun ziren eta sei laguneko bi sardina, bere tripa, bere buru, dena erretzen zen, oliorik gabe, su piska batez gaineko eskamak erre eta arratsaldean meriendatzeko ogi handiarekin, hamabost eguneko ogia igual, gainean dena urdinurdinarekin, ogia erdibitu eta aurrena piska bat zigortu, sartu sardina eta zanpa! batek hartuko zuen burua, besteak isatsa eta besteak erdiko puska, eta gau hartan bazuten Pedrok eta biek pakete batzuk Bakallobaitatik Berastegiko mugara eraman beharra, bigarren eskua, gau askotan ateratzen ziren horrela, gehienetan irina eramaten zuten, Gipuzkoatik enkargu asko izaten zen, han ez bait zen irinik izaten, eta ogiarekin ere komeriak, nik beti erraten nuen gure etxera ogia ekartzeko! garesti zela baina ekartzeko! talo hotzarekin ibili gabe, sano zen taloa, baina pisua! eta gau hartan behinipehin, aita beti be-

zala serio, muxin! afari legea egin zuten eta Euria hasi behar du, nik erran nien, Iberotik haizea atera zela eta Iberok hautsiz gero euria seguru zegoela! eta plastikoak hartzeko, Goazemak erran zuen aitak, lehenbiziena herrira jeitsi behar zuten, Kristianoerrotan barrena Sindolabarrera, handik xeharka xeharka Bakallobaitaraino, inorekin topatu gabe! behin goardiekin egin bait zuten topo! Rubiok-eta, Buenas noches! erran omen zieten eta Sí, buenas! eta sarjento harek xerbait gehiago jakin nahi zuen noski eta Qué de paseo? eta Sí, al helecho! eta Ya! eta Bueno! eta Adios! herritarrekin konformatzen ziren, bistagorda egiten, herrian sei goardia izaten ziren orduan eta Rubiok eramaten zuen martxa, nerekin frankotan! etxea herritik bakan samar eta maixko azaltzen ziren hona, goiz batean hemen ginen eta Pedro ez zen eta Rubio eta beste bi goardia etxeko sukaldean gelditu ziren gaztainak erretzen! eta beste behin egurra koartelerako txikitzen ere bai! gero berriz nik Hernanira bildotsak eraman behar banituen haiekin arreglo bat egin eta salbokonduktoa eginen zidaten igual! papera, eta paper harekin joan-eta-etorri egiten

nuen, majina biraje! mordoska bildots! behinipehin aita-semeak joan ziren eta segituan euria! uberraka euria! paketeak hartu zituzten Bakallobaitan, sei pakete omen ziren denera, botila batzuk, anixa-edo, metal-hotsa ere ba omen zen, ez sobera pisu, haiek hartu eta berriz ere goiti! Ezkurbitik goiti, Arano eta Goizuetako mugan, Ibero gainean, aita aurrean beti, astoaren atzetik semea, estarta pasatu, zokogune bat eta Malaterrekosoro! borda bat, ba al dakizu non dagoen? ez al dakizu? Malaterrekosoro, Zimizta, Zimiztagaraia, Basakanta, Santxone, denak ikusten dira hemendik! eta hauei, hankak busti! egin omen zitzaizkien, abarka xabalak kotxe zaharraren kubiertekin neronek eginak! busti egin omen zaizkie hankak, eta hezurrak ere bai, eta Malaterrekosorora sartu omen dira, Horko iñauskinak ekarri, erran omen du aitak, sua egin behar zutela eta han ziren iñauskinak emateko berari, zamarrak erantzi omen dituzte, sua egiten hasi omen dira eta, halako batean atea irekitzen! aurpegi gorri-gorriarekiko mutil bat aurrean! Gabon eta Gabon, han gelditu omen zen ez aurrera eta ez atzera eta Pedrok Sar zaite, sartu barrenera, eta

harek duda egin omen zuen eta kanpora begiratu eta kanpoan ziren besteekin konsulta egin omen zuen eta gero lau gizaseme barrura, putzu-putzu eginda, herrikoak ez zirela eta Pedrok pentsatu Hauek makiak izanen dituk ba! mugaz muga batera eta bestera zebiltzan haietakoak izanen dituk ba! musu gorri hura, beste ttiki bat, beste luze bat eta laugarrena zaharxeagoa, haien buru egiten omen zuena eta harek Eseriko gera piska batean eta hizkeragatik Pedrok Gipuzkoakoa behar zuela antzeman omen zion, Goian behean ari dik! eta Hori duk botzea mutilak! baina ez omen zuten solastatzeko gogorik, arront nekatuta! umore eskasarekin! Zaharxeago zen harek bakarrik erran omen zuen zerbait, eta tarteka Pedrori zeharrera behatzen omen zion, eta behatu, eta behatu, zerbait gogoratu nahi balu bezala! gero xutitu omen zen gizona eta bordako paretean bila hasi omen zen, harri tartean, txepetx-kume bat atera omen zuen! lumajea busti-bustia, hegoak astindu eta hegan egin ez zezakeena, gizona atzera bere tokian jarri omen zen eta txepetxa berotzen, daldarka gaixoa, eta txio-txio, hasi omen zitzaion

txoriari, txiotxio erraten omen zion belarrira, behatz batekin buruskari losintxa egiten omen zion eta denak hari begira isilik, txio-txio, prrrrr, tio-tio-tio-tio, erraten omen zion, txori kanta solasa! haren esku xokoan txoriñoa lokartu omen zen! eta ira zahar batzurekin ohantze ttikia paratu eta suaren ondoan lurrean utzi omen zuen, lo! harrituta denak! gero euria mantsoago hasi omen zuen eta Pedrok-eta Goiti behar zutela, despeditu omen ziren, haiek nonbait konprenitu, han ziren kontuarekin hauek ez zirela inorengana joanen, eta goiti abiatu omen ziren eta Anjelek atzera begiratu omen zuen eta bordaren atarian gizon haietako bat ikusi omen zuen berari begira, goiti ote zihoazen-edo –goizean goiz paketeak utzi eta Goizuetara heldu zirela bueltan, lehenbiziko argi-xirrintan, goiz freskoa zen, lainoa zen herrian, Malaterrekosoroko borda ikusi omen zuten urrun samarrera eta aitak komentarioa egin omen zuen Joanak ote dira bordatik horiek! gero etxera heldu ziren eta kanbiatu eta gosaltzen hasi ziren eta Petra patata zuritzen eta Martin esnatu berri zen lanera joateko muturra katiluan sartuta eta besteak kontuak erraten, hala

ari ginela, mendian hots beldurgarri batzuk! aditu genituen, tiro parrasta bat, gero beste tiro batzuk segida-segidan, hogei tiro gutxienez! eta gero beste bi tiro, berexi, goizalde hartan ikusi zutela, erran zuten, Kapero Bulatxikiko errekatik goiti, gero berriz ere beheiti, Zimiztakoek ikusi zuten, orduan Lorenzak haurdun egon behar zuen, bai! eta Kapero Señorabaitatik Malaterre-kosorora, lau gizon haiek hil baino lehentxeago, goardiei lagundu omen zien Kaperok! hortz-urreak kendu-eta, gero eguerdian bi mandorekin atera omen zituzten bordatik gorpuak, eta Kapero aienatu! beste inork ez bait zuen beste sekulan ikusi!

Lukasen ametsa

Está bueno éste, esan zuen norbaitek, Xabi, Joxan, hor al zarete? ez zuen deus ikusten, orain-dik ere gaua, nork hitz egin zuen? gizon baten ahotsa, Non nago? galdetu nahi zuen, idor soma-tu zuen eztarria, harri bat zuen mingainaren le-kuan, Ura, ura! eskatu zuen, inork ez zion adi-

tzen, usain harrigarri bat, usain ezaguna, medikuen usaina, Una mala herida en la cabeza, Cabeza? norena? berea zen noski, Non dago nere burua? txabolan zegoen... Usain fuerte hura, zorabiatzen ari zen, Ura! ura! saiatu zen esaten, baina ez zuen hitzik ateratzen, eta esfortzuarekin kakak aldegin zion, bazihoakiola somatu zuen, zirina, eta zirinaren ostean kaka zurruilo bat, turrut eginez hustutzen ari zen, hesteen presioa nabaritu zuen, bazihoazkiola, heste luze bat, irrist eginda ateratzen ari zen, odol urdinarekin zikindua, ordea estomagoa ere joan nahi zitzaion, beherantza labantzen ari zen, handia zen baina jaio nahi duen ume batek bezala egiten zuen bidea, uzkia bortxatuz irten egin zen, atzetik giltxurrinak, tripetako saburreriarekin jolas piska bat egiten zuten eta gero lerratu egiten ziren zulorantz, haiekin ixurkin hori-xuri, berdeska, gorrikarak, parpar, ezagutzen ez zituen barrunbe txiki batzuk atera ziren, zainak, giharrak, kurruskak, odol kolpe bat eta gibelak ere egin zuen dardar, bere gibel anpatua ipurtzulora zihoan, agur, agur, utzi egiten zuen, plazer halako bat orduan, barrabiletatik tira egiten zioten

barrurantz, zakilak buelta ematen zuen eta bere bihotzari begira jartzen zen, ez! nere laguna, alperrik zen, haiek ere kanpora ziren, orain birikak, arnasa! nola hartu behar zuen arnasa? baina odol xurrupita batekin atera ziren, saihetsak ere hutsik, gorputz ikara bat, azkeneko porroskak, ez zeukan ezer, bihotza bakarrik, dum-dum, dum-dum, bihotza, maitea, ez zaite zu joan, biok elkarrekin, ikusiko duzu... eta bihotzak bere lekuan segitzen zuen, ajea, baina orduan buru kolpe bat izan zuen Ai! berriz ere burua, bai, hantxe zeukan mina, Una mala herida en la cabeza, bere buruan, ba ote zuen bururik oraindik? goizaldean joan egin bait zitzaion, gorputza utzi eta joan egin zitzaion, gorputzetik pare bat metrotara jarri zen eta barre egiten zion, gorputza geldi-geldirik zegoen, goardia zibilez inguratuta, beste gorpu haiek, Xabi, Joxan, Federico, hil al zaituzte? bere burua bakarrik zebilen libre eta txabolako leiho txikitik atera eta hegan abiatu zen, hego haizeak erabilia, haize bero bat! mugaz gaindi joan zen, mugaz bestaldera, lurretik tiro egiten zioten, ban! ban! bera uso bat zen, uso libre, libre bat, munduan inor ez zeukana, ez

ama bat, ez lagun bat, ez atseden hartzeko kabiño bat ere, Goizuetako kanposantu gainean pasatu zen eta Puñaleko aitona, itsuak, ikusi, eta siñuka hilobiak erakusten zizkion, barreka, Nora hoa hegan? esaten zion, hi’re horrara beharra haiz! Aldegintzak usoñoa! oihu egiten zioten zuhaitz hostogabetuek, Aldegintzak! mendiak, eta itsasoak, baina ezin zuen gehiago, oso nekatuta zegoen, erori egin behar zuen, erori egin behar zuen, orduan laino batean sartzen zen eta harek altxatu egiten zuen eraman, eraman, Tolosaraino, hildako bere gurasoen etxera, egurrezko kaja batean sartuta zegoen eta jende batzuk begira zituen, baten bat sartu zen gelara eta Lukas hil dela? no jodas! eta pelukeroari beste batek esplikatzen zion atarian: bai, Lukas, ile beltz hura, A, gogoratzen zen pelukeroa, hortz handiak zituen hura... Jendea bere inguruan jaten ari zen, lehertzeraino betetzen ari ziren ogiz, razionamenduak bukatu ziren! bukatu ziren taloak, kontrabandoak, ogia jaten ari zen jendea, eta ura edaten, iturritik edaten zuten, ur zurrusta ederra, Ura! ura! orduan norbaitek baso bat ezpainetaratzen zion, likidoa somatu zuen,

odola! odola zen! ezin zuen edan, Xabi, Joxan, Federico! Están muertos, sí. Llámale a Kapero, Zibilak! esan zuen Joxanek, eta nahi izan zuten, une batez, erreakzionatu, berak pistola aterata hots ikaragarria aditu zuen, fusil bat ikusi zuen atean, trikornioa leihoan, tiro egin zuen norbaitek, zein erori da? txabolako ispilu txikia, bera eserita izandu zen harria, gakoa, eskuare baten hortzak, hortzak! Ese no tiene oro, gizonaren ahotsa, klin, klin, mailua, Federico! ardigorotzaren usaina, bota beltz odoleztatuak, txabolatik kanpora arrastaka zeramazkiten...

1970

Isidro Beltza erraten dioten hori meategia ireki zutelarik etorri zen hona, Gipuzkoakoa da, herrian aisa jarri zen, ordurako gizon helduxea zen, plakoa, orain den bezalakoa, eta morenoa, orain ez bezala, ilez eta aurpegiz, matrail hezurretik goiti masail erdiraino daukan zauri hori Frantziako gerran hartu behar izan zuen, aspaldi, nik ez dut inoiz tratu handirik izan, nire semeak, Marti-

nek, bai, elkarrekin meategian aritu ziren! baina gizon horrek zerbait ixkutuzkoa bazuela susmoa izandu nuen beti nik, Magdalena zenak erraten zuenez, Isidro Beltzak lehen herrian izandu zen sekretario haren letra igual-iguala! zuen, peñako pankartak eta horko paperak egin izandu ditu eta, Askira etorri zen, badakizu, gu ttiki ginenean han bizi izandu ginen ba, gero itxita eduki zituzten meategi horiek eta orduan atzera ireki egin zituzten eta herriko seme asko sartu ziren horra baina gehien-gehienak kanpotik ekarri zituzten: ezkondutako bat edo beste herrian gelditu zen, bi-hiru familia etxe zahar batean eta hola, soltero zirenak berriz barrakoietara eraman zituzten, porlanez egindako etxe mulko bajo haietara, gu bizi izandako lekutik ehun bat metrora, berrehun baino gehiago lagun! extremeño, murciano, asturiano, gallego, euskaldun, denetik zegoen! aspertuz gero alde! eta bestela segi! bi barrakoi handi, eta etxe txuria ondoan, han ere baziren ezkondutakoak, giro zikina! hura gogoan dut neroni ttiki-ttiki nintzela eta ez zen toki ederra! lokatza-eta, mixeria-eta, jateko patata eta garbantzua, eta xingarra eta txorixoa, eta urik ezin

edan, mineralen garbitasunekin gorrixta heldu zen eta, ardoa besterik ez zuten edaten, eta gero moxkorrak izaten ziren, eta builak eta zamarrak, bat hemengoa zela eta bestea ez dakit nongoa! eta emakume kontuak, behin Galleguito erraten zioten mutil isil batek etxe txuriko Manuel Rodriguez izeneko bati nabala lepoan sartu zion, Manuelen andrearekin nahastu eta zezioa izan zutelakoz biek.

Eta Isidro horrek urte batzuk egin zituen han eta gero, askok fardelak egin eta norbere herrira itzuli zen denboran, lana ere gutxixeago zegoela eta, hura herrira jeitsi zen, Juanaren etxean apopilo, hala bait da oraindik ere! ba, hura zuloan hasi omen zen minerala ateratzen, baina gero, bigarrengo urtean, galeria jeneralean minerala ateratzeko kaldera erabiltzen ari zela, furgoneta zaharra goitik beheiti helduki zen abioan eta berak ez ikusten eta hanka harrapatu omen zion eta belauna txikitu, orduan ayudante de lavadero jarri omen zuten, eta gero ofiziala, maquinista de primera, belaunari esker harek ez omen zituen birikak erabat hondatu, bestela ez zen bizirik izanen! galerietan orduan, babes bakarra, es-

ponja bat ibiltzen bait zuten aho-sudurrean goma batekin lotua, hirurogeitabostean, Martinek hura utzitakoan, heldu omen ziren eta lehenbiziko karetak, eta handik hiltzen ziren minero gehientsuak, hautsa zela medio, labaderoan egin behar izandu zituen hango bere azkeneko urteak Isidro Beltz horrek, tanketan garbitu beruna eta gero filtroaz lehortu eta depositora pasa, kamionetara, gero berriz, beruna gutxitu egin omen zen, eta blenda ere bai, eta espatoa bakarrik ateratzen zuten, eta hondarrak errekara botzen zituzten, eta konturatu ziren arraia galtzen ari zirela baina halaz ere segi!

Gure Martin Isidro Beltzarekin hagitz ibilia da, Erramunekin eta Manolorekin eta, edadez pareparekoak ez izanagatik askotan ateratzen ziren elkarrekin, zela soziedadera, zela festara, zela ehizara, denak behinipehin meategian aritutakoak ziren eta, Martin baso lanean hasita zegoen baina, Aizkorberen denda utzi zuenean koadrilarekin Prantzira, Haute Garonera, trabiesa piska bat egin-eta, papeleretarako xeheak-eta, han astoak bezala lan egin eta bueltan Martin bere kasa hasi zen hemen, basoa erosi, egurra saldu,

tipo horretara, eta Erramunek ere, Askiko lana utzi eta kamionarekin esne biltzen hasi zen, Goizuetatik Hernanirainoko baserri guztiak korritzen zituen, hala egin behar du oraindik ere, eta Donostira ere badituzte horiek joan-etorri batzuk eginik, Jesus Perez, Txapiteneko Prudentxirekin ezkondu zen hura-eta, beste minero batzurekin, larunbat arratsaldean autobusez joanen ziren Donostira eta, Conchan paseo bat edo zirkoa bazen zirkora edo giro bazen plaiara, dantzara ez omen ziren inoiz ere joaten! eta arratsean, ziten etxera joaten ziren, hango alde zaharreko batera, edo Antiguoko barrioko bestera, etxe horiek ezagunak izan behar dute! ez dakit oraindik izango diren, larunbatean kobratu eta fuego! kanpoko minero gehienek egiten zutena, gure Martinek ez! bertakoek ez, bertakoek gehienaz ere Hernaniko buelta egin eta etxera iluntze nabarrean! baina beste haiek etxe haietan ezagunak ziren! dormida egiten omen zuten han, denek elkarrekin gosaldu eta berriz ere goiti, barrakoietara, ibilera haiexegatik kanpoko minero-etatik ia inork ez zuen herrian nobiarik egin!

Ba, egun hartan, festak ziren herrian, artean nere gizona bizi zen eta, arratsaldean zezenak izandu ziren plazan, eta nik ikusi! Rubito de Viana! mutiko bat, ez zait sekulan ahaztuko! ze garbosoa zen! ze korajea zuen! eta gero, ilunbista heldu zela, hau ikusi, bestea ikusi, tonbola, karrusela, Urnietatik etortzen zen hari erroskilak erosi eta gu ja etxerako! siempre toca, eta biharamunean Martinek kontatu zigun, haiek soziedadean omen ziren ba, Isidro Beltzarekin eta Manolorekin eta Erramunekin eta, haiek beti afariak! basurdea ez bazen oilagorra zen, edo usoa, edo legatza! Pasaiatik ekartzen zuen Jose Manuelek, edo trikua, ama! trikuaren karrasiak, bertatik entzuten genituen! uste bait genuen ume bat hiltzen ari zirela soziedadean! bizirik zegoela bizkarretik ireki eta larrutzen, karrasi ikaragarriak! Lorenzak ume deabru hura egin zuenean bezalakoak! –zuk ez duzu jakinen hori, Lorenza, lehengoan kontatu nizun ba, Kaperok hura haurdun utzita alde egin bait zuen hemendik! eta gero, zenbait hilabeteren buruan monstruo batez erditu zen Lorenza! belarririk ez zuen eta isats luzzze bat! min ikaragarriak eta orruak

eta ahotik aparra eta bere konpesioa egin-eta segituan hil omen zen gero, apaizak berak eman omen zuen satan ume hura itotzeko agindua, on Juan zen artean, hargatik Apaizak? erran zidan ahizpak, nazkatuta neon! eta Isilik egon hadi neska, hire gogokeriak ditun horiek! eta Ba al dakin on Juan ezkontzera doala? On Juan? Bai, ezkontzera doa, gaur meza eman du eta bere neskarekin hor joan da pinudian goiti, eta apaizekin arront deseingainatuta zegoela, neskaren anaiek zer zebilen jakin eta desafio egin omen zioten, hilko zutela eta hartzeko, gainerakoan hilko zutela, eta joan obispoagana, apaiza, eta habitoak uzteko eta ezkontzeko, erran omen zion obispoak, berak kontatu zuen, igandeko sermoian, nola batekin engainatu zen eta nola uzten zion bere apaizetako zerari, hara gizon sotila!

Hauek gau hartan afaria zutela eta nonbait, ogia eramateko enkargatu zenak ez zuen ogirik eraman-edo, ogirik gabe gelditu ziren behintzat eta gure Martin eta Isidro Beltza erraten dioten hori joan omen ziren Txapitenera, han beti izaten zen eta ogi luxeren bat edo soberan, artean

plazako burruketa hasi gabe behar zuen eta Txapitenera sartu dira eta Aizan, jateko moduko ogi pare bat ez dun bada izanen, Prudentxiri, eta honek, motel txamarra izaki eta, Ogia? zer ba? Ekatzan ogia! Emakume xoila, Prudentxi, Jesus Perez hori orduan esposatu zuen, sukaldera sartu zen ogi bila –Prudentxi eta, Mikaela eta, Juanita eta, Rosario Igantzikoa, beti masailak gorrixta baxoerdi parea edan balu bezala, aita pastila pilo bat hartuta hil zitzaion hari, odoleko pastilak edo ez dakit zer ziren haiek, haiek beti egoten ziren Txapiteneko sukaldean! herriko berri bazekiten haiek! Magdalenak erraten zuen bezala Pilota plazako gure leiho horrek baleki hizketan, erranen luke zenbat zahagi ardo ohosten ziren horrera, eta puruak, Magdalenak berak egiten omen zituen oso puru ederrak, nik ezagutu nuen ganbaran aniloak paratzen puruei, gero Café Oriental Donostira eta Pamplonara eramaten, Juanitaren amak eramaten zituen Pamplonara, aitak erraten zion Hik uka, hik uka, uka, hik! atxikitzen bazuten ere, Eladio, Juanitaren aita, gizon eroa zen! ardoari arront emana eta zernahi disparate egiten omen zuena etxean:

behin, amak loreekin ikaragarrizko afizioa eta lore ederrekin omen zuen Hernaniko balkoia eta Eladiok Fuera berdura, fuera berdura! ojuka hasi eta denak kanpora bota omen zituen, haren beste alaba, nola zuen izena? Paqui, ez, Paqui ez zen! alferrik da! ez naiz akortzen, goardia zibil batekin ibiltzen hasi zena, Ño! erran omen zuen amak, hura jakin zuelarik, orain alabak bestaldeko nobioa egin digu! eta gizonak berriz, ezagutu zuelarik alabaren senargaia, erloju eskumuturrekoa eta eraztuna omen zeramatzan eta Usté rico-rico e? erran omen zion, reloj en la mano y sortija y diente de oro, ja, ja, ja! Hernanitik herrirako hartan ibiltzen zen saka-mataka azkena, burdin zaharrak eta trapu zaharrak-eta biltzen, txapuzak egiten, berak arreglatu omen zuen konpontzerik ez zuela erraten zuten Oiartzungo errota, Benga ekarri neri mailua! eman omen zioten eta klaska, klaska, klaska, eta errotakoek Dios, oraintxe egin ditugu! baina latx-latxa utzi omen zuen bada harek, ederki edo zebilela behinipehin, azken alaba harek etxetik aldegin eta gutxira, hirurogei urte gabe hil zen Eladio, bazkalondoan Hernaniko gari-ale buru-ttiki haienga-

tik gaizki esaka aritu omen zen eta gero siestara sartu zen eta arratsaldean, lore pote haiek bota zituen bezalaxe bota omen zuen bere burua balkoitik beheiti.

Zer ari nintzen erraten? Eneee! hasten naiz txarduketa batekin hasi eta bestearekin segi eta solaskeria franko! Isidro Beltza, bai! zer egin zuen Isidro Beltzak Goizuetara etorri baino lehen! Martinek errana, Frantziako gerran hartu omen zuela aurpegiko zauria, eta bularrean ere ba omen duela bala zulo bat itsusia! gero, hango meategiren batean lan egin omen zuen, eta sos batzuk bildu zituelarik, hango portu batean, Marsella! hango portuan Ameriketarako barku batean sartu omen zen pasajero, Argentinara joateko, eta han sortzez nafarra behar zuen nagusi batek hartu omen zuen aziendak zaintzeko lanean, gutxi pagatzen omen zion eta berak Lauak bat! ba omen da ba han euskaldunen soziedade bat eta han sukaldari aritu zen eta gero kontrabandoan ere bai, barku batean, Mar de Platan, eta chester eta luki eta tabakoak eta Espainiatik joaten ziren botilak ere bai, fundadores, centenarios, eta urrutiko txiskeroak, gauza harriga-

rriak, fotografiak, kaskabelak, gauza horiek kontatu egin ditu berak, hala hornitzen omen zituzten hango euskaldunen etxeak, lau-bost egunetik behin errekaz bestaldera pasatzen omen ziren gauez, orduan hiru emakume ibiltzen omen zituen, haietako bakoitzak hiru soineko, abrigo bat eta maleta bete-bete eginda pasatzen omen zuten erreka, Joño, erraten omen zion Isidro Beltzari hango polizi batek, zu asko ibiltzen zara e? eta Isidrok Bai, gu pelotariak gara eta, paletak eramaten zituzten eta, gero berriz, hiru emakume haiek eskapatu omen ziren eta geroxeago bera ere harekin aspertu omen zen eta hango hotel batean ihardun omen zuen konsejero edo horrelako zerbait –Mendozan, hala zuen izena herriak, ongi gogoan dut, hotel hartantxe ezagutu bait zuen Eustakio! gure lehengusua, gaixoa, umeak utzita Ameriketara joan zen Ferminen anaia, eta harexen berriak ekarri zituen Isidrok Goizuetara etorrita, Eustakiok ez bait zuen etxera sekula karta bat bera ere bidali! Andresa, haren andrea, Pamplonako zoroetxetik bidali omen zuten familiak ez zuelako pagatzen eta Bilbon agertu zen gero, Bilbotik ailegatu behar izan

zen eskakizuna hona, alegia, hango kaleetan Goizuetako emakume bat erremes zebilela eta gure aiuntamentuak diruz lagunduko al zuen: bera zen! hemen, Fermin eta horiei, herriko askok egin zien ixkirio! horregatik, ahizpak erraten zidan, Anai batentzat, ohea besterik ez bada, estalpea edo ogi puttur bat edo beti izaten da, ez haiek! Gorostipalen beti arlote bizi izandu dira! eta, Eustakio behinipehin, artzai omen zebilen han, ez omen zen ezkondu, lana gogor egiten omen zuen eta ez omen zuen etxera bueltatzeko gogorik ez diru pikorrik ere –gero Goizuetan, kasualidadea edo, Ferminen oso laguna egin zen Isidro Beltza, beti haren familiarekin, haien harremana bilatu zuen hemen eta barrakoietatik jeitsi zelarik, Fermin hil eta gero, Gorgorira joan zen bizitzera Beltza.

Fermin eta Eustakio nire lehengusuak ziren, bai: haien aitaren aita eta nire amaren aita, anaiak ziren! Ferminek ere suerte gaixtoa izandu zuen, a! meategiak ireki zituztenean bertara sartu zen eta, hango jornala txikia bazen ere, eta telefono kableen lanarekin Hernanira eta Azpeitira joateko aukera izan bazuen ere, edo-eta

egurrarekin nahi izan balu ere! eskuonekoa zen! behinipehin herrian Juanarekin ezkondu eta familia egin zuen eta, lazakeria piska bat ere bai eta, hementxe gelditu zen behintzat.

Meategiko fakultatiboarekin izan zuen lipizta gogorra Ferminek! Martin artean han aritzen zen eta berak kontatuta dakit, Fermin ez bait zuen, fakultatibo harek, hagitz ongi ikusten, nonbait, Fermin eta beste bi lagun Donostira joanak ziren lehenago, abogaduagana, meategitik, espatofluor balitz bezala, izen harekin, egiaz gehiena beruna eta blenda ateratzen ari zirelako, espatofluorrak ez bait zuen benenorik, eta bai berunak eta blendak, horiek garbitzeko zianuroa erabiltzen bait zuten, zikina ez zen-eta garbitzen gaineratikoan. Abogaduak behinipehin, bazterrak farrastatu zituen! eta handik beste urtebetera edo, mineroentzat guanteak eta karetak ekarri zituzten, gero, fakultatibo asturiano harekin –fakultatiboak beti izaten ziren asturianoak, konpainiakoak Bilbo eta Arrasatekoak baldin baziren ere, baina hauek astean behin etortzen ziren bakarrik– izan zuen ateleka Ferminek. Zortzi ordu egiten zituzten egunero eta, jaietan erreparazio-

etarako beste ordu batzuk, agindu zuten ordu gehiago baina mineroek ezetz, Fermini etorri zitzaion kapataza eta Bueno Fermin, bihar –jaiagatik– etorri behar duk, Ez, Zer, ba? Igandea delako eta ez zaidalako igandean lan egitea interesatzen, Ikusiko dugu, fakultatiboarekin mintzatuko naiz, etorri zen fakultatiboa eta Zer, erran zion, erdaraz, zer erraten du honek, zergatik ez duzu etorri nahi igandean? Ongi pagatuz gero, tokatzen zaidana... Etorri egin behar duzu e! Ez, eta Ez, eta Ez, eta paratu zuten haiek jarri zuten paperaren ondoan beste bat, Isidro Beltzak eskribitu zuena, harek bait zuen letra polita, behinipehin igandean bai, igandean ez, hartan ari zirela, hirurogeita hiruan izandu zen hori, istripua gertatu zitzaion: bai bait zuen, Ferminek, kostunbre txar hura, deabruak eraman dezala, eta hala hil zen noski gaixoa, metxa motza jartzekoa, eta ongi kalkulatzen zena zen baina, edan xamarrik sartu ote zen meategira edo, laguntzaileari erran omen zion Atera hadi atzeraxeago, tiroak ematera niak eta, eta berak buelta eman zuelarik danba! bizkarra txiki-txiki eginda, bagoiak arreglatzen zituen beste gallego batek ikusi omen

zuen eta goian zen Isidro Beltzari deitu omen zion Isidro, Isidro, Fermin hil duk eta etorri! San Benito galerian izan omen zen, bizkarra puskatuta omen zuen baina oraindik arnasa hartzen omen zuen, Ea, ea, hemendik atera beharra zeok, kamilian atera omen zuten, Juanaren izena omen zeukan harek ezpainetan baina bidean odolustu omen zen, herriko medikuak zertifikadoa egin eta gero Gorgorira eraman omen zuten zuzenean, seme bakarra utzi zuen Ferminek, Luis, aspaldi Zubitara ezkondu zena hango neskatxa batekin, eta aitaren lehengo afizioa berak hartu zuen, egurra! eskuzerra, zerrotea, zepilo xabalarekin aritu izandu zen baina, jesus tximista! berak ere izan zuen istripu! justo makina berria erostera zihoala tailerrean bi behatz moztu eta, suertea izandu zuen! handik denbora gutxira bankuko orain daukan eseri-lan hori eskuratu bait zuen!

Eta, Martin eta Isidro Beltza Txapitenera ogi eske sartu ziren hartan, kanpoan ixtilua hasita omen zegoen, eta Mikaela, Prudentxiren ahizpa sukaldetik begira egonen zela badakit, eta hari zehar begiratu bat egin gabe ez zuela Martinek

alde egingo, Mikaela beti gizon eske! zerbaitegatik erraten zen, artean eroen etxera bisita batzuk egina zen baina, oraindik gorputz ederra zuen! eta gizonak, pinpirrindu! Amaxemegiko dantzaldietatik ezagutzen zuen Mikaela gure mutil honek, hura dantzan, eta gure Martin baxter batetik begira, lagunekin moxkortzen, nik hori badakit e! ez nago ikusia baina kontu horiek oso ederki dakizkit, noski ordurako alaba bazuen Mikaelak, Ines, orain mediku dagoena, aita Hernanin Orbegozon lan egiten zuen gizon mardul bat, Rodolfo, baina gure Martin honek bazuen ba zerbait, Hegoaizea peligro, erran nion nik, arratsalde batean, soroan ari ginela, hegoaizea putzun sartzen duk e! aguro sartzen duk putzun! xerbait nabarituta noski, eta berak konprenitu, eta hola, ahalketu antxean gelditu zitzaidan, artean Martxelinarekin ezkongai zebilen eta, ez zen txorakerietarako sasoirik, handik hilabete gutxitara esposatu ziren, Martin eta Martxelina, banketea Hernaniko Epelekon, ikaragarrizko festa, beste behin ere ez dut hainbeste maliskorik jan nere bizitza guztian! aia! ongi dakit nik ba, Mikaela maite zuela honek, urte batean, gazteentzako

bizikletaren egunean, Espilako Motza erori zen eta, egun hartan juntu-juntu ikusi omen zituzten biak, eta gero, Askiko maldan sarri ibiltzen bait zen Mikaela, eta Martin ere bai, kamionarekin, ba, zera, ez dakit zer gertatu zen! eta gero Rodolfo, Mikaelaren gizona, gizon mandoa, Hernaniko labeetatik aterata ez bait zuen inoiz, gorputza epeltzeko izaten da ba gelaska bat, hara ez zuen sartu nahi izaten! eta motoz egiten bait zuen hemendik harakoa, behin lanetik itzulian izoztuta gelditu zen gizona, bi hankak moztu zizkioten eta handik hil zen, bihotzekoak emanda, baina hori beranduxeago izanen zen, Martin eta Martxelina hirurogeita hiruan esposatu bait ziren, eta ezteitan Zaragozan hamar egun egin –lau ume dituzte, artean ttikiak, orain ate-gain hori jo gabe sartuko ez liratekeenak! eta pozik bizi zen, herritik kanpo bere bolarak eginda, Frantzian, italianoekin, italianoak pinutan eta euskaldunak pagotan, hala erraten du.

Ogia hartuta atera omen ziren Txapitenetik eta, Portutxarreko kantoian, Santos, herriko mutila, astazakila! kanpoko batzuri errrronka bizian! txoro-moro, eta gero dinbi-danba burruka

hasteko atxaki gutxi aski zuten haiek, Qué pasa aquí! heldu omen ziren goardiak, kaboa eta beste bat, haiek beti kanpokoei kontra egiten zieten, eta kanpokoak azarri, besteek zer egingo, eta Santos eta beste bakarren bat ere kontra su batean, eman egin behar zietela eta eman egin behar zietela eta ematen uzteko! Emiliok eta, lasaitzeko, eta goardiak erdian, itxurak egiten baina kanpoko haienganako gorroto bizian: seguru bait ziren, kaboak hala izan behar zuen ustea, kanpoko mutilak, Pasaia eta Oiartzun eta handik etorritakoak zirela bezperan goiko kamioko gurutze baten gainean ikurriña paratu zutenak, Abertxales, baina Anjelek erran zidanez, hori herrikoen gauza izanen zen, Erramun eta Luis edo ibiliko zirela, eta igual Mattin Mikelestonekoa, orain preso dena, edo haren koadrilako beste gazteren bat igoko zela noski rapadorarekin, goizean goardia zibilek neke ikaragarriak ibili omen zituzten hura kentzeko, Utz nazak hil eginen dizkiat eta, Santos aho-bero hura, Urtain! deitzen omen zioten hari, Urtain, badakizu, bozeoa egiten zuena, harek merezi zuen okozpekoa! baina Martini jo omen zioten bultzakada

bat, ogia lurrera bota bait zioten, Hi Jaxin, ze arraio pasa duk hemen! baina kaboa tartekatu omen zen, kabo hura, Salaberria gazteena preso eraman zuena, beste urte batean, gazte hari, edaten zuelarik, begia kliska-kliska hasten bait zitzaion eta kabo horrek ostatu batean hola egiten ikusi eta, berari imintzioak egiten ari zitzaiolakoan, kuartelilora eraman zuen! eta, Jaxinek hari, esplikazioak ematen Vienen de fuera, y quieren mandar aquí, zera, liatu gaituk, eta kaboak orduan, bere ahots lakar harekin gogoan bait dut Bien, erran omen zien mutilei, hay que dar ostias a esos –bihar baietz nonbait ikurriña azaldu...!

1989

Gelako kristala hautsi egin zitzaidan lehengo hilabetean eta ni hotzagatik kejatu eta inork ez dit konpondu oraindik, ahantzi! ahantzi eginen zitzaien, bost seme-alaba mundura ekarri, horretarako, eta ni hementxe, goatzean, jeiki ezinean urtebete ja, kadera hautsi bait nuen, San Sebas-

tian eguna, seme-alabak zerria hamalau umerekin begiratzera joanak eta silatik erori nintzen rrraka! soinua aditu nuen, hezurra pipittak, hementxe paratu didate burni-barra bat goiti eta berrogeitazortzi puntu eman zidaten, ni, sekula mediku bat ikusi gabea, larogeitazazpigarren urtea aurten! aurtemintan, Jose Murritxak, eroa! gutxi zirela erran zidan! ja, ja, ja, jeeesus! hagitz gutxi, larogeitasei kunplitu nituen lehengo urriaren azkeneko egunean, larogeitasei! halajainkia! beste batzuk hil dira eta guk ez dugu nahi! Nikolas Larrea, azkena, atzo zortzi Legasako bidean aurkitu zuten, Bulatxiki parean, Pedro Mari Basakantakoak etxetik goitik beheiti zetorrela ikusi zuen, bide bazterrean, eskopeta ondoan zuela, berak tiratu ziola bere buruari tiro baina, zera, zertarako joan behar zuen haraino? etxeko ganbaran tiro ematea zuen! igual ez zela intentzio horrekin atera, gizona ez bait zebilen ongi, burutik zegoela, haren arrebak erraten omen zuen senideen artean etsaiak! ikusten zituela, Josefa haren emaztea hagitz penatuta zegoen, emakume gaixoa, hankako minarekin, errenka, goizeko mezara joateko bakarrik ateratzen zen kalera,

eta gizona etxean, xabartuta gizona, ez zuen lasai egon behar Nikolasek! gaitz handiak egindakoa bait zen, hori batzuek bizi direnek badakite ongi! eta hil direnek ere bai asko! eta guk barkatu egin dezakegu baina hildakoek ez dute barkatzen! zera barkatuko dute, Isidro Beltz hori, Eustakiorekin Ameriketan izan zena eta zera, erranen dizut, Nikolas ez zen pakean bizi! alkoholak errea, Inesek errana, joan den urtean osasuna pulmonia batekin konplikatu zitzaiola eta kalenturarekin eta edateari uzten ez, Inesek oso pronostiko txarra egin omen zion, daldarka egoten omen zen, handik ez zen atzera piztu, eta udan kalera atera zelarik arront makal ikusten omen zen, nik ez nuen ikusi aspaldi! eta nola agure tximel horrek ailegatu behar zuen Bulatxikiraino! hiru ordu laurdeneko bidea nola egin behar zuen! eta inork ikusi ez! zubi nagusitik ez zela pasatuko, koartelekotik pasatuko zela eta Depositomaldan goiti igoko zela, baina, Labeburukoek ere ez omen zuten ikusi! sototik ongarriak ateratzen ari ote ziren edo, seko erotuta zegoela! erran omen zuen Inesen lehengusuak, seko erotuta zegoela eta hargatik egin zuela, ba-

zuela osaba bat, hori nik ezagutu nuen! Alejandro izena, Xeferen aita zen, eta Xefe motiko koxkorra zela, bere burua urkatu zuen, Alejandro horrek, itto, ardiak omen zituen harek, kontrabandoan ibiltzen omen zen eta, nonbait abisu eman zieten karabineroei eta harek denak utzi eta eskapatu, eta bere koñaduak aurkitu omen zuen urkatua, lau andre hartu zituen harek: alargundu eta berriz espostu! denak umeekin, ez! bat izan zen umerik izan ez zuena, hori gogoratzen, arratsaldean Ines izan bait zen hemen, bisita egin zidan, botikak ekartzera etorri zen, neri gauza horiek! baina hari kasu egiten diot eta hobekixeago nago! nik bestela gauza naturalak, arraultzen gorringoa eta pereilak eta mizpirak eta, neska jatorra da Ines, ongi zaintzen nau, Ongi ematen duzu, erran zidan lehengoan, Bai, ongi neon, zera, gero eta okerrago, aisago? ez, ez... lastima ama gaixo duela, eta mutila, Mikelestoneko hori, preso du, ez al zenekien hori? polizien kontra burruka egin zuelako preso sartu zutena, haren nobia da! lehengoan Hernanitik pasta batzuk ekarri zizkidan, ilobek jan zituzten denak!

afaria egin genuen etxean eta alabak eta ilobak etorri eta zera, denak jan zizkidaten.

Lehengoan, norekin uste duzu egin nuela amets? Laxaro, nire lehenbiziko gizonarekin, gizon ederra zen, gustoa hartu nion, zuk uste duzu, nire adinean, horrelako istoriak, biok aiuntamentuko aterpean elkarrekin ginela eta zera...! Ja, ja, ja! gaur berriz, Juanximonekoak gogoratu zaizkit, Iñaxio horren aita eta aitona eta osabak eta izebak, horiek bait ziren Laxaroren familiakoak, ooo! arront kontu zaharrak etortzen zaizkit burura, gure auzoan bizitakoak dira horiek, Bordaluzen, zuk ez zenituen ezagutuko gaxoa! eta horiek guri bekazio handiak egiten zizkiguten, guk beti ongi egiten genien, sagarra bazutela eta sagardoa egiteko barrika behar izandu zuten eta guk eman egin genien, eta barrika entregatzeko denboran kaka eginda entregatu zuten haiek, astoak ziren, moxkorrak, gaixtoak, aziendak ere, ardiak eta artantzuak eta bildotsak, denak berex izaten genituen eta haiek kostilezurrak hautsi makilarekin eta begiak jiratuta bueltan, bastoak ziren! harroak! eta gero hemendik, jendearekin haserre eta jendeak bi-

dali zituen eta Legasara joan ziren bizitzera, Juanximonera, eta han ere auzoko denekin haserre! ez ziren inorekin mintzatzen, haien arrebak hiru ume galdu zituen, sor arau hil egiten zituen-eta, Kapero ibili zen hemen gizon sapo bat, bai, erran dizut lehenago, eta harekin bazuten tratua horiek, eta haren andrearekin, Lorenza, xaloa! ez zekien jesusik erraten baina buruz ahula zen, ez zuen heriotz hura merezi! raza gaixtokoak, Juanximonekoak... Hemen herrian bazen, justo, prezisamente, Nikolas hil den horren aitona izan zen hura, eta harek baserrian lan egin behar zuen, Kinkenetik etortzen omen ziren horrara, Botetara, eta iratzea ebaki eta gurdiarekin eramaten zuten etxera, Nikolas ume ttiki-ttikia izanen zen eta haien etxe paretik pasatu zela aitona, ez dakit zeinekin zihoan, Demetriorekin uste dut, biak gurdian eta Juanximoneko mutilak tiroa tiratu omen zion, benganzan, Larrea horrek, lehenago, lur batzuk kendu zizkielako, tiroa tiratu omen zion eskopeta zaharrarekin eta hemendik sartu eta hemendik atera, Nikolasen aitonari, eta begia atera behar izandu zioten, baina bizirik atera zen, orduan gero hatzaparra erantsi zioten

tiro egin zuen hari eta kartzelara sartu zuten denbora batean, gero hura bueltan etorri zen eta ez zen gehiago etxetik atera! mutil harek utzi zuen begibakarra Nikolasen aitona, mendilapurra ematen zuen, begian trapu beltza eramaten zuen eta tratante hasi zen orduan, bere behi txuripinto haiekin eta eenee! lehenbiziko behi Holandakoak, harek ekarri zituen! orduan ardia besterik ez zegoen herrian, berrogei ardi izaten genuen orduan etxean eta orain halajainkia, uuu! hemengo azienda pila, eta, ze gastu gero! dena pentsua-ta, neguan, ixtilu! alpalpa kamiona! alpalpa eta nahiko belarra eta pentsua, orduan, zera, astoa eta bi mando eta bi zerri eta, Jeeesus! baaai, haiek orduan egin zizkieten lur guztiak kendu, berenak bait zituzten, inork ez zituen maite Juanximonekoak baina familiaz nere gizonaren lehengusuak bait ziren, denok ibili genituen saltsak orduan! Handik hartu ziguten Larrea horiek gorrotoa guri ere! nere gizona hogeitamabost urterekin hil zen baina, gero nerekin ere berdin izaten zen! Nikolas, aaa! erranen banizkizu nik Nikolasek egin zituenak! hil denagatik gaizki erratea ez dago ongi baina, harek egin

zuena ere ez dago ongi egina e! ez dago ongi egina! Eustakio bazen hemen mutil bat sanoa eta Nikolasek egin zuen zera, haren andrea izorratu! eta familia galdu eta gizona, Eustakio hori, handik denbora gutxira eskapoan Ameriketara joan zen eta han hil omen zen gaixoa, eta andrea berriz, Nikolasek hautsi zuen hura, eroetxera sartu zuten eta han hil egin behar izandu zuen, hori herrian denek ez dakite, zaharrek bai baina gazteek ez dakite! ai, ai, ai, baina hori horrela da! eta Josefaren semea, Donostian botikario dagoena, ez da Josefarena! Josefaren umea galdu egin bait zuten haiek jaiotakoan, Nikolasek berak hil ez bazuen hura! Josefa beste gizon batekin bait zebilen juntatuta, hura oraindik bizi da, Zabaleta, Leitzakoa, gure ezaguna... Baina, Donostiako hori, ez da Josefarena! andre harena, Andresarena da, eee, hori badakit ongi! Lorenza Kaperorenak hilurre zegoela bere konpesioa egin bait zuen eta erran omen zuen, kanposantuan ikusi zuela, Andresaren umea lurperatu zuten hartan, Josefa nigarrez! Nikolasek zer egin zuen! bere benetako amari kendu zion umea! umea kendu bere benetako amari eta bere etxera era-

man zuen horrek, hori egin zuen, eta bestea, Eustakio, burutik gaixotu eta Ameriketara joan eta han Isidro Beltzak ikusi eta gero hil eginen zen noski –hil eginen zen baina haren anima hemen dabil, a bai! haren anima hemen dabil, oraindik ere, baten batzuren animak ibiltzen dira! zera, orain urte batzuk, Zimiztan, Xeporekin txerri garbitzen ari nintzela, amona Genoveva hila eta egun batean hantxe jarri zitzaigun atearen gainean amona! meza baten falta zuela eta meza bat ateratzeko hari, denbora batean hola etortzen ziren, horrelako asko! eta nik, Xepo hari laguntzen aritzen nintzen eta, erraten nion Nahiago nuke Pelix ere hemendik aterako balitz, Bai? eta Bai, Zertarako? Hango kontuak gogoratzeko, aber zer-nola bizi diren edo zer modutan bizitzen diren, orain ez omen dira azaltzen, lehengoan Maritxuk erran zidan, orain ez direla azaltzen, orain animek meza asko izaten dute eta horregatik ez dira lehen bezala ateratzen, Eustakiorena ere hor ibiliko da, nik ez dut aspaldian ikusi baina, ibiliko da, inor ez bait da akortzen harekin, hara, nik erran behar banu, seguru nago Nikolas hura ikusita zegoela! animare-

kin gogoratzen ez bada, gero ihesi ibiltzen dira horiek, hori ez luke inork sinistuko, sorginkeria edo ez dago burutik edo hola erranen luke, baina haiek atera egiten ziren, geronek ikusia, ttikitan, Etxabe deitzen zen hango gizon bat hil omen zen mendian eta gero gau batean gure etxean pla-pla-pla alanbreak ebakitzeko bezalako soinua aditu genuen kanpoan, eta gero hurruna ere bai, eta berriz ere, eta aitak erran zigun Gaur arratsean begiratu behar dut ba nik lehiotik aber zer ote den, eta gero gau hartan berriz ere soinuak, fuerteak, ikaragarrizkoak, etxea eroriko balitzeko soinuak, eta ezin agoantatu eta kandilak hartuta goiti joan ginen, aita aurrena eta ni haizkorarekin, eta ganbaratik begiratu genuen eta behean, sotoan, leihoaren parerainoko zakurra! ikusi genuen, ilargi ederra zegoen eta garbi ikusi genuen, eta gero beste leihotik begiratu genuen eta zakurra bidean beheiti zihoala ikusi genuen, zubia pasatzen ari zela, gero gau hartan meategiko gizon batzuk joan omen ziren kantinara, atea irekitzeko! ikusi zutena ikusi zutela eta pattarra behar zutela! hurrengo goizean aita Aresora joan zen, han bizi bait zen Etxabe haren an-

drea, eta gizona nola ateratzen ari zen eta aber mezaren batzuk atera edo zerbait egiten zuten, beharrena hori zela, eta harek, hori oraindik egiteko zutela, familiakoek meza bat atera omen zuten, eta beste sekula ez zen haren animarik atera!

Gero, lehengo asteko gau horretan, Nikolas hilda azaldu zen horretan, etxean egin genuen afari: kroketak eta zopa eta arkumea eta oilaskoa piperrekin-eta, Petra eta bere gizona eta bere umeak etorri ziren, eta Xexili eta bereak ere bai, Martin ez! basoan galduta dugu mutila! herrian ez zuela gelditu nahi eta Tira goiti Frantzira basora, aber zertarako ez zen igeltsero sartzen, basoak utzi eta igeltsero sartu! baina horrek segi berean! eta Frantziska ere, ez da etorri aspaldi! gizona fabrikatik kanpo utzi zuten, oraindik hemezortzi mila duro kobratzen omen ditu, gero erretiroa jartzen dioten denboran orduan akaso ez diote horrenbeste emanen baina –eta, afaldu eta, zera, hauek haserretu! Florentina gizonarekin haserretu! Liribitara joan behar zutela biharamunean! artantzu batzuk bazirela bordara eramatekoak eta han ziren ernariak beheiti ekarri

behar zirela, hiru edo lau laster umatzeko egonen zirela eta belarra emateko etxean eta Anjelek, zera, Leitzan ere bazutela lana! jai eguna zela baina kapatazak erran ziela joateko sin falta! eta Bihar, zeinek eginen ditu mendiko lan horiek! eta Nik ez behintzat! hemengo muturrak! Aber berak joan behar al zuen Liribitara ere! aber etxeko lanekin ez ote zuen aski! ikaragarri suspertuta, eta Petrak erran zuen, bera egonen zela etxean eta joateko mendira lasai! eta gero txanpañak edan zituzten eta hitz aspertu batzuk egin, eta gero Anjel herrira jeitsi zen, Pepe, bere fabrikako laguna, orain bartuloak egin eta Castillara zihoala! hara bizitzera zihoala eta Amusenian gelditu zirela tragu bat hartzeko, Pepe eta biak, kangrejoarekin, denbora batean, mila kiloko bobinekin zirriki-zarraka, eta ezin gelditu! bost t'erdietan ateratzen ziren eta etxetik eraman bokadiloak eta atzera iluntze nabarrean bokadiloa probatu gabe etxera! betarik ez! lana! beti lana! eta gero Pepe horrek ixtripua izandu zuen, fabrikako nagusiak bisita egin behar zuela eta lantokia txukundu egin behar zutela, hara, dena xahu, txoko denak pintatu eta, grua baten

gainean botila batzuk egon behar zuten eta, kontroletik Pepe bidali zuten haiek kentzeko baina, beste bat ere konturatuko zen eta, grua mugitu omen zuen eta tetxoa eta gruaren artean harrapatuta gelditu omen zen Pepe, orduan botikinera eraman eta medikuek ez zela deus, eta kalmante bat eman eta etxera joateko; eta gizona gaizki-ta, gaizki-ta, gaizki-ta mediku kabezerakoari deitu, harek ikusi zuen eta segituan anbulantziari deitu Pamplonara eramateko korrika! justu-justu ailegatu omen zen, hiru kostila hautsiak eta bat biriketan sartuta behar zuen, odola zeratzen hasia... horiek lantokian kontua franko, eta orain berriz, automatiko zera horiekin! orduan, zenbat emakume enplegatzen zen! zenbat neska-ta! orain makina batek berrogei lagunen lana egiten du, horrexek galdu du dena –lehen gauzak bagenekien nola ziren, geure esku genituen, aizkorarekin botatzen zen basoa eta egurra txikitzeko jende pilak eta gero, hura bildu, txondarrak egin, ikatzak atera, gero hemengo basoetan gaztainak bildu! ezagutzen al dituzu zuk gaztainak? ez, zera ezagutuko dituzu! gaztain txapardoa, gaztain ederra, hiru-ale, hiru-ale,

alduntzi-mentuak eta mentu-larriak xabal-xabal jarrita, ximeltzen hasitako goiz-gaztainak usaindu, mentuxe batzuk berezi etxerako, ilbeheran jiratu, eta gero morkotsa samurtzen hasita dena jo, morkotsa larria kendu, ondoko txehe zikin haiekin gaztaina zehe-zehe-zehe egoten bait zen, ganbaran torosoka-torosoka, katuek pisa egin gabe ongi kuratu arte tapatuta dena, aaa! bizimodu latxa baina, behinipehin denentzat izaten zen lana, denbora batean, gizona joaten zen goizean eta, gu arto zuritzen etxean igual, lehenbiziko etxe batean eta gero bestean eta hola txandan-txandan, kantuan eta Xingurin gorri bular ederra, ote du adiskiderik, eta besteek kontestatu Bai atsegin baduzu, eta gero Horrek nahi baldin badu adiskiderikan, holako lekutakoa, eta arratsean, gizona berandu etortzen bazen zeozer erraten nion eta goiz etortzen bazen berriz, kontentu, hola izaten zen bizimodua, orain baino xuxenago, bizimodu garbia.

Anjel Pepegana eta Amuseniara sartu omen zen, tximinia piztuta omen zegoen eta jendea erretzen eta kea eta beroa! gure Martin han omen zen suaren ondoan jarrita, Zubita zaharra-

rekin, eta Luisekin, Ferminena, bankuan lan egiten duena, eta Ezkerro-eta beste koadrila batean, eta gazte batzuk kartetan, beste mahai batean, Periko-eta, Jose-eta, Joseren arreba-eta, Ines bera ere bai eta Felipe, monteroa-eta, Zubita-eta, Zer dugu? eta Hementxe, euria hasi duela-ta, blai-blai eginda! Ekatzak kopa bat, Inesi kontu pare bat erran omen zion, nola pastak ekarri zituen eta gure etxean denek aprezia-tzen dute Ines! neska zintzoa da, gurekin beti portatu da ongi! eta alkatearekin ere txarduki omen zen, udaletxeko ixtiluak! sekretarioa bota nahi omen dute orain! pinuekin, subasten diruekin negozioa egin duelako! ley reguladora eta ley contenciosa-eta badira bada! eta orain besteek ez dute mahaian hauekin eseri nahi! eta salatik begira, eta begira, eta alkateak eta horiek sala utzi eta gero xixtako batean itzuli eta plenoa bukatu zela! erran omen zuten, eta Anjel han omen zegoen, Luisekin joan omen zen, eta Bukatu al da, erran omen zuen, hola egiten al duzue zuek lana? Goiti erran zuen, denek aditzeko maneran, Antoniko ere han omen zen, Nikolasen seme zaharrena, bere autobusak utzi eta

han omen zen eta hura berriz oso politikazalea eta gure Anjeli, hori erran zuelako, errebeska begiratu zion! eta gero Luisekin Portutxarren eta berak erran omen zion Luisi Eta herriko problemak, noizko? Herriko problemak? herrian ba al dago ba problemarik? Ez al dago ba? ño motelak! orain politikarekin nazka-nazka eginda dago! Berdin HBkoak badira edo besteetakoak! Joseren kontra ez bait du deus, haren ama, emakume jatorra, gaztetan ezagutu dugu, arraultzekin Donostiara zihoala eta gero neskame egondu zen han, esposatu baino lehenago.

Jesus Perez ere han omen zen Zubita eta hauekin, Zubita horrek ere baditu urte batzuk eta, kontu zaharrak gogoratzen, bera mutiko koxkorra, karretera lanean, pikotxarekin, eta klinki-klanka, klinki-klanka, eta Alfonso trece etorri zela eta Dónde está el alcalde? galdetu omen ziola, pikotxa bazterrera bota eta alkateak orduan estankua zuen, joan harengana eta, beti kontu bera du! eta gero Jesusek, Aranoko ardiak Bordatxipin ikusi zituela, bera letxuga batzuk ateratzera joan zela eta handik itzulita harekin topatu zela, Nikolasekin! atera omen zuen gaia,

eta Luisek orduan begiak kiñatu omen zituen! Luisen familian, erran dizut noski! Nikolas makur handia egindakoa zen, eta hau eta hura eta hasi omen ziren trapuak ateratzen, Malaterrekosoroko hura ere! Luisek erran omen zuen, Nikolasek salatu omen zituen Malaterrekosoroko bordan errefujio bilatu zuten haiek, Kaperok erran berari eta berak goardia zibilari salatu! Nikolas, gerra baino lehen, nazionalista izandu zen, orduko nazionalistena! eta Seberianorekin-eta partidario omen zen! gerra hasi eta berehala ideia haiek atzendu eta aziendekin eta irinarekin negozioari lotu zitzaion, ikaragarri! askok ezin zuten ikusi! eta Anjeli orduan gogoratu omen zitzaion, berak ikusi bait zituen hil baino ordu batzuk lehenago maki haiek, aitarekin zebilela, eta haien soinak eta arropak-eta, hemen ditu! gogoan ditu eta Kaperoz ere gogoratzen da ongi! gizon txaputx hura, gure umeak haren beldur izaten bait ziren! gure Martini susto ederra eman zion ba! Kaperok Nikolasentzat lan egiten bait zuen, eta, batek erran omen zuen, biharamunean etorriko zela haien beste semea, botikarioa, egitan ez bait dute berena! eta Josefak leihoak ireki eta etxeko

ispiluak eta koadroak estali zituela, gizonaren anima ihesi joateko! herrian etsai asko zituela eta lehenago hil ez baldin bazen kontentu baina orain min hargatik desesperatuko zela. Eta Jesusek erran omen zuen, hain gaixtoa ez zela Nikolas, xaloa da Jesus! Nikolasek asturianoei kontra egin ziela, asturiano haiek izorratu nahi zituztela eta Nikolasek kontra egin ziela...

Eta, hartan ari zirela behinipehin, herrian argiak joan ez ziren ba! eta hauek Amusenian eta Urte berrirako seinale txarra duk! eta Salomon apaiza atera duk eta kandelak ekarri! eta halako batean atea ireki zen eta baten bat sartu zen barnera, Anjelek ez omen zuen ezagutu hasieran, gero segituan, Donata, etxekoandreak zekarren kandelaren argitan, antzeman zion, Isidro Beltza zela, eta Aupa Isidro, nondik heldu haiz? eta Zer ba, zer ba! erran omen zuen, irribarre moxorro, eta xira erantzi eta paretean helduleku batetik txintxilikatu eta aulki batean sutara arrimatu eta Juan Joseren ondoan jarri omen zen ixilik, txapela erantzi gabe, sutara begira, eta Anjel berari begira eta denak ixilik gelditu omen ziren instante batean, eta hartan, Isidro Beltza, sutara

begira eta, txistuka hasi omen zen ba! bozik eta txistuka! eta Anjel adi eta adi eta txori kanta bat! eta zeini entzun zion, honek aspaldi, oso aspaldi, holakoxe bat? eta orduan, Isidrori begira, eta Isidro sutara begira, Anjelek xixt! beste aurpegi bat ezagutu omen zuen, beste gizon baten aurpegia, bera gaxtea eta, kanpoan euria eta, bera, aitarekin, sutara begira, eta Isidro Beltzaren hezur-matraileko eta bularreko zauriak, orduan konturatu! Isidro Beltza Malaterrekosoron txepetxa bere eskuetan lokarrazi zuen gizon hura zela!

HAUTSI DU NEGUA

Negu azkeneko zeruan laino beltzak trumilka pilatzen ziren. Giro iluna zegoen, egunak indarra galtzen zuen agudo eta laster dena gau izango zen. Floren izerditan zebilen, mendi ordeka bateko bide-zidor batetik aurrera orain. Lau bat orduz ibili zen haraino, baina oraindik ez zen nekatuta sentitzen. Gaua bordaren batean igaroko zuen eta goizaldean muga pasatuko zuen; behinik behin asmo huraxe jarri zitzaion tinko bi begi berde tartean. Berde xuraila, Florenen begietan, sukar diztira batekin... Bideak ezkerrera egiten zuen maldaño batean instant batez gelditu zen, zetorkeen euriaren usaina hobeki aditzeko.

Betile erreak zituen Florenek, bekain zabalak, aho txikia, larru gogorra, inprimategiko lanak zuritu zuena baina mendiko freskoak masailetan eta sudurrean gorriztatuta orain; ile rubiaska zeukan, bizarra sarri, egun pare batekoa, belarri motxak, eta zaldi baten sudurra, ahoraino luze. Panazko galtzekin jantzita zihoan, bota onez, la-

rruzko zamarraz. Plastikozko poltsa bat zeraman eskuan; esku handia, indartsua, ile rubioekikoa...

Bideak ebakitzen zuen murko gorri txikia estaltzen zuen horbelak. Horbel usu zaharra, barrenean bustia, Florenen oin-hatzak gordetzen zituena. Florenek atzera begiratu zuen, gogoratuz...

Aurreko egunean, arratsaldez, Agustin heldu zen inprimategira. Ate-zainaren parteak egiten zituen sekretariari –Maria, neska airatu, jator bat– utzi zion Florenentzako enkargua. Bederatzitan pasatzeko, sin-falta esan zezaion.

Mariak bista paper batzutatik altxatuz garrantzia kendu nahirik bezala esan zionean, Floreni begitartea ilundu egin zitzaion. Sobra’re, baten bat detenitu zuten bezperan, eta Agustin hartaz zer-edo-zer –ezer onik ez– esatekotan zela zihurtasuna itsatsi zitzaion. Lanetik aterata, etxera gabe, tabernan egondu zen, orduaren zain.

Eguerdiz, etxean, buruko mina hasi zitzaion, pittin bat, apenas ezer ez; arratsaldean berriz, errotatibaren hotsak eta lanaren tentsioak apurka apurka mina areagotu zioten. Gero, kaleko la-

saian, oinazea lokietara bildu zitzaion, estutu zuen, burua alboratu ezinean ibili zen tabernaraino. Tabernan, besterik ez bait zekien eskatzen, ardo beltza eskatu zuen, eta edan, xurrupaka. Bederatziak bost gutxitan taberna hura utzi eta, segundu pare batean gora-behera zebiltzan banakako pertsonez ideia orokor bat bereganatu ondoren, oinez hasi zen, beherantza; gero kale txiki batean imintzio txiki bat egin zuen ezkerrera, segidan zer-edo-zer ahaztu bailitzaion gibelera jo, begirada bakar batez kale bazterrak harrotu, eta tabernatxo triste batera sartu zen, mostradorean gelditu gabe, sukalderaino. Agustin, Joxe eta Maximo hantxe zeuden eserita. Zerbait hitz eginda zeuden, nonbait, zigarrilo batzuk erreta. Etxekoandreak ardoa eskaini zion Floreni, eta etxe barrura bildu zen, isilki. Giro pisua zegoen, enbata giroa.

Agustinengan konfiantza handia zuen Florenek, hura bere kontaktoa bait zen, gizondutako mutil lasaia, aspaldiko laguna. Tipo handi, ile ugarikoa zen, eskuak aldiz tiki samarrak zeuzkan, zurikorrak, ez oso trebeak. Eskuaz musu-bizarrak igurtzitzen zituen, Florenek ia inoiz ikusi

ez zion urduria erakutsiz; baina haren begi grisek gauzak «kontrolatuta» zeudela, esaten zioten. Maximo ere gogoko zitzaion Floreni. Ekintzan ezagutu zuen, eta intimoki bazekien, behar izanez gero, bera haren alde bezala, hura ere bere alde saiatuko zela. Gaztea zen, argala eta ahula, eta espresio triste antxekoa izaten zuen. Joxe ez zitzaion begi beretik sartu: zer-edo-zer gogaitkarrizko antzematen zion; lehengo egunetik, janzkeraz, keinueraz, hizkeraz, hura bere tipoa ez zela, erabaki zuen; «señorito» samarra zela, alegia. Hura ez zen oztopo izan, bestalde, azken hilabeteetan elkarrekin aritu zitezen. Sukaldean, Maximo eta Joxek, kaixo esan eta beren arteko eztabaidan segitu zuten, aparte. Agustin Floreni han-hemenka ibili gabe mintzatu zitzaion:

–Garbi esateko, asuntoa zera duk, bi hauek erre egin dituk eta baziaztik hemendik, gaur, orduan, zera... –ahots lakarra zuen, tabakoak errea–, ez zekiagu nondik joko diguten baina jo behar digutela seguru zegok eta... Hik ere ez duk trankil ibiltzerik orain: arriskua duk herorrentzat eta, hobe huke, laxter aldegingo bahu...

Agustinek zigarriloaren kea irentsi zuen. Bere begi grisez Florenen aurpegian seinaleren bat somatu nahi zuen. Floren ez zen molesto sentitzen, baina ez zekien zer esan. Duda bat bururatu zitzaion, eta segituan bota zuen:

–Hi, seguru al hago?

Agustinek kopeta zimurkatu zuen.

–Bai... niregatik ez preokupatu, Floren, herorrena begiratu ezak.

–Esan nahi diat –Floren oso serio zegoen, bonbila soilaren argitan aurpegiaren itzalak nabarmentzen zitzaizkion–, hi seguru baldin bahago eta hauek-eta aldegiten badute... nondik zetorkidak arriskua neri?

Agustinek irri-aire bat egin zuen.

–Bageneki...! –erre egin zuen eta metalezko hautsontzian zigarriloa itzali zuen; eta gero, zorrotz–: Dena den etzakela pentsa, hire izena herorrek bakarrik dakianik.

Florenek bazekien, zertaz ari zen laguna: kontu zaharrak, beharbada, baina... Egoera baloratzen hasi zen. Gero, biharamunerako gelditu zen Agustinekin. Maximok irribarreti begiratu zion:

–Gu bagoaztik: hire esku gelditzen duk asuntoa, orain –haren begi hitsak malezia poxi batez argitu ziren; esku batekin beste eskuko kailoak igurzten ari zen.

Baina Floren makal sentitzen zen, brometarako ez-gauza.

–Bai! Egon hadi piska batean...

Kariñoz begiratu zion Maximori; gero despeditu zitzaien. Handik irten zelarik, ordubetetxoz ahaztutako minak atzera kolpatu zion eta pentsamentua galerazi, etxerako bidean. Hamaikak inguru oheratu bazen ere, paretera begira egondu zen luzaz, bere arnasa entzunez, ondoan Rosario zuela ohartu gabe.

Dena utzi beharko ote zuen...? Posibilitatea, teorian, beti erabili izan zuen, hartan sartu zenetik, baina momentu hura ez zuen inoiz imajinatu nahi izan. Familia, bere baitan errotu zena, eta lana, biziki gustatu ez arren urteen poderioz eta hainbat ahaleginez iritsitako lana... Eta gerra, gerra basa, herria txikitzen, nahigabetzen zuena, eta bera ere erremediorik gabe aurreraka, aurreraka –norantz?– bultzatzen ari zena. Gerra zahar, negargarri hura, gorputzean sartu-

ta zeukan, eta ezin aldegin zezaiokeen. Gerra irabazi behar zuten, eta gero bizitzen segitu. Gauzak ez zihoazen ongi, aurreko asteetan etsaiek hiri batzuk hartu zituzten, baina buelta etorriko zen, etorri behar zuen, berek zuten arrazoia eta erdietsiko zuten... Umeak ematen zion mina, negar egiteraino: Itzi, nola utziko zuen? Eskerrak Rosariori, harek ulertuko zuen, ulertu behar zuen, eta umeak ez zuen harekin deusen faltarik izango... Baina bera umearekin estekatzen zuen lokarria nola hautsiko zuen? Maitasunezko lokarria, erraietatikoa, bitala, bizi bitartean hautsi ezina... Baina gauzak, pertsonen destinoak, etorkizuna, beren nahikerietatik kanpo, urrun, oso urrun, leku hotz eta heldu ezineko batean erabakitzen ari zen, eta gerra aurrera zihoan, eta gerra egin beharra zegoen, sentimentu harek erre egiten zizkion Floreni barrenak, gurasoek egin zutelako, eta gurasoen gurasoek, eta hori instintiboki zekien, hartan hil egin zitekeela zekien bezalaxe, eta bere jendearen alde burrukatu behar zuen, eta etsaiari ez tregoarik eman, eta batez ere, ez utzi harrapatzen, ez erori, eroriz gero heriotza etor bait zite-

keen, kartzelaldi luzeak, eta bizi egin behar zen, bizi egin behar zen ezer baino lehenago... Eta, loaren zurrunbiloan erabat sartu aurretik, joan egingo zela, erabaki zuen...

Agustinek, goizean –goiz hartan bertan, mendian zebileneko goizean alegia–, lagun gisa baloratu zion erabakia: hitzik esan gabe, gizonak jomuga latz bati begira konprometatzen diren konplizitate misteriotsuaz. Direkzio bat eman zion, pistola bat eskuratu...

Eguerdian, buruko min gogorra zuela esanez, lana utzi zuen, etxera joateko. Larri zihoan, esan beharreko hitzak nahasita gogoan.

Rosario eta umea sukaldean aurkitu zituen. Rosario sutondoan, umea kaja batekin jolasean... Itzi, urte t'erdiko neskatila panpiñ adoragarria. Eta Rosario, mutur beltza, ume harengatik eta etxeagatik bere independentzia bazter batera utzitakoa... Rosariok sorpresaz begiratu zion.

–Ui! Zer egiten duk hemen?

Reprotxe baten itzala zegoen galdera hartan. Florenek ez zuen segituan bildu dena esateko kemenik.

–E...? Buruko minez natxon eta...

–Ba, dagoena jan beharko diagu –esan zuen Rosariok, soilik.

Florenek, zamarra eranzten zuelarik, garbantzuen usaina aditu zuen. Hitzik esan gabe jarri zen aulkian, lurrean zegoen umeari grazia batzuk egiteko. Ume polita zen, besteekin garestia, aitarekin agradezitua... Gero Rosariok eltzea ipini zuen mahaian, eta isilik hasi ziren jaten. Rosario zain zegoen, gizonak hitz egin zezan. Eta Florenek hitz egin zuen, apal.

–Xario... –kariñoz hasi zen, oso bajutik–. Aldegin behar dinat, hemendik... Gauzak gaizki jarri ditun eta, aldegin behar dinat.

Rosariok fijo begiratu zion minutu erdi batez, eta gero, bista makurtuz, goilarakada etsipentsuak ahoratzen segitu zuen. Orduan Florenek ere ekin zion jateari, emazteak zer esango, zain. Gero Rosariok, garbantzu denak janda, baina ohi zuen gisa platera ogiaz lerdatu gabe, aurpegia itzuli zuen, eta arratsaldeko zeru lainotsua ikusi zuen.

–Ba al hoa? –galdetu zuen, zer esan ez jakinik bezala.

Floren berotu zen, Itziren presentzia nabaritu zuen atzean, emakumearen tristura, eta negarrez hasi eta dena bertan behera uzteko puntuan egon zen; baina bihotza bildu zitzaion, eta indarra erakutsi zuen.

–Bai, banian –eta instant hartako sukaldeko sentsazio, xehetasun guztiak inoiz ez bezalako indarrez atxiki zituen.

Baina Rosario arratsaldeari begira segitzen zuen, begiak kiñatu gabe, ezpainak estutu gabe, gozo...

–Gauzak gaizki jarri ditun... –errepikatu zuen Florenek. Eta Rosario itzarri zen, begiratu zion, eta misterioz, ixilkara esan zuen:

–Bai...?

–Hala esan zidan Agustinek. Bazterrak garbitzen ari ditun. Nik ez zekinat... Baina hobe dinat gordetzea, aldi batez... Bai –bere burua komentzitzen ari zen–, joan beharko dinat... Ez zekinat zenbat denborarako baina...

Oso luze jo zezakeen. Eta Rosariok bazekien, eta ezin zezakeen umea bere gogotik apartatu. Neke handiak izandu zituzten ume hura zela medio, berea bezala Florenena zen ume hura

zela medio, eta azkenez –beti haren beldur izan zen– ezin emango zioten bizimodu normalik, benetako famili girorik; eta berak, zer egin behar zuen, hurrengo goizean bere burua bakarrik atzemango zuen etxean, lanik gabe noski, umea jaio zelarik utzi bait zuen tailerra, eta zer perspektiba zuen...? Bapatean, bere isiltasunaz ohartu zen eta esan zion gizonari:

–Eta lana?

Floren lasaitu zen; erraz mintzatu zen orduan.

–Bihar joan behar dun herorrek, eta esan, oheratuta nagoela, bada ezpada ere; gero jakingo diten, baina ez zegon ardurarik, badakin nolakoak diren, lagunduko dinate.

Orain ez zuen tarterik utzi Rosariok; platerak biltzen zituelarik galdetu zion, goxo:

–Zer hoa, mendiz?

Floren ohartu zen haren espresioaren eztiaz; baina orain gogorra behar zuen.

–Bai, noski.

–Zerbait jarriko dinat –erabaki zuen Rosariok; haren eskuak mugitzen ziren; bere ohizko izakera: serioa, aktiboa, apur bat itzuli zitzaion.

–Ez, ez –protestatu zuen gizonak, indarge.

Rosariok ordea txiñarrak eragin zituen, egur pare bat sartu zuen sutara eta zartaginean olioa berotzen hasi zen. Zer egingo zuen? Segitu behar zuen... Florenek esan zion:

–Diru piska bat utzi dinat, hor.

Rosario urdaia frijitzen ari zen. Haren esku gorriak tenedorea zerabilen, azkar, eta olioa zirritaka ari zen, eta larruan zenbait ttantta erantsita gelditzen zitzaion. Zerbait egin behar zuen, orain, bere gizonaren alde. Sutatik piska bat apartatu zen, leihoa irekitzeko. Floren kikildu zen; bere erabakia azpimarratu nahi zuen, detaileak azkendu.

–Edozer nahi badun edo... edo neri bisita egin edo... Agustini esan, horrek jakingo din nere berri.

Rosariok baiezkoa egiteko itzuli zitzaion; minduta zegoen, ez zitzaion hitzik bururatzen, Floren mintza zedin nahiago zuen. Urdaia erreta zegoen, ogi bat erdibitu zuen eta bokadiloa paratu.

–Umea... –esan zion Florenek orduan– ondo erabiliko al dun, umea...?

Ez-axolaz esan zuen, xuabe; baina ez zuen esateagatik esan. Jo egin bait zuen, Rosariok, umea, pare bat egun atzerago; eta ez zen izan aurreneko aldia. Kariño gutxi erakusten zion umeari Rosariok, Florenen iduriz; egunero bete beharreko mila detailetan zakar erabiltzen zuen, eta Florenek ez zuen indarrik izaten, deus esateko, bera kanpoan egoten bait zen, eta Rosariok aldiz...

Florenen hitzak entzun zituen bezala, Rosariok amorrua erraietatik gora oldartzen zitzaiola, nabaritu zuen. Umearekin egunean pare bat minutuz egoten zen gizon harek, zer deretxo zuen...? Zer egin zuen, ba, Florenek, umeari buruz, orain hari hura esateko? Eta antosiñea kafeaz ateratzen ziolarik:

–Horrenbeste maite baduk, eraman ezak –bota zion, suminez.

Florenek agresibitateaz disfrazatu zuen aztoramena, esanez, bakarrik, altu xamar: «Eh?» Baina Rosariok, zutik, gorrotoz eta penaz begiratu zion, sinple, lehor esateko:

–Gu biok ondo moldatuko gaituk.

Kolpea emanda zegoen, eta Florenek ez zuen armarik ez babesik aurkitu. Haustura bat somatu zuen barrenean, eta isildu egin zen. Rosario ere isildu zen, eta gero, Florenek botak janzten zituelarik, komentario arrunt batez tentsioa pixka bat arindu zuen. Floren molesto, baldar sentitu zen orduan. Baina ez zuen joateko ordua atzeratzerik nahi. Atean musu dorpe bat eman zioten elkarri, agur bat esan... Eta ezer entenditzen ez zuen urte t'erdiko neskatxoa besoetan hartuta Rosariok begirada maxkala luzatu zion ataritik. Kanpoko eskailerak larri jeitsi zituen Florenek. Plastikozko poltsa bat eskuan, Lugerra petxuaren kontra...

–Zaindu hadi! –esan zion Rosariok, eutsi ezinik. Floren itzuli zitzaien, amodiozko irribarrea egin eta eskuaz musu bana bidali zien.

Horbelatik bista altxatu zuen eta aurrera begiratu. Haraxeago bideak bitara egiten zuen. Beheko pagoska multzoan barneratuko zen ala gora joko zuen, angula-mangula, seguruago bait zirudien, nahiz eta luzeago? Duda txikia egin zuen; gero, zeruari behako bat emanik, behera sartu zen.

Euriaren arriskua usaindu zuen eta arin zebilen, saltoka, harritik harrira, pagotik pagora. Ezkerreko eskuan, plastikozko poltsak dantza egiten zuen. Lokietan ile nahasi batzuk zeramatzan erantsita. Ezpainetan keinu samina zuen, eta begietan erabakia, sukar amiñi bat, eta beldurra, baten batekin topo egiteko beldurra, baten batek ikusi zezan...

Beheragoko malda goxoko baso usuago bat zeharkatu zuen, eta pago hosto kixkurtuek, eta gaztain txehe ximurrek eta pagaxi azal biribilek estaltzen zuten lurra. Erreka txiki, pausatu bat aurkitu zuen; ahoa freskatu zuen, zurrut bat edan. Aurrera ez zen landarerik ja, mendi maseleko iñarrak baizik, haize legunak apenas iñarrosiak, eta bidea berriz lokaztuta zegoen. Urrutiko mendietan laino tontor artean pinu berde-urdinak antzematen ziren, perfilatuta goian, lainoek urratuta beherago, eta laster gauak denak berdinduko zituen...

Florenen begiek, borda bila, iluna ikertzen zuten. Jendea hurbil bizi zen seinaleak baziren: abereek zapaldutako lohia, bide bazterreko zar-

bak. Haize legunak egur ustelaren usaina zekarren bailaratik.

Petxuan beroa sentitzen zuen, kartutxeraren ondoan. Ziurtasuna eta beldurra eragiten zizkion burdin puxka harek. Goardiekin topatuz gero... Eskuak izerditzen zitzaizkion, posibilitate hartaz, eskuina batipat, tiro egin behar zuena... Baina ez, mendian ez zuten atxemango behinik behin, mendian ondo zebilen, bere terrenoan: begiak argi, sastrakak arakatzen, belarriak erne, edozein hotsak segundu dezima batez geldiarazten zuelarik, eta usmaka, haizeak zekarzkion urrin desberdinek daldar arazten bait zioten... Etengabe atxikitzen zituen detaile berriak, korrika hasi behar izanez gero, nondik barrena jo, adierazten zutenak. Elorrietan izkuta zitekeen, ez bazuten ikusten. Goitik behera ez zegoen joaterik, zulo zikin hartan garbituko zuten. Ezkerreko sasitan berriz nekez segituko zuten, eta bestaldean malda-behera hasten zela zirudien. Ez, mendian ez zuten harrapatuko, baina erne, oso erne ibili beharra zuen, eta gaizki ikusten hasten zen jadanik, trumoi baten hotsa ailegatu zitzaion eta «minutu gutxitara zegok» pentsatu zuen Florenek,

erauntsiagatik. Soro bat ikusi zuen orduan, belaze zabal bat, burdin-sare zahar batez hesituta ardi ale batzuk. Hurbildutakoan umatu berriko ardi mutur-pinto batek hanka tartea eta errapea odoletan zituela ikusi zuen, eta bildotsak titia heltzearren buruaz zunka-zunka amaren hanka tartean bultza egiten zuen. Ardi batzuek begiratu zioten, zuzen, izurik erakutsi gabe. Belazeak, arrats-apalak ilunduta baina, berde-bizi ziren, soro ebaki berriaren antzera. Arbolek berriz, negu kolorea zuten, hostorik ez oraindik, eta umeltasun ustelaren usaina areagotzen ari zen. Martxa bizkortu zuen eta, bidearen goiti-behera koxkor bat gaindituta, han ikusi zituen.

Bi baserri ziren, bidetik ezkerrera biak, berrogeitamarren bat metrotara; bata, txikiagoa, beheraxeago zegoen, soro luze baten aldamenean; bestea, zabala, zaharragoa, goraxeago zegoen, honantzaxeago, belaze batez bestetik berezia, eta haren atzean belar idorra pilatzen zen egurrezko borda bat ikusten zen. Baserri txikiko tximiniatik ke lodi txuria ateratzen zen, bigarrengotik apenas ke-lainosta batzuk, haize freskoak segituan ezabatzen zituenak. Florenek bista zo-

rroztuz etxe bazterrak miatu zituen: ez zirudien kanpoan inor zebilenik. Horretaz ohartu zelarik, irten zenetik lehendabizikoz, nekatuta sentitu zen; ordu dexente egin zuen ibilian, eta orain hanketan iñurria nabaritzen zuen, eta estomagoan hutsa; poltsa estutu zuen, bertan zeraman bokadiloa gogoratuz. Azkeneko aldapan hatsantu zen eta iluntzeko freskuran arnas moltxoak lurrundu egiten zitzaizkion. Etxe haietako batean pasatuko zuen gaua, galerazten ez baldin bazioten. Zegoen zokogunetik prezeski, bide-txidor bat abiatzen zen, artasoroa gainetik inguratzen zuena, eta larraska batzuk gainditu ondoren goiko baserrian amaitzen zen, nonbait. Beste trumoi batek hots egin zuen, askoz hurbilago. Florenek hortzak estutu zituen: bai, gaua hantxe pasatuko zuen eta biharamun goizez gorantza, mugalderantza abiatuko zen.

Lokatza ebitatu nahian, jauzi tipika zebilen. Ez zuen lurrik ikusten, baina harri zurietan zeruko argi-kondarrak isladatzen ziren. Larra batzuk apartatzerakoan arantza batek zauri egin zion ezkerreko besoan. Gero, bekoz beko etxearekin topatu zen. Baserri zapal bat zen, harri zaharra

begi bistan zuena eta lokatza inguru guztian. Txerri batek zer-edo-zer bilatzen zuen, basaputzu batean.

Etxe ondoko simaur pilo handi batetik ke-lurruna airatzen zen, ikuilutik berriz zaldi baten hotsa, eta beste bizi seinalerik –tximiniako ke meheaz aparte– ez zen inondik ageri. Goraxeago, bere ezkerrean, borda ikusi zuen Florenek, hango egur okerrak, hango belar grixak. Bi plantako borda zen hura, eta bertaraino aldapa txiki baina piko batetik gora iristen ahal zen. Hantxe egingo zuela lo, pentsatu zuen, eta pistolaz gogoratu zen, instantean, eta beroa sentitu zuen, aurpegian eta eskuetan. Ixil-ixilik igo zuen aldapa txiki hura. Bordan ardiak bazeudela, nabaritu zuen. Poliki-poliki gerturatu zen...

Sorpresazko, sustozko «otx!» ozen bat aditu zuen, bordaren iluntasunean burua plastiko batez bilduta zeukan aurpegi bat ikustatu baino lehen. Emakume bat zen. Une hartan, tximista batek hautsi zuen zerua, eta harekin kasik batera, trumoia lehertu zen. Begirada urduriaz elkar ezagutzeko aprobetxatu zuten abagadunea. Zaharra izan gabe, aurpegia zimur sakonek marka-

tuta zeukan emakumeak. Trapu ilunez jantzita zegoen, jertse zahar batez, behatz puntak agerian uzten zituzten eskunarruez. Burdinezko ontzi txiki bat zeraman eskuan. Zain bide zegoen, Florenek hitz egin zezan. Florenek esku-lepoaz muturra garbitu zuen, gero esateko:

–Uste dut salbatu naizela...

Izan ere euri tanta lodi batzuk hasi ziren jausten. Emakumeak segundu batez begiratu zion eguraldiari, gero berriz Floreni, begiak zabal-zabalik.

–Zer nahi duzu, hemen?

Ahots latza zuen, eta altu egiten zuen, ia garrasi batean, baina ez beldurrez, naturalitatez. Lagun zahar bati egiten zaion galdera zirudien abantxu.

–Babes bila etorri naiz, erauntsitik ihesi... –baina zaparrada hasi zen, eta Floren urrats bat aurrera emanez emakumearen ondora iritsi zen; emakumeak aldiz borda barrura jo zuen, eta Florenek ardi tartean ikusi zuen bere burua.

–Babes guti izanen duzu hemen –esan zion emakumeak, ironiaz; baina bertan gelditzeko inbitazio bat zen, eta Florenek eskerronez begira-

tu zion, segituan ordea begirada bordaren ixkinetara aldenduz.

–Ez nuke gehiagorik behar –onartu zuen eskaintza.

Emakumeak barre nasaia egin zuen orduan, ardiak, eta Floren, pittin bat asaldatuz.

–Ez al zenuke behar? Ez al zenuke behar? –garrasi egin zuen; orduan ontzi txikia lurrean utzi zuen, pote zahar handi bat jaso zuen, eta bordatik atereaz itoizuratik erortzen hasitako ur xortaren azpian jarri zuen. Gero atzera sartu zen, arin, irribarre zoroaz, borda barnera joan eta belarra biltzeko soka mordoska bat hartu zuen kurtetik, atzera etorri eta ontzi txikia jaso zuen eta berdin umoretsu errepikatu zuen–: Ez al zenuke behar? –Bordatik atera zen berriro eta kanpotik bere ahots latzaz agindu zion–: Etorri zaite!

Floren atera zen, duda-mudatsu; emakumea bordari buelta ematen ari zitzaion. Euri zigorradaren azpian, deus galdetu gabe, pauso azkarrez jarraitu zion. Borda ere aldapan zegoenez, belartegira goikaldeko beste sarrera batez iristen ahal zen. Emakumea kanpoan gelditu zen,

Floren sar zedin. Bere ironia antzeko harekin, hots egin zion:

–Hemen behiñipehin lo eginen duzu... Horra belar idorra! –eta segituan joan behar zuela, keinu egin zuen.

Orduan Florenek «e!» egin zion, eta aurpegia hurbildu. Fijo begiratu zion, harekin fidatzerik ote zuen antzemateko. Emakumearen aurpegi gogorrean titakatutako begi ilunek burla egiten zioten, akaso. Isiltasuna agindu behar ziola, ulertu zuen, eta eskua altxatu zuen, polliki, erdi eske, erdi abisatuz, ezpainetara.

–Ni ez noa inori deus erratera! –esan zion, biolentziaz, baina ez-axolaz ere bai, emakumeak, eta buruan txapel gisa zeraman plastikoari helduz etxe aldera jeitsi zen, korrika.

Floren begira gelditu zitzaion, maldan behera galdu zen arte. Zegoen lekutik, ezin zezakeen baserria ikusi, eta lurra ere, nekez ikusi zezakeen. Neguak larrututako zuhaitz baten adarrak dibujatzen ziren soilik, beltz, zeru ilunaren kontra. Eta euria, ibaika. Zer-nolako bordan zegoen ikusi nahian, atzera begiratu zuen. Belarra bazela, eta leiho zulo bat fondoko paretan, ez zuen

besterik somatu. Poltsikoetan bilatu zuen poxpolorik. Bat piztuta, ezkerraldera, hutsune beltz bat ikusi zuen, han egon behar zuen eskilara, lastoak arditegira botatzeko zuloa; gainerantzeko guztia belarrak estaltzen zuen, belar idorra, baina zapaldua eta erabilia, halaz ere usain gozoa zuena, Florenengan bero intimo bat sorrarazi bait zuen. Bigarren poxpoloaz ganbaraz bestaldeko, konparazio, baserrira jotzen zuen bordaurreko leiho zulora joan zen. Euria latz ari zuen. Momentuz bederen, emakume aurpegi zabal, burlari hura ez zen bera han zen kontuarekin inorengana joango. Floren lasaitu zen eta, egarritu bait zen, ate ondoko egur txut batetik labantzen zen ur-xirripa bati musu eman zion, eta xurrupaka edan... Gero leiho ondora itzuli zen, eta neke-gozamenezko zizpiru batez belarretan eseri zen; haren eskuek poltsan bilatu zuten, eta bokadiloa estaltzen zuen periodikua zabalduz, ogi guria ukitu zuen; urdaiaren usaina... Mokadu egin zuen, erabat gozatuz, eta minututik minutura ogiari horzka eginez segitu zuen, eta bukatu zuenean eskuak usaindu zituen eta mihiaz, presio eginez, hortz tarteko honda-

rrak atera zituen, eta haiek ere zehatu, eta irentsi zituen. Korrok egin zuen. Gero Rosariok poltsan utzitako sagar azal-zimurra atera zuen eta, nabalaz puxketak eginda, gustora jan zuen, halako pentsamentu luzerik erabili gabe. Gero berriz, belarrak lo egiteko moduan paratu zituen, zamarraren azpian poltsan zekarren beste jertsea jantzi zuen, pistolaren kargadorea konprobatu, eta kartutxeran sartuta ondo-ondoan utzi zuen, esku batez ukiturik burdina. Ez zuen pentsatu denbora luzeaz. Hurrengo goizeko bidearen arriskuak gogoratuz loak hartu zuen.

Iluna zegoen, esnatu zenean; ordea, laster bide zetorren eguna, oilarra kantatzen hasi bait zen, eta giroa dexente hoztu zuen. Artean ateri zegoen, baina gau guztiz aritu zen gogotik; ttantta berankor batzuk besterik ez ziren jausten ja, hosto-teiletatik. Floren kukubilduta zegoen, burua ezik goitik behera belar sorta arinez erdi estalita, kabi batean irudi. Gorputzaren pisuak ezker besoa zurrundu zion, orain handik atera

zuen eta iluntasuna miatu zuen, estrainotasunez.

Burua plastiko batez janzten zuen emakumeaz akordatu zen, haren begi burlariez, eta beldur izan zen, atertu zuela aprobetxatuz etxetik irtengo ote zen eta behar ez zenen bati... Ez zitzaion pertsona gaiztoa iruditu, baina bai malezia zeukana, umore biolentoa eta bitalidade arraro bat; badaezpadan erne ibiltzea zuen... Dena den argitzen hasi eta segituan gora joko zuen, egun beteko bidea bait zuen mugaraino. Karabinerorik asko ibiliko ote zen mendi gain haietan? Azken denboretan bijilantzia zerbait arindu zutela, horra Maximok komentatu ziona. Arratsaldean... ez zen halere egokiena, batez ere hango bide-zidorrak erdipurdi ezagutuz gero. Begibistegian gelditzen zen lepotik ez, handik behera bestetan ikusi zituen baina inoiz ibili ez zituen baso txikietan barrena pasatuko zen, baso zikin lapartsuak zirela bazekien baina, haietan behinik behin nekez sartuko ziren karabineroak eta aise trankilago ibiliko zen.

Hotz egiten zuen, eta Floren are kukulduagotu zen, zirrara batekin. Belar izpi batek dantza

egiten zuen, bere hatsaldi bakoitzean. Bere amonaren baserriko usain bera zen: usain pisua, sendoa, neguak moteldu, histu duen belarraren usaina; baina gutxika gutxika kanpoko egur bustiaren usaina nagusitzen zen orain, altxirriarenaz nahastuta. Usain zaharrak, lurraren usainak, Florenen barrenera sartu eta instintoak ernarazten zizkiotenak. Jeiki beharko zen, bai, pentsatu zuen, eta brinko batez eserita gelditu zen, eta sortaldeko mendi eta lainoen artetik argi xirrinta zabala filtratzen hasten zen instantean.

Giro hotza zegoen, negu-giro oraindik, eta ahotik lurrun xuri mehea irteten zitzaion. Jertse batez eranzten zelarik, dorpe sentitu zen, astun eta zakildua. Buruan hazka egin zuen, besoetan ere bai, xomorro petralen bat handik barrena ibili zitzaiola somatuz, eta eskuak igurtzi zituen, kartutxera petxuaren bueltan jarri baino lehen. Eskuak usaindu zituen, eta bezperako urdai frijitua gogoratu zitzaion.

Bordatik aterata, gauez ibilitako aldapaz jeitsi zen: urak harri porroskak, egur puxketa ustelak bertaratu zituen, eta lokatza sortarazi zuen, buztin gorrizko lurrean. Ilun zegoen, baina ingu-

rumariak –harrizko hesia parean, handik gorako malda malkarra, baserrirako basa bidea goitik behera– antzematen ahal ziren ederki. Florenek eztula egin zuen, listukazoa bota, beheraxeago jeitsi eta borda ondoko aska luze bateko uraz aurpegia eta besondoak busti zituen. Erantzitako jertseaz lehortu zen, eta ez zen zeharo esnatuta sentitu, baina baldarkeria zerbait astinduta bai. Segituan abiatuko zen... ez baldin bazuen euriak galerazten oraintxe, atzera nahi zuela ematen bait zuen, zeru nahasian laino beltzak elkarren kontra oldartzen hasi bait ziren.

Baserrira jeisten ari zela, bezperako emakumea ikusi zuen, lanean; txerritegia garbitzen ari zen, aitzur luze buru-zapal batez lastoz nahasiriko simaur horailak kanpora pilatzen. Hanka-beso sendoak zeuzkan emakumeak, eta koloredun zapi batez janzten zuen burua orain. Floren gibeletik hurbildu zitzaion eta eztarria garbitu zuelarik hura itzuli zitzaion.

–Egun on! –esan zuen Florenek, behar baino altuago.

–Bai! –erantzun zion emakumeak, eta bere lanean jarraitu zuen, lehen baino arintxeago, se-

gituan ordea zera eransteko–: Egin duzu lo batere! –eta bere begi harro oker samarrez begira gelditu zitzaion, esku batez aitzurra eta besteaz bere gerriari eusten ziolarik.

–Egin dugu bai! –eta hitz haien familiartasunak apur bat harritu zuen; baina zerri simaurraren usaina ere oso ezaguna zitzaion.

–Orain abiatu behar duzu laster! –galdera bat zen, modu biolentoan eginda.

–Bai noski! –eta begi berdeak zeruraino altxatuz–. Bota egin behar du baina!

–Botako ez du ba! –atzera ironiak dirdir egin zuen emakumearen begi grisetan–. Zaparrada itsua heldu da! Lasterrean joan beharko duzu, joko ez badizu, tximistak!

–Tximistak! –esan zuen dibertituta Florenek–. Ez naiz, ba, tximistazalea!

–Zerbait gosalduta joanen zara goiti –erabaki zuen emakumeak, eta aitzurra txerritegiko atearen kontra lagata baserrira sartu zen, «etorri zaite» eta Florenek ulertu ez zion beste zer-edozer marmarikatuz.

Floren ezpaian gelditu zen, emakumea segitzeko imintzioa eginez baina ezetz, segituan

zihoala esateko gogoz. Izan ere, harek «goiti» joan behar zuela interpretatzeak kexkatu zuen, nahiz ez zion azento makurrik somatu. Kanpoko zeretan erreparatu zuen: harria, lohia, egurki boteak... Zerria –etxeko zerri bakarra?– zaldi-ongarri metaren kontra igurzten zuen bere bizkarra, eta lepoa lumatutako hiru-lau oilo mehe bihi-lapurka zebiltzan, keinuketa ergelaz. Florenek simaur umelaren usaina barneratu zuen eta, lokatza zapalduz, burdinaren pisua nabaritu zuen bularrean, ataritik barrura begiratu baino lehen.

Eskaratza txikia zuen etxeak, zorurik gabeko lurra, zume-makilak eta belarretarako sokak pilatuta batean, txirrikak eta txirrindolak bestean, eta kapazo zahar bat eta sarde luze bat egur asto baten gainean. Eskuineko atea zabalik zegoenez, zeharka sukaldea ikus zitekeen, eta han zebilen emakumea, egin beharrekoak egiten. Florenek beste zalantza txiki bat izan zuen eta gero sartu egin zen.

Sukaldean ez zen egunaren argitasunik sartzen ia, ez zen oso zabala, lau bat sila zituen, mahai kraskatu bat eta su bajua, fondoan. Kristoren irudi txiki batek presiditzen zuen, ezkerre-

ra, eta ontziteriak betetzen zuen eskuinaldea, traste batzuk lurrean, beste batzuk paretatik zintzilik. Mahai ondoko sila batean, bista apenas altxatu zuen gizon zahar-zahar bat jarrita zegoen, txapelaz, jertseaz, abarkaz jantzita, katilu bat eskutartean. Florenen saludoari begien mugimendu izuti batez erantzun zion harek.

–Jarri! Jarri zaite hor! –agindu zion emakumeak, seguru aski aita izango zuenaren aurrean ahotsa piska bat makestuta, eta segidan atea itxi zuen, ez zitezen atera kea eta beroa.

Ez zuen beste deus esan, eta Florenek ere ez, esnea taloarekin jaten zuen bitartean. Gero giroa pizuegia gertatu zitzaion, eta eltzerako patata koxkak zatitzen ari zen emakumeari –gizon zahar harek ez bait zirudien, solas egiteko oso interesatua– esan zion, nolabaiteko umoreaz:

–Lanerako giro txarra, orain!

Emakumeari ironia apur bat itzali zitzaion, esan zuelarik:

–Orain ongi dago: euria behar du, orain! –Floren ohartu zen, eztarrian trabaren bat zuelako mintzatzen zela oihuka. Begirada bizia zeukan emakumeak, sukartuta bezala, eta garai bateko

sentsualitatearen arrastoa gorde zuen ezpainetan; gaztetan emakume beroa, desiragarria izango zen agian. Florenek erantzun zuen, umorez:

–Itoko zarete!

Emakumeak, berriz, ura nahikoa ikusi duenaren gisa:

–Bai! Gaixoa! –eta beste hitz parrasta bat esan zuen, Florenek entenditu ez zuena.

Orduan berean kakagalea sentitu zuen Florenek, eta zutitu egin zen, kanporako.

Despeditu zuten; gizon zaharrak hutsik zegoen katilua utzi zuen eta arto ale batzuk zerabiltzan eskuan; aho keinu bat ere egin zuen, zerbait esan nahi izan balu bezala. Emakumeak irribarre egin zion Floreni eta sukaldeko atetik bota zion ozarki:

–Nahi duzularik etorri!

Laguntasun seinale harek harritu zuen Floren.

–Bai! –erantzun zuen, aztoratu xamarra.

Eskuinaldera jo zuen, gurdi-bidetik gorasko, iratze zaharrak ebaki gabe makurtzen eta zimeltzen ziren aldapa batera. Haietatik batzuk bildu zituen, ipurdirako.

Pikotxean jarri zelarik, agujetak nabaritu zituen izterretan. Pistola sorbaldatik zintzilik zeukan, eta lehenbailehen bestaldera iritsi behar zuela, gogoratu zitzaion. Arrotz sentitu zen, mendi paraje hartan, bi baserri haien ondoan, bere etxetik urruti eta aurrerantzean bere bizitzaz zer egin behar zuen apenas zekiela. Susmatzen bait zuen, arma motz hura ez zuela erraz uzterik izango, eta susmatzen zuen, nekez ikusiko zituela denbora luzean Rosario eta Itziar. Itzi hagitz kanbiatuko zen, eta eguneroko lokarria etenik, neskatilarentzat ez zen beharbada ja beste inoiz lehengo aita bera izango, aldian behinka ikusten diren aita horietakoa izango zen...

Beste txori txikiagoen kantuen gainetik, birigarro batena aditu zuen. Sasi batzutatik zetorren, garbi, baina urduri xamar, euria igarriko bailuen. Eta, Florenek pentsamentu hura izan eta batean, ipurdia garbitzen ari zelarik, erori egin zitzaion lehenbiziko tanta, gero beste bat... Aski iratzerik ez zuela-ta, belar eskukada batez burutu zuen garbiketa. Gero zutitu zen...

Neska bat ikusi zuen orduan, berari begira zegoela. Beheko baserriaren alorretan zegoen, aitzur bat eskuan zuela. Jertse zuriska batez jantzita zegoen, eta gona urdin luze batez. Urruntxo bait zen, Floren ez zen harritu, baizik eta fijo begiratu zion, gerrikoa lotu eta botoiak estekatzen zituela. Neskak eutsi zion, instant batez, begiradari, segidan bista jeitsi eta lanean segitzeko. Neska gaztea zen, mehatxa, eta erregulartasunez makurtzen zuen gerria lurraren gainean. Floren begira zuela, ordea, euriak fuerteago jo zuen, eta neskak utzi egin zuen aitzurketa eta korrika txikian, zalukara –hegaldaka, pentsatu zuen Florenek– heldu zen baserriraino.

Konturatu orduko busti-pelakatuta zeukan Florenek ilea. Gurdi-bidera jeitsi eta azkar bueltatu zen baserrira. Egurra pilatzen zen teilape txikian gelditu zen, burua astindu zuen eta goitik behera hotzikara batek iñarrosi zuen.

Ez zegoen hotzak, baizik eta han segitu behar izateko beldurrez. Emakume ironikoari plastiko bat eskatzea bururatu zitzaion, aurrera egiteko bederen, baina hamar bat ordutako bidea zeukan gutxienez, kalkulatu zuen, eta

mendi alde hura ez bait zuen ongi ezagutzen, itxoitea erabaki zuen: ordubete barru abiatuko zen, zerua gainean erori behar baldin bazitzaion ere. Aterpeko zotzabar haiek, bera inguratzen zuten itaizurak, maldan beherako turrustak, pare-pareko haritzaren negar-jarioa, haren azpiko larrak eta aingeru-belarrak, denak akzidenteak ziren, laster bere bizitzan oroitgarri soil gertatuko zirenak, lehenbailehen atzera utzi beharrak, bere baitan inpresio ubel, triste bat utz zezaten baino lehen.

Gero ikusi zuen, etxerako bidean, poliki-txamarka, zaldi gurdia zetorrela, gizon handi batek gidatuta. Kamixeta eta alkandora xinpleaz jantzita zetorren, galtza beltzez, fajaz, txapelaz eta abarkez.Animaliari aira! aira! egiten zion apalki, eta gehixeago hurbildu zenean, ahoa guztiz deformatuta zuela ikusi zuen Florenek, batere hortzik gabe eta hoiak kanpora aterata. Marroiska koloreko aurpegi zuntzun higuingarria zuen, eta goitik behera bustita zetorren. Abarkak berriz, arrastaka zerabilzkien, lurretik apenas altxatu gabe, lasai asko lokatza zanpatuz eta bilduz. Florenek utzi zuen, lehenbizi harek agurtu zezan.

–Aterpean ederki! –esan zion, Florenengandik metro batzutara zaldia geldiaraziz eta hoiak erabat erakutsiz; haren doinu lagun-itxurakoaz Florenek harek gaua bordan pasatu zuela bazekiela ulertu zuen.

–Zer egingo duzu? –erantzun zuen Florenek, buruz buru begiratuz hari–. Egonean!

–Ederki! –esan zuen, berriro, gizonak, alde guztietatik ura zeriola erreparatu gabe. Florenek besterik esan zezan, zain gelditu zen, Florenek ordea uste baino gehixeago eutsi zion isiltasunari, eta orduan gizonak, lehengo doinu beraz, galdeginez bezala baina baiezko erantzuna espero duenaren kutsuaz, erantsi zuen–: Emaztea etxean utzia!

Floren harritu zen, baina gizonak pauso bat aurrera jo zuen, lasaigarri.

–Horixe! –erantzun zuen Florenek–. Bustitzeko ere...!

Gizonak ez zion hariari jarraitu. Berea esan nahi zuen eta:

–Ongi egin duzu! –hitzak hoietan trabatzen zitzaizkion–. Emakumea berex behar bait da! –zaldi tximur begi-estaliari xei! hots egin zion

eta, Florenentzat, erantsi zuen, apalago–: Bueno...!

Etsipenez despeditu zen eta, Florenek haren mina sentitu zuen. Iratze-zama zeraman gurdiak, eta egurrezko gurpilek, lokatzean xirrixarra ibili arren, ez zuten kirrinik egiten. Florenek pentsatu zuen, haren hizkera eta izakeragatik, gizon handi hura emakume begi-biziaren senarra ez, baina anaia izango zela, etxeko neska eta mutil zaharrak seguruenera, ez bait zen bestalde ume edo gazte jendearen arrastorik ikusten. Bizitza lotuak, pentsatu zuen Florenek, jaiotzetik hiltzeraino... Berarena ere aski lotua zen, Rosariorekin, baina ezkondu aurretik urte ederrak pasatu zituen, baserritar zaharkitu eta nahitaez gogoarindu samar haiek ez bezala; zuela... bost bat urte, barre egiten zuen berak, lagunek noizpait uztartu beharko zuela, esaten edo sujeritzen ziotenean. Gero Rosariorekin umea egin zuen eta beste etapa bat hasi zuten. Rosariorekin ez zen gaizki eramaten, noski oheaz aparte gutxitan egoten ziren elkarrekin, eta Rosariok batzutan zeharkako hitzez halako presioa egin ohi zion, etxean denbora gehiagoz egon zedin eta biak

paseatzera atera zitezen, baina berak, Florenek, ez zuen hartarako gogorik izaten, ez baldin bazen jai eguerditan, herrian ohitura zen bezala matrimonio guztiak beren seme-alabekin orduan kaleratzen bait ziren. Nola moldatuko zen, Rosario, orain? Herrian lagun gutxi zuen –ez bait zen bertakoa, urruntxo zegoen beste herri batekoa baizik–, baina hura ez zen harentzat halako problema izango, aspaldian beste emakume gazte batzurekin konfiantza handiak egin bait zituen, umeak elkarrekin ibiltzen zituztela... Eta berena, bere neskatila, Itzi: ongi erabiliko al zuen... Bezperako eszenaren irudiak gogoratu zitzaizkion: bere galdera traketsa, Rosarioren erantzun zakarra, despedida mingotsa, azkeneko momentuan begirada soil batez eztitua... Haatik –ez zuen zergatik pentsatu nahi–, gauza haietaz, Rosarioz ez oroitzea nahiago zuen orain. Bista tinkatuta zeukan euriaz bestaldeko puntu abstraktutik alderatu zuen eta, berriz ere, kaka eginean bezala, arroztasuna sentitu zuen, eta haren kontra borrokatu beharrez, baserri inguruko paraje uspel haiek begi bistatik galtzea eta mendian gora,

ezagutzen ez zuen mugaz-bestaldera iristea desiatu zuen...

Euria lazoago ari zuen eta, Florenek zamarra ondo itxi zuen, lugerra behinik behin busti ez zekion, eta egur artetik atera zen, martxa egiteko. Alabaina, zume hautsiaren hotsa aditu zuen atzean eta, baserri kantoitik berari begira, atzera lehengo emakumea ikusi zuen, kapa beltz xaretu batez jantzia eta saski bat eskuan zuela, norabait joateko plantan.

–Oraindik hemen al zaude! –esan zion, bere ahots zolia behartuz, eta oinetako zaharraren lokarria estekatzeko makurtu zen.

–Ez denbora luzeko –erantzun zuen Florenek–. Banihoan oraintxe.

–Etorri! –agindu zion emakumeak–. Hartu plastiko zahar hau! –eta ate ondoan, lurrean zegoen txanodun plastiko txiki txabal bat, burua eta sorbaldak babes zitzakeena luzatu zion.

Floren joan zitzaion, eta plastikoa eskuratuz:

–Ez al duzue behar? –galdetu zuen, herabetuxe.

–Ez da horren beharrik deusetarako hemen! –garrasi egin zuen emakumeak; ezpainetan

hauts zuri baten –botika baten?– hondarrak zituen.

–Eraman, eraman –oiak handitutako gizona agertu zen atarian.

Florenek, hura janzten zuelarik, esan zion emakumeari:

–Zuk ere, hanka? –eta emakumearen ironiazko doinua isladatzen zen galdera hartan.

Emakumeak begirada apaldu zuen, lepoaren bueltan kapa soka batez estutuz.

–Beharko! –esan zuen, aitaren aurrean bezala beste gizon haren aurrean tonoa makestu gabe–. Biziko bagara!

Orduan Florenek, plastikoa eskertuz hitz atsegin bat esatearren:

–Honekin seguru noa –esan zuen.

–Seguru zoaz? –esan zion gizonak, eta istaño batzuez suspensean utzi zuen galdera, ondoren esateko–: Bart arratsean hortik goiti ibili ziren karabineroak...

Ez zen informazio hutsa, ohartu zen Floren, ze gizonak bere begi lanbrotsuez fijo begiratzen bait zion, jakinminez, aho haragitsua erdi zabalik.

–Nondik nora? –galdetu zuen Florenek idorki, ordurarte erakutsi ez zuen sotiltasunez. Baina andreak tentua galerazi zion, gizona gutxietsiz oihu egin bait zuen:

–Horri ez kasurik egin...! –eta Florenek bi haiek anai-arrebak zirela konfirmatu zuen. Tontotzat jotzen zuen arrebak anaia, aldiz ez zirudien seko tonto zegoenik hura; ahulxea, beharbada, bai, batere alteratu gabe erantzun bait zion Floreni, eskua altxatuz edonora seinalatzen zuela:

–Hortik goiti... hortik goiti...

Baina zalantza izpi bat ageri zen haren begietan; andrea saskia zeramala etxera sartu zen. Floreni ez zitzaion atsegin sortutako giroa, eta solasa hautsi zuen:

–Ibiltzea badute... horretarako pagatzen diete-ta!

«Bueno... adio», esan zuen, eta gizonak isilantza «bai» erantzun zion; nahastuta gelditzen zela konturatu zen Floren, ez zekien zergatik ordea: andreak erabili zuen moduagatik soilik, ala...? Andrearen jokaera harrigarriagoa zen:

zertara eten zuen gizonaren hizketa...? Zertara ote zihoan etxetik orain...?

Hala-hala urrundu zen Floren baserritik, euriaren pean, gurdi-bidean gora, poliki. Behin itzuli zen, bera egondako egur-txokoan bi oilo lurrari mokoka ikusteko heinean. Tximiniak ke mehatza zerion eta inguruko lur lokaztuak eta egur hezetsuak eta etxeko paret beztu-ñabarrak kolore gorrikara batean konfunditzen ziren.

Ordu erdiska batez jarraitu zion gurdi-bideari, harik eta, hura gurdietarako ere zail samarra jartzen hasten zen ingurugunean, gorantzako bide-txidor bati lotu zitzaion arte. Langarra ari zuen, baina Floren ez zebilen erosoago: batetik, lurragatik, bidea nazkagarri irristakorra bait zegoen, eta bestetik, hanketako neke eta gorputz guztiaren beroagatik, maldan gora noski areagotzen zitzaiona; halako moduan berotu eta izerditu zen, ze aurpegian eta bizkarrean mila jostorratzez xixtakatzen ziotela sentitzen bait zuen eta, bustiko bazen ere, baserritarrak emandako plastikoa kendu zuen, eta bildu, eta zamarra pixka bat laxatu zuen, berehalaxe arinduaz batera freskoa eta atsedena nabarituz. Hiru bat urte

lehenago, hainbatez bizkorrago ibiliko zen, pentsatu zuen, handik honontza berriz, kaka pilo ederrak sartu zituen gorputzean, eta mendian edo futbolean ordea, noizdanik ez zen aritu, egun beteko ibilaldi batean, edo jai goizeko partidu erdi batez sikiera, fundamento piska batekin alegia? Denboraren zera txikiak ere baziren noski, xurikatzen hasitako ileak, bera baino gazteagoko mutilek gaitzesten zituzten zola lodiko botak, itxuraz inor konturatzen ez baldin bazen ere berak bisaian geroz eta sakonago somatzen zituen ximurrak, eta ibilkera, batez ere hantxe, mendian, astuna, pauso bakoitza nekebide bait zen, eta beste detaileak, keinuak, umorea, gauzak...

Gero pentsamentua arestian utzitako baserrira itzuli zitzaion eta, muino harritsu batera ailegatu bait zen, atzera begiratu zuen, handik ikusten ote zenetz; hostogabeturiko baina adarraje marduleko gaztain eta ametzek, ordea, parte hartako ikustapena galerazten zioten. Orain ateri zen, baina haizeak ttantta erratuak inondik inora erabiltzen zituen; Florenek burua, eskuak eta izterrak blai eginda zeuzkan, bere zamarrak

aldiz, buru-plastikoari esker, umedadeari ondo eutsi zion.

Baserritar alu haiek, ez al ziren bera han izan zela kontuarekin inorengana joango? Dena den gizonak esan zuenak, karabineroak handik gertu ibili zirena, egiantz osoa zuen, horregatik berriz ere, kontuz kontuz, zuhaitz tarteak eta mendi bizkarrak korritu zituen bistarekin, eta ez zuen, laino xirxilen ihesaz aparte, beste ezeren mugimendurik nabaritu. Bapatean, barru gordeleku misteriotsu batetik irtenda, sentipen arraro batek harrapatu zuen, mendi zabal hartan bakarrik sentitu bait zen, eta txiki, oso txikia bailitzan, eta bestalderako bidea luze, oso luzea, sekula bukatu ezinezkoa. Parean zituen ota-txarak amets txar batetik aterata ziruditen, usu, gaizto, itxuragabeko. Estu eta larri sentitu zen Floren, txorabiaturik, eta puxka batean deskantsatzekotan eseri zen, haizeaz eta inoren begiradaz beste haitz handiago batez babesturiko eta liken zurioriz tindaturiko arroka batean. Zamarra askatu zuen, eta esku urduriaz pistola atera zuen. Eskuhotzak zituen, eta burdina orain bero sentitzen zuen, lagun, nahiz arriskugarria... Kargado-

rea eta segurua konprobatu zituen, norbaitek –lagunen batek– ipurdian eginiko saki ttikiari erreparatu zion, eta eskuaren ahurraz kañoia laztandu zuen, pittin bat lasaixeago. Begirada apartatu zuen, ezpainetan keinu mikatza zuela, eta inguruko landareetan fijatu zen, distraituta aurrena, geroz eta arreta gehiagoz: ondo-ondo-an pasmo-belar mulu txiki bat zeukan, bere mordoskako hosto berde biziez; arrokan, kapa xahar idorren gain, goroldio berriaren xango luxeak ernatzen ari ziren erruz, eta arrakaletatik xardinbelar horiek beren gorputz zaluak agertzen zituzten; haruntzago, ernamintzen hasitako iratze laburrak, beren biribildutako zurtoin samurrez; eta, zuhaitzen azpian, lapatz landare bat, bere hosto franko zabalez, udara bitartean fruiturik gabe...

Ezarian ezarian bere onera etorri zen, pistola jaso eta zutitu zen, eta berriz martxan hasi zelarik askoz bizkorrago zegoen, bistaz zorrotzago ere bai, xehetasunak hobekiago bereziz... Aurrera begiratu zuen –malda ezti batean zen orain, zenbait ote txaparrez koloretua– eta etorkizuna

argiago azaldu zitzaion, zabalik, posibilitateez eta zereginez betea...

Bapatean, Florenen ikara, baten batek atzetik eta bajutik «eh!» hots egin zion. Instant batez planto gelditu zen, eta gogotik zeuzkan aukera apurrak pasatu zitzaizkion belozidadean; ihes egin ezinean aurkitu zen ordea, eta pistola ateratzeko ez-gauza; hartaz, polliki, beldurrez, itzuli egin zen... Hots egindako harek esaten zuen artean:

–Lasai, eh, lasai!

Gazte argal bat zen, zurbil samarra, biboteduna, txapeletik botetaraino artzain baten tankeran jantzia eta eskuan beste armarik ez, baina makil bat zerabilena. Begi gozoez begiratzen zion, irribarrezka; grazia egiten zioten nonbait, Florenen jarrerak, eta aurpegiak.

–Goitti-goitti, polliki-polliki...! –esan zion, ez batere iseka doinurik gabe. Florenek, nahiz eta bisaia zuriska zeukan, hizkeragatik artzaina izango zela, atera zuen, eta behar gisa erantzun zuen:

–Ailegatuko ote garen edo...

Florenek orduan eskuak ikusi zizkion; ez, ez zitekeen artzaina; baina laguna zirudien.

–Hor barna ez haiz ba ailegatuko aisa –esan zion–, leku txarrera sartu nahi ez baldin baduk behintzat.

Begi-kliskatu gabe begiratu zion Florenek.

–Gaizki al noa, ba?

Gazteak lepo bat seinalatu zion.

–Leku txarra duk hori –eta Florenek ez bait zuen ezer esaten, beheraxeagoko mendi bizkarra erakutsi zion–: Nik hire lekuan, hor barna joko nikek; horrek gero goiti egiten dik, eta aisa pasatzen ahal duk handik! beldurrik gabe gainera.

–Baia! –enfrentatu zen, piska bat, Floren.

–Nahi dukena egin ezak –esan zuen gazteak.

Adiskide doinuaz esan zuen azkeneko hori, eta Florenek mutilak konfiantza sortarazten ziola, nabaritu zuen. Beren begiek –begi argiak, Florenenak, begi ilunak, gazte harenak– topo egin zuten, eta instant bateko zirrara somatu zuen Florenek. Bai, beretarra zuen. Gazte haren espresio dezidituak erakartzen zuen, harek berak ez zekien zerbait bazekikeen, eta horren berri izateko desioa sentitu zuen. Horregatik,

mutilak gazta puska bat elkarrekin partitzera gonbite egin ziolarik, Florenek jarraitu egin zion, pago txiki errotsuz osaturiko basoskan barrena. Pago haiek, beren abarrik apal-mardulenetan, lehengo udazkenean erori ez ziren hosto kixkur aleak luzitzen zituzten oraindik; beren ipurdi bihurrietatik alderdi denetara, erro zailak hedarazten zituzten, inguru-minguruko harri mokorrekin jolas egiten zutenak. Zuhaitz haiek bezalaxe, Floren eta mutil biboteduna ere bustita zeuden, azalez, baina barrenak bero zeuzkaten, tentsioan, luze ibiltzeko eta noiznahi salto egiteko gertu. Floren unaturik zegoen, betileak erditxita, betartea eta ezpainak oker-beztuta; hanketatik buru-muinetaraino ordea, odolaren oldar bizigarria somatzen zuen, eta ondo sentitzen zen lagun berriaren ondoan. Lagun hura gorpuzkeraz bera baino txikixeagoa zen, eta mendian denbora franko egin duenaren ibilera sendoa eta lasaia zeukan. Galtza eta zamarra beltzak zeramatzan soineko, eta alkandora zuri apal eta xaretua. Pagadi trinkoaren erdian, harri banatan jarrita, gazteak zakutto batetik gazta eta ogia atera zituen, eta nork bere nabalaz ekin zioten lanari, gosez

eta isilik. «Gazta ederra duk», komentatu zuen soilik Florenek, eta besteak baiezkoa egin zuen, baina beste zerbaitetan ari zen pentsatzen... «Nondik heldu haiz?», galdegin zion, geroxeago, tupustean, Floreni, eta Florenek «Andoaindik» esan zion, eta besteak herriaz galdera batzuk egin zizkion; azkeneko berriak jakin nahi zituen, parte hura zertan zen orain... Gero, ustekabean, Florenek ez bait zion galdetu nahi, bere berri eman zuen:

–Ni Frantziatik heldu nauk. Ez zegok giro hor.

Ihesi joandakoak kanpamentuetan pilatzen ari zirela, esan zion. Desorganizazio handia zegoela, gizonezko asko alperrik galtzen ari zirela eta frantsesek beren mugimendu guztiak kontrolatzen zituztela.

–Barruan saiatu behar duk orain... –esan zuen, zintzo, ezpainak apenas berezi gabe, hortz maketsak izkutatuz. Haren aurpegian nekea ikusten zen, begi-zulo ubelak, aspaldian lo gutxi egin duenaren kolore lizuna; baina eskuetan eta mintzatzeko moduan, bizia antzematen zitzaion, hitz egin ahala artegatasuna, eta begi bakoitzean argi printza bat, ilusio, erabaki, xede bat

gordetzen zuena. Frantsesen estiloko mustatxa zeukan eta txapelatik behera, patila gisa ageri zitzaion ilea oso beltza zuen–... Oso erreta egon ezik... –egiak esaten ari zen, pentsatu zuen Florenek, eta aldian behin baiezkoa egiten zion buruarekin, eta marmarka. Gazte zurikara hitz gutxiz espresatzen zen, baina esanahiez kargatutako hitz egokiak erabiltzen zituen, eta sentitu egiten zuen esaten ari zena, eta hura Florenek bere arretaz eskertzen zion, zeren indarra kutsatzen bait zion, kemena...

Gero hura isildu zen, eta Florenek adiskideki begiratu zion, zer esan ez zekiela, harritu egin bait zuten gazte haren bizitasunak eta sinzeridadeak. Bere gazta puska jan zuen, eta besteak berea buka zezan itxoin zuen, esateko:

–Dios! Zahatoa ahaztu zaidak!

–Non daukak burua! –esan zion, umoretsu, besteak, eta Florenek atzera:

–Ez zekiat ba, motel...!

Barre egin zuten. Eguna argiago zegoen, ikusi zuen Florenek, inguruko pagosketatik ur ttanttek erortzen segitzen bazuten ere. Jeiki

nahia sentitu zuen, baina bestea aurreratu zitzaion:

–Bueno, segitu egin beharko diagu edo...

–Bai...

–Esan diat ba, nondik joan behar duken –esan zion Floreni lagunak, biak zutitu zirela; eta konplizidadezko beste keinu batez erantsi zuen–: Goian belatxingak zebiltzek...

Agurtu baino lehen, honela esan zuen:

–Martin deitzen zidatek. Eta hiri?

–Neri...? –Floren harritu zen, baina segidan esan zion–: Floren... –eta bestea bere benetako izena zuela konturatzen zela, ohartu zen.

Elkarri adio esan ziotelarik, pauso geldika hasi zen Floren maldan behera.

Gazte haren hitzen argitasunak inpresionatuta lagatu zuen. Iparraldeko situazioak zer-pentsaturik ematen zion. Han gauzak ez zebiltzan ondo, nonbait, Martinek hango gorabeherak poliki ezagutzen zituela agiri zen eta nahasmen hartan zer egin zezakeen...? Ez ote zuen hobeto izango, harek aipatu bezala, gelditu, eta beste era batera segi, barruan? Azken batean, bera eroriko balitz ere, aparatoak berdin-berdin segi

zezakeen; eta bestalde, eduki, ezer gutxi zeukan: Agustinek berak adierazi zion, gauza zaharrak zirela, txakurrek edonoiz gogora zitzaketenak noski, baina deus berririk ez zekiteken, areago, oso posible zen bere bila ez joatea inoiz...

Laino artetik garbigune batzuk ikusten ziren, eta urrutiko haitzak islara nabarmentzen ziren, zeru grisaren kontra. Ordu erdiko bidea egin zuen, aurrena beherantza, gero zeharka zeharka, bide zokogunetsu batean. Ez zuen inor ikusi, ez zuen lurrean inor pasatu-berriren seinalerik antzeman. Gero, bizkarrondo batean, mendi babesean, errekatik gertu, borda bat azaldu zitzaion, iluna, zaharra, baina teilatua ongi paratua zuena eta bazterrak txukun. Ardi-ongarri zaharraren usaina zerion, eta lurrean agotz berria, idorra barreiatu zuten.

Urruneko paraje hartara, mendiaz beste ez bait zen deus ikusten handik, zein iritsi ote zen borda haren egitera...? Eta bista, akiturik, atariko egur zakarretatik harri tartean sarri sortzen zen goroldio ilun, bigunerantz irristatu zitzaion; harri lakarretan bizitzea aukeratzen zuten, bai, batzuek, landareak bezala, eta zelai erosoetan,

beste batzuek, eta bide bazterretan, edo zuhaitzetatik trepaka...

Leihoska batetik sartu zen, orduan, eguzki errainu bat; agotza piztu zuelarik, segituan berotu zuen giroa. Hala sentitu zuen Florenek, bordan sarturik eskua karratu hori hartarantza luzatu bait zuen, eta ondoren, atseginez, harrituta, txit gustora eseri zen, epeltasunaren zirrara nabarituz. Eguzkiari so, makurturik lokartu zen.

Gizon bat torturatzen ari ziren. Galtzontziloak jeisteko, esaten zioten, eta harek ezetz, orduan konpuerta bat ireki eta uretara jauziarazten zuten. Zine bat zen, problema zen Floren ikusle bakarra zela eta salarik ez zegoela, dena beragandik hiru-lau metrotara gertatzen ari zela. Torturatzaileek Floren harrapatu nahi zuten, baina Florenek aldegiten zuen. Hirian ez zuen inor ezagutzen, eta gainera tipo baten direkzioa apuntatua zeraman papertxoa galdu egin zitzaion. Ofizina asko zegoen, dendak eta leku kuriosoak eta futbol zelai bat. Futbol zelai hartan neska gazte faxistak entrenatzen ari ziren, gogor hitz egiten

zuten eta armak eta keinu biolentoak erabiltzen zituzten. Floren larri zebilen, iheslari bakarra bait zen eta kaleak txakurrez josita zeuden. Etxe batera sartu eta azken pisuraino igo zen, gela bakarreko etxe txukun bat topatuz. Han ordea, gizon bat zegoen ohean etzanda, emakume handi bat zutik atearen ondoan eta ume koxkor bat lurrean. Familia bat zen, ez zuten ezer esaten, ez ziren mugitzen, eta Floren balkoira atera zen: eguzkia atera bait zen, nahiz itzal batek...

Itzal bat... Brixtez jeiki zen Floren, bordan zela gogoratuz eta eguzkiak inguratzen zuen itzal hari begira. Alabaina, neska bat zen leihoan, espantu gabe begiratzen ziona.

–Ei! Zer duzu? –bota zion, zakartxo, Florenek.

Neska ixutu egin zen, leihotik aldeginez. Floren zutitu zen, harrapaka, baina neska atean ageri zen orain, ahots serio baina suabez esateko:

–Behien bila etorri naiz...

Florenek bete-betean ikusten zuen orain. Lehen beheko baserrian aitzurketan ikusitako neskatila segaila ezagutu zuen. Goizeko jertse zuriska, gona urdinak eta abarkak zeramatzan

soinean. Hortxehortxe hamasei urte izango zituen. Ilea, errubioa, nahasita zeukan, bildu gaberik. Aurpegi borobila zuen, gorriztaturiko masailak, ezpain haragitsuak, erdi-zabalduak inozentki. Zume-makila bati eusten zion eskuaz. Balditu xamar gelditu zen Floren, Karen edertasunaz, baina segituan erreakzionatu zuen, begirada desbideratuz eta legunki galdetuz:

–Zuena al da, borda hau?

–Guk erabiltzen dugu, neguan –erantzun zion neskak, xalotasunez.

Floren ikusteaz oso harrituta zirudien, ez bait zen atetik higitzen. Hartaz, Florenek segitu zuen.

–Lotarako leku polita... dios...! Ez nuen hemen gelditzeko asmorik eta seko jota erori naiz: eguzkia-ta...

Orduan neska itzuli egin zen, ateratzeko.

–Bai! –esan zuen–; eguzkia atera da...

Florenek neskaren atzetik joan behar zuela, sentitu zuen, eta jarraitu egin zion, kanpora. Belarrak bustita zeuden, baina eguzkiak dirdirarazten, edertzen zituen. Udaberriko koloreak nabari ziren. Behi flakoska talde bat ikusten zen, hesirik gabeko pentzean. Zeruan, laino handi, bakar

bat, urruntzen zen, eguzkiaz behera, sartaldera. Floren ongi sentitu zen, indarrez, optimista. Begiratzen ez zion neskaren gorputzari erreparatu zion, segundu batez. Mehatxa zen, baina polita, helduxea, gerritik behera behinik behin. Pentsamentu hura zokoratu zuen pixkor, urrats bat aurrera emanik ahots alaiaz galde egiteko:

–Zer dute ba, behi horiek? Nahikoa jan al dute bazterretan?

Neska lasai zegoen, bere terrenoan, nahiz lotsagatik apenas begiratu Floreni. Makilaz seinalatu zuen.

–Bi horiek eramateko erran du aitak. Ez dakit zer nahiko duen.

–Etxetik urruti daude, ala? –galdetu zuen Florenek.

–Ez hagitz urruti –neskak «gutxi gorabehera» adierazten zuen aurpegieraz begiratu zion–: Ordubete...

–Ordubete! –harritu zen Floren, mendian gora-behera egindako orduak gogoratuz.

Neskari grazia egin bide zion, Florenen aurpegiak.

–Hor nonbait! –eta begiez irri egiten zion.

Florenek ez zion erantzun, matrailak estutu zituen; makur bait zen, mendiz halako buelta egin –ez bait zuen ulertzen: beti direkzio beretsuan ibili zen eta; galdu egin zen, noski– eta horren bide laburra egina izatea. Orain, arratsaldez, nola abiatuko zen gora...? Sapoztuta zegoen, hitz burro batzuk xuxurlatu zituen. Neskak galdetu zion:

–Zer zoaz, goiti?

–Bai... Ez dakit...

Neska apartatu zitzaion, behien aldera, etxera bildu beharrekoak besteetatik berexteko noski.

–Gure etxera etorri! –esan zion Floreni, konprenituz bezala, arin.

–Zera! –esan zuen Florenek. Baina gora egitea, orain... Ez bait zuen ongi ezagutzen, bidea. Eta eguzkia aurkixe sartuko bait zen. Jakina, bordan ere geldi zitekeen, eta goizean... Halako presarik ez zuen, ez bait zeukan inor zain Iparraldean, bakarrik... Neskaren mugimenduak miretsi zituen. Haren etxera, orain...? Neska luzea zen, azkarra, bizia, Floreni gustatzen zitzaion. Haren etxea ezagutuko zuen. Denbora pasa zedin utzi-

ko zuen. Gerran ari zen, pistola bat zeukan, patruila batekin topo egin zezakeen, baina neska harek bere etxera joateko esan zion, oraintxe, eta posibilitateak biziro erakarri zuen.

Iturri bat ikusi zuen, beheraxeago. Haruntza joan zen, neskaren begi bistatik gordean zamarra erantzi zuen eta freskatu egin zen; on egin zion, eskuetan, besoetan, aurpegian.

–Banoa eta zaude piska batean! –esan zion ateka irekitzera zihoan neskari; freskoa nabaritu zuen eta, atzera zamarra jantzi zuen.

–Eee! Eee! –hots egiten zion neskak ateka pasatu nahi zuen behi gazte bati. Florenek lagundu egin zion beste oihu batez eta, atea itxirik, beste biak aurretik zituztela, bideari ekin zioten. Neska mintzatu zen, orain, aurrena.

–Behi gosetua! Nahi izaten du, besteekin etorri...

–Borda inguruan belar motxa du eta –esan zuen Florenek.

–Otea janen du! –esan zuen neskak, logikaz.

–Lastoak ere jango dizkizue...

–Libre du...! –eta gero, isilune baten ondotik–: Etxeko ganbarak ere hustuta daude...

–Udaberri da eta! –esan zuen Florenek, umorez.

Bai, udaberria zen, somatu zuen: udaberri-loreak, udaberriko berde argiak, eguzkiaren dizdirak, borda batean ustegabean azaldu zitzaion neska polit hura...

–Nola duzu izena? –galdetu zion.

–Mikela –esan zuen neskak, lotsa apur batez, eta zalantza txiki baten ondoren–: Eta zuk?

Orain, lehenago Martini ez bezala, gustora esan zuen bere izena Florenek, neskak bezala ixilka, sentsualitatez.

Ondo zihoan, Mikelaren ondoan, Mikelaren aurrean, edo atzean. Behiak mantso zihoazen eta haiek, urrats desberdinez, ez zuten presarik hartzen, konturatu gabe elkarrekin jolasten zebiltzen, alai.

Gero, Florenek zerbait galdetuta, Mikelak bere familia pintatu zuen, sinple, bizitasunez.

–Aita bizi dugu. Gu bost gara, bi anaia eta hiru arreba. Ni naiz zaharrena. Ama sabeleko minez hil zen, ume batekin.

Hari garrantzi handirik eman gabe bezala mintzo zen baina, Florenek doinu tristea nabari-

tu zion. Arinago deskribatu zuen goiko baserriko egoera:

–Hor Sebastian eta Julia bizi dira, beren aitarekin; ama desberdinak dituzte, baina. Zaharra ez Jute batere maite, horiek –keinu esajeratu bat egin zuen Mikelak hau esandakoan–: Hil eginen lukete, noski –eta erantsi zuen, lainotasunez–: Guri ez zaizkigu gustatzen.

Floren gogoratu zen, goizeko elkar hizketaz, eta galdetu zion Mikelari:

–Ba al dute traturik horiek, karabineroekin?

–Sebastian ikusi dut goardiekin solasean –eta Floreni behako bat emanik–: Zer ba?

–Ez zaizkit gustatzen eta, karabineroak –esan zuen, Mikelaren naturaltasunaz kutsaturik, Florenek.

–Aitari ere ez –pentsakor gelditu zen Mikela, eta gero erantsi zuen, sinzeridadez–: Neri ere ez.

Isilik segitu zuten piska batean. Behiek elorrien kontra igurtzitzen zituzten beren aldaka hezurtsuak.

–Lehengoan herriko albaiterua eraman zuten, horiek –gogoratu zen Mikela.

–A bai?

–Jendeak anitz estimatzen zuen. Haziak etxeraino ekartzen zituen eta. Bertzenaz aziendak herrira eraman behar dira. Eta berdin kobratzen zuen, herritik bertako etxeetan, eta aparte-apartekoenetan. Oinez etortzen zen, gaxoa –gehiegizko hasperena egin zuen Mikelak. Ixiluneak egiten zituen, tarteka. Aldian behin, aurpegira begiratzen zion Floreni, bere begi ñabar ilunez, eta Florenek ere begiratzen zion hari, ez beste inora, begietara baizik, eta neskaren emozioak bere sentitzen zituen, eta gero neska pittin bat aurreratzen zitzaion, eta Florenek begi-ukaldi soil batez haren gorputza bere egiten zuen, airos, harriz harri, maldan behera. Hitz bakoitzean, mugimendu bakoitzean, zerbaitez eranzten ari zela, zirudien; inpresio fresko, atsegin bat zen, Florenen sudurraren hegalak daldarrarazten zituena eta bere mugimenduak ere gozarazten zizkiona.

Horrelaxe segitu zuten, edozertaz hitz eginez, brinkoka, Mikelaren etxeraino. Floren fijatu zen, inguru bazterretan inor ez zegoena. Eguzkiak indarge jotzen zuen orain, baina giro garbia zegoen, Floren alai sentitu zen.

–Arbi sail ederra daukazue-ta! Goseak ez zarete hilko! –esan zion Mikelari.

–Ja! –esan zuen neskak–. Ogia hobea izaten da baina!

Behiak ikuilura sartu zituzten; beste bat etzanda zegoen, eta zutitu egin zen, lagunak agurtuz. Oiloak bazebiltzen belar hondarretan, katu txiki ikarati bat ere bai.

Etxe parean berriz, bi ume, neskato eta mutiko, topatu zituzten, sei-zortzi urte ingurukoak. Plastiko batzuez egindako pelota batekin ari ziren jolasten. Mutikoak deskonfiantzaz begiratu zion Floreni, neskatxak berriz irribarre egin zion eta pelota urruti bota zuen.

–Non da aita? –galdetu zien Mikelak, nagusi doinuaz.

–Ardiekin da –erantzun zion neskatoak, eta pelotaren atzetik korrika egin zuen; anaiak, gaztexeago, kaska motx-motx eginda, zikin eta mukitsu, jarraitu egin zion oldarka.

–Zerbait jan nahi duzu? –galdetu zion Mikelak Floreni.

Florenek ezetz esan zion. Apetitoa bazuen, baina ez zuen galerazi nahi.

Mikela etxera sartu zen. Floren, eguzkitan ongi, harrizko petrilean jarri zen, etxe atariko epeltasunean xoro-xoro. Esnearen usaina ximaurrarenaz nahasten zen han, eta udaberria, udaberria sentitzen zuen... Lili berri batzuk sortzen ziren etxe aurrean, kirtangorri, txoribelar, astamendak. Gero beherantzako aldapatxo bat zegoen, eta kasik bezperan ilunbistan bi baserriak lehenbizikoz ikustatu zituen bideguneraino luzatzen zen soroa hasten zen hantxe, simaurra ttutturru-mutturru pilakatuta. Bi haurrek, zer-edozer interesgarriagorik ikusita nonbait, lasterka aldegin zuten, pelota biderdian utzirik, jirabiraka. Goiko baserria ikusten zen handik, zuhaitz batzuez erdi estalita behekaldea; Florenek leihoak miatu zituen, Julia edo hegira ote zegokion handik, baina ez zuen kristalez barnera inolako higidurarik somatu. Ez zukeen nahi, haiek ikusterik noski, ez bait zen fidatzen, eta haien aldetik beste galderarik ere ebitatu gura zuen. Berriz ere zerua ikusi zuen: urdin-urdina... goizez hartu zuen urasetua eta gero...! Etxe barrutik neska hotsak zetozen. Florenek hasperen egin zuen. Geroxeago azaldu zen Mikela, bera baino hiru

bat urtez gazteagoko beste neska batekin, besoetan ume bat zekarrena.

–Hola –esan zion neskatilak, Florenen nortasunaz ahizpak informatuta dudarik gabe.

–Hola –erantzun zuen Florenek, lagun; baina bi neskak haurrari begira ziren, gizonak hari buruz zerbait esateko zain; Florenek besoa luzatu zion–: Zein dugu mutiko hau?

Ahizpak lurrean utzi zuen eta Mikelak burua laztandu zion.

–Erraiozu, nor zaren, mutil honi...

Floren harritu egin zen, eta gustatu egin zitzaion, Mikelak «mutil» esan zezaion. Bere eskuaz umearen lepoko ilea ferekatu zuen, eta neskaren eskua ukitu zuen, lipartxo batez. Mikelak erretiratu zuen eskua, baina Florenek ez zion kasurik egin. Umeari begira zegoen, bota handiegitan sartutako ume serio potzoloa. Itzi politago zen, hura baino, noski. Baina graziosoa zen, hura ere, landu gabeko Mikelaren perfil berdinaz, betarte zabala, ezpainak kanpora.

–Ez duzu deus erraten e, ttunttun horrek? –esan zion txikiari Mikelaren ahizpak, Mikela

baino arere meheagoa zena, sugandila bat, zinez, nerbioso xamarra gainera.

–Ea, zoaz konejuekin jostatzera –esan zion Mikelak, beti ere nagusi; eta Floreni, konprenitzeko eskatuz bezala–: Guk orain ongarriak barreiatzera joan behar dugu horra.

–Lagunduko dizuet –esan zuen Florenek, zutituz.

Bi nesken begiak alegratu ziren, baina Mikelak esan zuen:

–Zikindu eginen zara.

Esateagatik esan zuen. Florenek erantzun zion:

–Zikindu? Ez da erraza izango... –botak zeharo lohituta zeuzkan, galtzak ere zipriztinez josita.

–Asuntxi, hoa sardearen bila –agindu zuen Mikelak; berak bi zituen eskuetan, eta bat eman egin zion Floreni, biak bakarrik zirelarik galdetzeko–: Badakizu, sardean?

–Pixka bat bai –ihardetsi zuen Florenek, eta neska disimulorik gabe miretsiz esan zuen–: Ez zuk adina baina...

Mikelari mihia trabatu egin zitzaion, eta imintzio sinpatiko bat eginez itzuli egin zen, sorora

abiatzeko. Florenek aprobetxatu zuen momentua, eskaratzera sartu eta zamarra eta kartutxera Iagatzeko han. Mikelagana iritsi zelarik, neskak hartu zuen atzera iniziatiba:

–Giro ederra dago orain. Goizean...

–Badakit –moztu zion Florenek–; korrika etxeratu zara behintzat...

–Putzu-putzu egina...! –eta Mikelak esajeratuki zabaldutako begiez begiratu zion. Begi lotsatilasaiak, Florenen begietan mezu ttiki bat utzi eta segituan apartatzen zirenak... Hankekin lur apatza zapaltzen zuen arren, arin mugitzen zuen gerria Mikelak, Florenen aurrean. Bien artean, zubi majiko bat eraiki zuten, sentitzen zuen, eta, ixiltasunean, xarma hartaz gozatzen zuen orain...

Ongarritu ondoren, gorritu, urratu, alpertu beharko zituzten lur nasai haiek. Floreni, arnasaldi bakoitzean, lurraren usain ernagarria barneratzen zitzaion.

Goiko bordaren ondoko belaze txiki batean, ardi bat eta hiru arkume alatzen ziren, eguzkitan. Haruntzagoko mendiska batean, belar umel pilo batetik ke lodia altxatzen zen: Sebastianek piztua beharbada, pentsatu zuen Florenek.

Laster etorri zen Asuntxi, eta lanari ekin zioten hirurek. Mikelak is makurtu gabe, arin erabiltzen zuen sardea, simaur-pila bere inguruan barreiatuz, moltxo txikitan, eta ondoren moltxo horiek desegiten zituen, aise; teknika berdinaz baliatzen zen Asuntxi, nahiz dorpekiago, zerabilen sardea luze, moldegaitz bait zitzaion, eta lehiaz ari zen, presaka. Florenek berriz, berean beti horrela egin izan zuten eta, simaur-pilaren erdian ziztatzen zuen sardea, eta beste husgune batera eramaten zuen metaren erdia, handik mugimendu energiko, bizkorrez, hedatzen zuelarik ongarria.

Lau pauso eman-eta oinetakoen zolak arrunt zamatzen zitzaizkion, lokatzez. Mikelak lurmokor batekin tupust egiten zuela ikusi zuen.

–Simaurtu nahi al duzu, zerorrek ere? –esan zion Florenek, ernai.

Mikelak entenditu zuen bezala begiratu zion, irribarrez, baina ez zion deus esan, ahizpa han zelako menturaz.

Gutxi mintzatzen ziren. Simaur umela xehatzen nahiko lana zuten. Sardeaz zabaldutako simaurra beti ontzen gaitza izaten da, gogoratu

zen Floren, arestian Arrobigainekoak –bere amonaren baserriaren ondokoak– ganaduaren pixak mangera batez barreiatzen ikusita bait zegoen. Oraingo bustiak lagunduko zuen, ordea, lurrak behar zituen gatzak har zitzan, halaz ere...

Gero iluna belar puxketak jaten hasi zitzaion mendi maselari, eta lurraren koloreak apaldu ziren. Florenek, zeharka, hanka-izterrak ikusten zizkion Mikelari. Txoriak ttio-ttio ari ziren inguru guztian –lur harroan, eta sasirik sasi, eta arboletan, kabi-eraikuntzan, pentsatu zuen Florenek, eta beste simaur-pila bat zauritu zuen, erdizerdi, sardeaz, eta galtzarbetik behera izerdi ttantta bat irristatu zitzaion.

«Baserriko lana!» pentsatu zuen, «ez duk ez samurra!». Aspaldiko amets bat izan zuen, bere aitonamonen antzera, lurretik bizitzea, ganaduak emango zionetik alegia. Ametsak ihes egin zion, poliki poliki, Rosario ezagutu eta gero, noizean behingo gogorapen abstraktu bat bilakatu zen arte. Nork zekien, ordea, egunen bateau...? Izan ere, inprimategiko lana neke zitzaion, hango langileekin apenas harremanik ez zuen, nagusia berriz jatorra zen, tratatzeko moduko gi-

zona, beren aldekoa gainera, baina, hango makina-hotsa, errotatibaren trakatraka hura... Hots mekaniko, absorbente hura barruan zeraman oraindik, gogogabegarri, burua nahasten eta pentsamentua galerazten ziona... Ez, hartan ez zen gelditzekoa behintzat, ez zen zulo hartan itoko, bizitzan beste zerbaitetara ailegatuko zen, eta oraintxe zuen aukera, beharbada...

–Zibilak! –esan zuen Asuntxik, bapatean.

Neskak begiratzen zuen lekurantz begiratu zuen Florenek. Hiru goardia zibil ikusi zituen, mordoxkan, beste bi atzerago. Behetik gorako bide batetik zetozen, oraindik urruti. Instintiboki, goiko baserrira begiratu zuen; eta handik behera, beheko baserritik ez pasatzearren akaso itzuli bat eginez, sasi tartean, Sebastian zihoala ikusi zuen. Dena galtzea, edo salbatzea, minutu baten gorabehera izan zitekeen.

–Segi lanean –agindu zien neskei–, eta ez horiei esan hitzik ere nitaz.

Asuntxi izutu egin zen, eta ahizpari begiratu zion. Mikelari bisaia ilundu egin zitzaion, baina ezezkoa egin zion Floreni buruaz. Florenek haren ziurtasuna sentitu zuen. Sardea lepoan zuela,

baserrira jo zuen, poliki. Atzean Mikelak ahizpari «segi!» esaten ziola, aditu zuen. Sorotik aterata, berriz, zetozen goardiek ez bait zezaketen jadanik ikusi, mugimenduak azkartu zituen. Sardea utzirik atarian, zamarraren azpitik pistola hartu zuen, eta galtzetan gorde zuen, aurrekaldean. Gero Sebastiani non heldu, kalkulatu zuen. Mikelaren anaia txikia ikusi zuen, txitoekin jolasean, eta txikiak ere ikusi zuen bera, harriduraz. Korrika egin zuen, puska batean. Xendra estu batean topatu zen, buruz buru, Sebastianekin. Beroturik zegoen, hura txikitzeko prest.

–Nora zoaz? –galdetu zion, hala ere.

–Zerri bila –erantzun zuen Sebastianek, hoiak erakutsiz.

Gezurra esaten ziola somatu zuen Florenek. Begi traidoreak zituen, zibilengana zihoan. Pistola atera zuen, besteak ikusteko heinean, eta agindu zion:

–Segi etxera, ixilik.

Sebastianek dezisioa ikusi zuen, Florenen begietan, Florenen ahoan, eta buelta egin zuen, eta ibiltzen hasi, hitzik esateke; «azkarrago!», agindu zion Florenek. Sebastian urduri zebilen,

albora begira. Floren beldur zen, oihu egingo ote zuen. Pistola bizkarrean sentiarazi zion.

–Segi ixilik! Azkar!

Baserrian sartu zirelarik bakarrik galdetu zion:

–Non duzu arreba?

Sebastian daldarka ari zen.

–Bordan izanen da –erantzun zuen.

Sukaldean aitona zegoela ikusi zuen Florenek, baina hura ez zen beren hotsez alarmatu. Mikela eta Asuntxi ziren sorora jotzen zuen koarto batera sartuzen, Sebastian aurretik zeramala. Giro iluna zegoen han, kanpoan oraindik ongi ikusten zen baina. Florenek ohean eseritzeko agindu zion gizonari, eta leihotik kanpora begiratu zuen. Zibilak ez ziren oraindik azaldu, eta Mikela eta Asuntxik simaurra barreiatzen segitzen zuten, bastante lasai.

–Ikusi dituzu, eh? –galdetu zion, biolentziaz, Sebastiani.

Baina gizona oso beldurtuta, koloregabetuta zegoen.

–Ez... dut... inor ikusi... nik...

Haren erreakzioa ikusirik, lasaitu egin zen Floren, Sebastiani zegokionean, eta kanpora begira segitu zuen. Berandu gabe, han ziren bi karabinero, gero, banan banan, beste hirurak azaldu ziren. Nekatuta ziruditen, hatsanturik, arropak soberan, korreajeak oker paraturik. Mandoa zirudiena, beste batek lagunduta, lanari utzi zioten neskengana urreratu zen, eta sorora sartu gabe mintzatu zitzaien. Mikelak erantzun zion; karabineroak beste zerbait esanda Mikelak sardea utzi zuen eta etxe aldera abiatu zen, goardiak gibeletik zituela. Arin zihoan, zuzen, lurrari begira. Etxera sartu zen, eta karabineroek txapelak eta mosketoiak erantzi eta botak astindu zituzten. Sebastiani begiratu zion Florenek; abaildurik zegoen gizona, izuti, muker. Gero Mikela irten zen baserritik, pitxer bat esku bateau eta baso bat bestean. Ura zen noski, eta hartatik edan zuten gogotik bost karabineroek. Gero bromaren batzuk egin zizkioten elkarri, zigarriloak piztu zituzten, Mikelari ere beste zer-edo-zer esan zioten, umorez; hartan Florenek burua amorruz betetzen zitzaiola, nabaritu zuen. Mikelaren sei-zortzi urtetako anaiarrebak azaldu

ziren, eta Asuntxi ere begira zuten, sorotik. Mikelak zerbait esanda, anai-arreba txikiak oilo baten harrapatzen saiatu ziren; oiloak korrika egiten zuen, salto bat eman eta sorora jausi zen, simaurretara. Karabineroen barre-algarak goiko baserritik aditu ziren. Floren beldur zen, Julia edo aitona nahastekatuko ote ziren, hartan: baldin eta aurki joango baziren, txakur nazkagarri haiek...!

Mutikoak heldu zion azkenik oiloari, eta karabineroei eraman zien, esku biak luzaturik, herabe. Mandoak –sarjentoa, seguru aski– hartu zion, gaitzespenez begiratu zizkion goiak eta beheak, eta numero bati pasatu zion; honek berriz krrra! lepoa bihurtu zion instantean, eta atzera barre ozenak egin zituzten denek. Gero umorezko beste komentario pare bat eginik, mosketoiak jaso eta oiloa hil zuenak hegaztia gerritik zintzilik zeramala, aldegin zuten, soro ondoko bidean aurrera, herri alderantza. Asuntxik sardea bertan behera utzi eta lasterka egin zuen, etxera.

Bapatean Floren ohartu zen, arratsaldea amaitzen ari zela; mendiko berdeak bezten ari ziren eta ihes egindako eguzkiak ozta-ozta urdintzen zuen zeru goibela. «Bihar eguraldi ederra»,

pentsatu zuen, oharkabean, eta Sebastianengana bueltatu zen. Gizonak bazterka begiratzen zion, jo dezaten espero duen zakurraren gisa. Pena halako bat sentitu zuen Florenek, ez zitzaion hitzik bururatu; leihoan itxadon zuen, zibilak aldapa igo eta bizkarraz bestaldera desagertu zitezen. Gero Sebastiani esan zion:

–Joan dira, horiek.

Ez zuen ematen sustoak batere onik egin zionik Sebastiani. Bere handitasunean deus-eza, jota gelditu zen. Beso batez igurtzi zuen musua, ezer esateke. Floren ez zen halere fidatzen.

–Goazemazu kanpora –agindu zion.

Sebastian jeiki zen, errebeski, eta biak irten ziren kuartotik.

–Gaur ez atera hemendik –abisatu zuen Florenek, eta puñalak ziruditen begiez begiratuz, erantsi zuen–: Badakizu...

Sukaldetik ordea, jende-hotsean noski, Julia atera zen, eta Floren ikusita:

–Baina... zer egiten duzu oraindik hemen! Ez al zinen joan!

Asaldatuta zegoen, begi handituez, abarroska.

–Lasai egon, etxekoandre –Floren zen benetan, emakumearen aurrean tenplea galtzen hasita zegoena–, banoa segituan eta!

–Baina... baina... baina... –Juliak esplikazioak eskatu nahi zizkion, baina Florenek ez zion betarik eman, larri eta arrapaxka irten bait zen handik.

Goizeko bidean aurrera abiatu zen agudo, gero egurrezko txabola eta abarrak pasatu eta goitik behera sartu zen, ez oso lasai, beheko baserrirantza. Intuizioz zebilen, ez zekien Mikelaren etxean momentu soil batez gelditu, neskari eskerrak eman eta agur esateko, edo zer egin hortik aurrera; ez bait zuen nora jo, bestela.

Hotz egiten zuen: gau garbia bait zen, noski. Floren sasi tartean zebilen. Instant batez bidea galdu zuen, eta atzera egin zuenean, mantsoxeago, hontz baten ulua aditu zuen; pauso motzagoak hasi zen ematen eta, beheko baserriarekin parez pare topo egin zuelarik, nahasmena apur bat aldegina eta mendiko majia barneratua somatu zituen. Etxearen atzekaldean zen; leiho batetik barruagoko beste kuartoren bateko argia isladatzen zen apalki. Ardi baten txintxarri-hotsa

aditu zuen. Baserriaren itzulia egin zuen, eta eskaratzean sartu zenean, han zegoen mutiko tikiak bera ikusi zuen, eta Taster izkutatu zen, sukaldera. Florenek pistola gorde zuen zamarran, eta haren atzetik sartu zen.

Kandil baten argitan, familia osoa zegoen. Aita, gizon argal, buru soila, mahaiaren buruan jarrita, lehen pelotarekin aritutako bi neska-mutilak, jarrita orobat, Mikela, sukaldekoak egiten, eta Asuntxi, ume tikia bere egurrezko aulkitxoan eseri arazten ari zena. Giro trinkoa zegoen, eta denak Floreni hegira jarri ziren, espektante.

–Aupa! –agurtu zuen Mikelak, halako kariño sinpleaz–. Afaria pronto dago, eta juxtu heldu zara.

Florenek zirrara bat sentitu zuen, harrera goxo hartaz.

–Gabon! –esan zuen, aitari begira batipat, eta honek «berdin» ahul batez ihardetsi zion–. Hasi gabe al zaudete? –erantsi zuen, aitak erantzun zezan.

–Bai...!

Sudurra zorrotz, bista apal eta laino, hitz gutxikoa ematen zuen aitak. Mikela –etxeko zapati-

lez jantzirik orain, hanka sagarrak agiri– azaltzen zen sukaldeko nagusi, eta Asuntxi ere bai, ahizpari lagunduz. Gainerako umeak segituan hasi ziren, beren arteko jolasez, aita edo beste inorenganako halako errespeto itsusirik gabe. Lasaitasuna nabaritu zuen Florenek, eta salda beroaren usaina aditu zuen, sagar egosi, eta esne, eta tipula erre eta beste usain majiko batzuekin nahasian.

–Jarri zaitez hor –esan zion Mikelak, eta sei bat urteko mutikoa eserita zegoen aulki luzea erakutsi zion; mutikoak lekua egin zuen, eta mahaiaz bestaldetik, zortzi urteko arreba kantatzen hasi zen–. Eta zuek ez harrotu; benga, kendu baso hori.

Aitaren muturraren aurrean paratu zuen eltzea; porrusalda zen, eta Floreni ikaragarri gosetuta zegoela gogorarazi zion. Jertsea erantzi zuen, izan ere sukaldeak bero latza egozten bait zuen. Mikelak pago egur pare bat bota zuen sutara, eta eseri egin zen, Asuntxik danbolinari eragiten ziolarik.

–Zer, oiloa lapurtu al dizuete, horiek! –esan zuen Florenek, janaren aurrean umorea gainezkatzen zitzaiola.

–Horixe, lapurtu! –esan zuen aitak, amorruz.

–Eskatu egin didate eta, eman egin behar! –esan zuen Mikelak, pittin bat ahalketurik, baina here onera segituan itzuliz–: Bertzenaz, Asuntxi eramanen zutela, erran didate.

Denek barre egin zuten, aitak ezik.

–Ni eraman? –esan zuen Asuntxik–. Hi eramatea bazitenan!

–Nerekin ez ditun atrebitzen –esan zuen Mikelak, harrosko; eta aitzaki harekin berriz desmadratzen hasitako haurrei–: Benga, zuek har ezazue salda, kontu gutxiagorekin.

–Zer gehiago esan dizute? –galdetu zuen Florenek.

–Aurrena –esan zuen Mikelak– Sebastianegatik galdetu didate, eta nik basoan zela, erran diet, gero ura nahi zutela eta etorri egin gara eta, hori, eta gero oiloa, Pellok harrapa du eta eman egin die, eta mehegia zela eta salda egiteko ere ez zutela izanen eta, Joan egin dira behinik behin...

Sinple mintzatzen zen Mikela, bere hitzek apur bat inpresionaturik antza. Florenek ezpainetara begiratzen zion, begietara gero.

–Sebastian hori, ez al da orain goardiengana joango... –hasi zen esaten.

–Ez dut uste –esan zuen Mikelak, duda izpi batez.

–Hori ez duk inorengana joanen –moztu zuen aitak, bapateko dezisioaz–. Txepela duk hori!

–Eta here arrebak ez...? –galdetu zuen Florenek.

–Ez duk aterako, sorgin hori ere! –erabaki zuen zaharrak, subera.

–Ez dut uste ausartuko direnik... –esplikatu zuen Mikelak.

–Gaua hemen pasatzeko... –eskatu zuen, hartan, Florenek.

Mikelak ez zuen deus esan. Asuntxi mintzatu zen orduan:

–Ganbaran lo egitea duzu...

–Bai... –esan zuen Mikelak.

–Ez nituzke gauzak konplikatu nahi... –duda egin zuen Florenek, berriz ere zaharraren hitza entzun nahirik.

–Hi ganbaran sartu baldin bahaiz –esan zuen aitak, eta lehenbizikoz bista altxatu zuen, Floreni zuzenean begiratzeko–, guk ez zekiagu deus.

Haren hitz gutxitako laguntasuna apreziatu egin zuen Florenek. Porrusalda bukatu zuten. Mikelak platerak bildu zituen eta Asuntxik gaztainak ekarri zituen: egosita, plater txorkon batean, aitarentzat, eta mordoska batzuk erreta, gainerakoentzat.

Umeek lehiaz jaten zituzten. Neskatilak esan zion mutikoari:

–Zuri gaztain bat haziko zaizu tripetan.

Biek barre egin zuten. Neskatilak pikardiaz erantsi zuen:

–Orain ura emaiozu –eta basoa luzatu zion; denek barre egin zuten.

Gero aita-alaben arteko solasa izan zen: ardi bat gaixotu zela eta noiz arte egongo ote ziren albaiterurik gabe. Mikelak esan zuen:

–Aziendak hartu eta herrira joan beharko genuke, aiuntamentu parean gelditu eta aber zer erraten duten... Zerbait erran behar dutelakoz, horretaz!

–Horixe! –lagundu zuen Asuntxik.

Baina aitak ez zuen deus esaten, eta etsipenez eta ironia ukittu batez mugitzen zuen burua, gaztainak jan ahala.

Floren gose bait zen, Mikelak, ohartuta, hiru arraultze frijitu paratu zizkion, eta Florenek eskertu zion, neskak bakarrik somatu zuen begirada lagunaz.

Aitak isilik jaten zuen, eta Florenek, hargatixe, etxeko nagusiaren begirunez edo, umeekin disimuloz egiten zuen jolas, hots handirik atera gabe. Asuntxi eta Mikela ere jarri ziren eta hala, beste kontu berezirik gabe, kriseilupeko familiaren goxotasunean edan zuten esne katilu bana.

Aurrena Asuntxi atera zen, ume txikia erdi-lokartuan, negar-muxinka besotan zeramala; ondoren Mikelak beste bi anai-arreba gazteak bidali zituen lotara. Aita irtetera zihoala, berriz, Asuntxi atzera sartu zen, eta ganbaran koltxoia eta mantak utzi zituela, esan zuen. Floren zigarrilo bat erretzen ari zen, eta Mikelari mintzatzen ari zitzaion:

–Benetan urruti bizi zarete...

–Urruti? –moztu zion Mikelak–. Guretzat ez da urruti...

Neska mahaia garbitzera hurbildu zela aprobetxatuz, berriz, Florenek:

–Inoiz ez al zaizu bururatu, hemendik ateratzea?

Hura gehiago gustatu zitzaion Mikelari. Dirdir egin zioten begiek.

–Hemendik atera? –ihardetsi zuen–. Nora joateko? –sentsualitate lotsakor batez esan zuen, Florenen erantzuna bilatuz.

–Baduzu nora joan: Donostia, Iruñea... Paris!

–Urrun dira horiek...! –esan zuen Mikelak, ipuin batetik ateratako izenak bailiran horiek.

Sukaldearen garbiketa bukatzen ari zen eta leihoa zabaldu zuen, kanpora begiratuz.

–Bihar eguzkia izanen da...! –esan zuen, eta norbaitek gibeletik besarka zezan, zain ematen zuen.

–Orain buelta bat emateko ere... –atrebitu zen Floren.

Baina Asuntxi berekin zen, lurra garbitzen iñarraz, eta Mikelak leihoa itxi zuen eta Florenek, zigarriloa itzali eta gero, «bueno» esan zuen, (do pixka bat egin beharko dugu». Zutitu egin zen, eta Mikelak, kandela bat hartuz, «eramanen zai-

tut» esan zion. Elkarri gabonak opa zizkioten Asuntxik eta Florenek, eta hau eta Mikela irten egin ziren sukaldetik. Korridorean, Mikelak kandela piztu zuen poxpolo daldarti batez, eta begiek ere daldar egin zioten, ikusi zuen Florenek; gero, egurrezko eskaileraren maila desberdinak igo zituzten, neska meiharra aurretik –ile horihoriak, kandelaren argitan, eta aurpegi gorrixta, eta ezpain goxo hai-ek...–, eta gizona atzetik, betile erreak, bekain zabalak, larru gogorra, bizarra... Esku batean –esku handiak, indartsuak, Florenenak– zainarra zerainan, eta bestean, ongi helduta, burdin gogorra...

Ganbaran hotz egiten zuen, eta kandelak koltxoia zegoen izkina argitzen zuen soilik, hormazurak eta teilak, oihalezko zakuak, sagar ziinelak pilo bat eginik... Mikelak kandela lurrean utzi zuen eta «bihar arte» arinegi esanda segituan eskaileretara zihoan. Floreni, hartan koltxoian eseri bait zen, idea bat etorri zitzaion.

–Mikela –esan zuen. Zer?

–Gustora erreko nuke zigarrilo bat eta... ekarridazu paketea.

–Bai.

Tabakoa sukaldean apropos utzi zuela, konturatu zen Floren. Berotu egin zuen, azkenekoz, neska sekail harek; inaitasuna eskatzen bait zuen, oso detaile txikiez: axaleko zerak kontatzen ari zela, sukaldean, haren begi brilo beratx, baina-ta berogarria, edo-eta harriaren kontra jarrita ontziak garbitzen ari zela bere gorputzaren mugiinendu laxai xainarrak... Botak eranzten zituelarik, Mikela besotan har zezakeelako usteak are gehiago berotu zuen Floren. Giro inajikoa nabari zuen, sagarren, euriaren eta lasto hondarren usaina, eta isiltasuna, isiltasun handia, zenbait xoinorro eta gau karaskariren oihuek bakarrik hautsia. Florenek ez zuen ezertan pentsatzen, ahoa erdi zabalik zuen eta sentitu egiten zuen, soilik.

Gero, ate hotsa behean eta Mikelaren urratsak... Baina Florenek barren-barrenean gordetzen zuen sua, azalera zekion utzi gabe. Eta neska agertu zen, lasai, irribarre batez. Orduan bai, Floreni odol-hotsa bizitu egin zitzaion, neska prest zetorrela konprenitu bait zuen; oso berotu zen; eta hala, neskak urreratu eta eskua luzatu ziolarik, Florenek, paketea gabe, esku inuturra

heldu zion, eta bere ondoan jarri arazi zuen. Neskak bazekien noski, eta begiak bajatzeko imintzio txiki bat eginda, jaso egin zituen, Florenen pareraino. Desiozko eta beldurrezko argi bana zuten. Ez zuen deus eskatzen jadanik, sainurtasuna besterik, eta Floren sainurtu egin zen, eta neskaren berotasun zoragarri hartan abandonatu zen eta hura begiak ixten hasi zelarik ezpainak ukitu zizkion...

Etzanik egon ziren luze, Floren Mikelaren gainean, iinajinazioak eta gorputzak esnai, eta beste dena, eguna eta mendia, lo zeudelarik, eta eguneko esperientziak oro hartara konzentratzen ziren: goizeko lehenbiziko ikustaldia, Floren iratze artean galtzak lotzen ari zela, bordako arratsaldeko enkontrua, eguzki goxoan, eta ongarria barreiatzen ari zireneko xehetasun haiek... Mikela errenditurik soinatzen zuen Florenek, eta suabe, suabe ematen zion inusu, jakinik eta besotan inunduan den gauzarik ederrena zuela, eta gonak jasota zeuzkan eineak, eta haren gorputzaren usain hezeak aditzen zituen arrak, eta bien gorputzek bat egin zuten, Mikelaren He hori xehea, begi distirantak, aho zabala,

esku gogorrak, hanka luzeak, gerri biguna... dena einaten ari zen, eta Florenek sakrifizioa miresten zuen, eta hura berea, betiko berea egiten ari zelako arras gozatzen ari zen. Mikela ez zen apenas inugitzen, besoak orain laxo-laxo utzirik zituen eta hankak altxaturik, Florenen gerria heldu gabe; tarteka, begiak irekitzen zituen eta intziri zitekeen suspiro labur bat uzten zuen askatzera; gero, suspiro luze, diferente batez erditu zen...

Goizaldeko freskoak sudurra ukitu ziolarik esnatu zen Floren, eta Mikelaren usaina ez zen jadanik han. Ongi sentitu zen, inoinentu batez, ganbarako handitasunean, epel, inanta zahar haien azpian. Txori baten kanta aditu zuen, eta txantxangorria ezagutu zuen. Harek Andoaingo beste txantxangorri bat oroitarazi zion, Itzi bere alabaren laguna zen txantxangorria, behin baino gehiagotan, jai-egunetan biak paseoan zebiltzalarik, Abadezelaia zeritzoten belaze batean ateratzen zitzaiena. Agustinekin ere gogoratu zen, hartaz, baina segituan bezperan solastatutako

Martin zelako hura bururatu zitzaion; Martin harek esandakoari buelta pare bat einan zion eta... «Bai» erabaki zuen, fitfat, begi-itxiriki batean, «barruan segituko diat». Gauzak gerora konplikatuko baldin baziren ere, eta Agustinekin ixtilutan aritu behar baldin bazuen ere, bera orain herrira itzuliko zen.

Jeiki egin zen, eta galtzak jantzi zituen, eta botak eta zainarra ere bai. Mantak tolestatu eta koltxoiaren gainean utzi zituen. Gero, polliki polliki, isiltasunean, eskailerak jeitsi zituen eta instant batez korridorean gelditu zen, zalantzan; nola esan, Mikelari...? Sukaldeko atea erdi-irekita zegoen. Hartaz, tabako paketea atera zuen eta, barrura sartuaz, txukun-txukun zegoen mahai luzearen gainean utzi zuen maitasunez. Gero atera zen.

Egun hotza zen, aski iluna oraindik. Floren kuxkubildu zen bere zainarrean, eta bidean aurrera jo zuen, urrats gogorrez. Ez zuen erabat izoztu, zenbait tokitan ur-xirripa zebilen bederen, belazeak ordea erabat antzigartuta zeuden, tanta zuriz josita. Lainosta bat, mehe-inehea, lur arrasekoa, hedatzen zen oraindik, baina inendia-

ren isla, beltz, hodei xinple batzuek apenas histutako zeru urdin-ilunaren kontra dibujatzen zen jadanik. Zaldi batek putinka egin zuen baserrian eta Florenek bista itzuli zuen. Hotzaren zuriskak estaltzen zuen baserria eta Mikela ez zen ageri. Orduan neskaren usain sarkorra aditu zuen, elkarrekin zeudeneko gozoa. Haren begi ilunez gogoratu zen eta begirada abstraktu, intiino batez despeditu zitzaion, inenturaz oso, oso denbora luzerako.

Gorantzako aldapa bukatzen zen bidegunean ez zen ezertarako bueltatu: pauso batzuk egin zituen aurrerantza, eta ez zuen inoren ausentziarik somatu. Burdin-sare zaharrez hesituriko soroa, goiko pinadi txikia, aurrerago iñarrak... Egundu ahala, goi parteko lainoak, argitasunak irentsirik bezala, urtu egiten ziren, aldiz, horiek guztiz ezabatu baino lehen, lurrari atxikita zeudenak, bapatean, kasik majikoki, altxatu ziren, eta Floren, latsetik edan berri eta freskatua, edertasun hartaz kutsatu zen, hezurretaraino.

Ez zeukan bezperako beldurrik, eta urrutiko zuhaiztiak konfiantzaz arakatzen zituen, eta nondik nora jo behar zuen erraz antzeinaten zuen,

aldez aurretik. Pagadian sartu gabe, haren gainetik, itzuli eginez luzatzen zen bizkar inalda goxo batean barrena abiatu zen. Eguzkiak, zerumugako gorritasunak deseginik, bete-betean jotzen zuen hantxe, eta haren berotan, hemen eta han, San Jose lorerik goiztiarrenak zabaltzen hasi ziren. Pasmo-belarren artetik sortzen zen belarño luze bat atzeman zuen Florenek eta, neurrian ebakita, arduraz, koska egin zion bi hortzez, eta txotx harek, tradizio zahar baten oroitgarri gisa, segurtasuna, indarra sentiarazi zizkion. Itziz akordatu zen berriro: bai neskatila besotan heltzeko gogoa...! Heldu eta inoiz, inoiz ez uztekoa... Izugarri maite bait zuen.

Gero eguzkiak ukitu baizik egiten ez zuen basoan sartu zen. Apomahatsak, suge-belarrak eta haritziratzeak hazten ziren bide bazterretan. Basoaren isiltasun harrigarri samarrean, ur-txirripa baten mormorioa nabari zen soilik. Hots zoragarria...! Errotatibaren burrunba gogoratu zitzaion. Ez, orain ez zen hara sartuko lanera, zin egin zion bere buruari; hori baino lehen, eta besterik ezean, amonaren baserrian arituko zen... Ez al ziren bere bila ibiliko, bestela... Horrexek kezka-

tzen zuen noski, beste ezeren gain: baten batek bere izena kantatu ote zuen? Gordean egon beharko ote zuen, luzaro? Eta nola segitu burrukan...?

Basotik irten zenean, sortaldeko gorriak ilauntzen ari ziren, eta azkeneko lainoak –haizeak ekarri-eramaten dituenetarikoak ez, agerraraz-aienarazten dituenetarikoak– lurrintzen ziren, zeru lasa batean. Zuhaitz adar bilutsetan, babesik gabeko txoriek beren poz oihuak airaratzen zituzten, eta haien aldamenean, udaberriaren usainean, kimu berriak ninikatzen ziren, mordoxkatan.

Gero ota leku zelai bat zeharkatu zuen, harri konkor batzuetatik sortzen zela zirudien beste erreka txiki bat –denbora puxka bat izango al zuen behintzat, nola segi, ideak zertxobait ordenatzeko buruan...–, eta aldapa piko batean hasi zen goraka.

Bazekien ez zeukala bide errazik handik goiti, halaz ere bere buruaz, bere indarrez, inoiz ez bezala fido zen, gauzak ongi lotu eta aurrera aterako zituela seguru zegoen. Hamar minuturen buruan mendi lepoan zen; lepo hartara hamaika

biaje eginda zegoen, txiki-txikitandik, eta batez ere gaztetan, lagunekin, eta bakarrik ere bai, makina bat aldiz. Hain gustokoa zeukan paisaje hura ikustearren bista itzuli zuen, eta eguzkiak kopeta berotu zion; Mikela...

Mendi belaze berde-grisetan, zelaietan galtzen ziren txintxarri hotsez, abere gorri ale batzuk larratzen ziren. Hango harriak, hango zuhaixkak eta bidexkak... Eta atzean, beste mendi kate bat, ilunagoa, baso usuak eta harri multzo trinkoak; eta beste bat, atzerago, haren leizeak eta muinoak, eta beste bat, ondoren, grixago, goibeltsu... Florenek bista jeitsi zuen, eta arkorotzak ikusi zituen belarretan, eta harri zahar eta likentsuak, han-hemenka... Haietako bat, tikiskoa, atsegin izan zuen; hartara hurbildu zen eta, indarrak batuz, altxatu egin zuen; gero, xulo bat eginda nabalaz, plastiko batez bildutako pistola sartu egin zuen hara, eta lurra eta harria gainean ipini zituen, kontuz.

Aurrera segituz laster iritsi zuen mendi gaina. Bestaldea, Andoain eta inguruko herriak ikusten ziren handik. Eguzkiak harrotutako paisaje ezaguna... Mila puxketa egindako lurrak, lur puxke-

ta beltzak, lur ñabarrak, lur berde ilunak, alfalfa soroak, berde argixeagoak, bezperan ebaki belazeak... Eta etxeak, eta fabrika txiinini baten kea, eta harrobi baten urruneko hotsa... Ordu pare batez... Urteak aurrera –gogoratu zitzaion, hartan, Floreni– biajeak geroz eta luzeagoak izaten dituk –eta paisajeak, geroz eta laburragoak.